

Paulo Iztueta Armendariz

**Kritika literarioaren  
lehen saioak (1926-36)**

Utriusque Vasconiae

© Paulo Iztueta  
© Utriusque Vasconiæ  
Lehen argitaraldia: Donostia, 2002ko abendua  
ISBN: 84-932654-3-8  
Lege-gordailua:  
Irudia: Euskaltzaleak (1930)  
Maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE

Ategorrieta Hiribidea, 3-3. 20013 Donostia  
Tel.: 943-270433

Banatzaila: BITARTE – 31195 Berriozar (Nafarroa)  
Tel.: 948-302239

Paulo Iztueta Armendariz

Kritika literarioaren  
lehen saioak (1926-36)



Liburu hau Ur Apalategi Idirinek zuzenduriko  
KRITIKA LITERARIOA  
sailean argitaratzen da

## AURKIBIDEA

### LEHEN ZATIA: BIDE BERRIAK ALA ZAHARBERRITUAK

I. Aurrez esan beharrekoak, hemen eta orain .	11
II. Itzulpenen aldia (1929-1931) . . . . .	21
III. Jautarkolen <i>Biozkadak</i> (1929) . . . . .	47
IV. Lauaxetaren <i>Bide Barrijak</i> (1931) . . . . .	57
V. Aitzolen gerizpekoak: <i>Eusko Olerkiak</i> (1930-36) . . . . .	75
VI. Lizardiaren <i>Biotz Begietan</i> (1932) . . . . .	103
VII. Populismoaren garaipena (1934-36) . . .	119

### BIGARREN ZATIA: ZENTSURAK, APOLOGIAK ETA...

VIII. Idazle baztertu baten kronika . . . . .	131
IX. Orixe Lizardiren defentsan . . . . .	149
X. Estefania eta Mokoroa Orixeren defentsan	165
XI. Bere garaian argitaratu ez zen poema baten historia ahantzia . . . . .	179
XII. Ez da azken hitzik . . . . .	189

## Sarrera

Irakurtzea plazer baduzu, hitz laburño batzuk zuretzat, irakurle, eskuetan duzuna zer den eta zertara datorren jakin dezazun.

Bada Eusko Pizkundeko euskal literato batzuen gainean argitaratutako saio eder eta baliosik. Nire honek ekarpen koxkor bat izan nahi du eginda eta eginbidean daudenen ondoan.

Duela hamarren bat urte Orixeren inguruan han-hemen barreiatuta idatzi nituenak dakartzat hona. Baina edukia eta azala lar aldatu gabe, egia esan, ordukoak irakurrita, aldaketak egin behar handirik ez baitut ikusi. Hori bai, ahalegindu natzaizu neure orduko soineko formalari goi-behe eskuila pasatzen, orduan oin-oharretan jarri nituenak zegokien lekuan jartzen, esaldi desegokiak egokitzen, ideia bihurregiak errazten, akatsak zuzentzen. Hala ere, ondotxo dakit, orbanen bat edo beste begiztatuko ez duen irakurle zuhurrik ez da izango. Eta irakurketa errazteko, iturri-aipuak oro kendu dizkizut.

Saio honen gaia, izenburuan datorren bezala, euskal kritika literarioari dagokiona da, zehazki 1926-1936ko epealdia hartzen duena. Hamar urteko epealdi horixe dugu Eusko Pizkundearen azken aroa osatzen duena eta oro-

korrean euskalgintzan eta zehazkiago euskal literaturgintzan ematen diren lehen saioak, hain zuzen ere, ordukoxeak ditugu. Kultur mugimendu honek gailurra 1930eko hamarkadan –gerraurrekoan– joko du, nahiz aurreko hamarkadako azken urteetan bizkortzen hasia zen. Gure saioak hori du epe-muga, bere laburrean biziki aberatsa dena, euskaltzaleen belaunaldi hark erritmo ezin azkarragoan bizi izan zuena, aldi berean, kanpoko aire berritzaileari leihoak irekita eta etxeko teilatuari irmoki eutsiz. Izan ere, orduantxe hasten da gure lurraldeko zati bat, Hegoaldeko kostaldean kokatua zehazki, hiritartu eta industrializatzen. Pentsamenduz sekulartzen ere bai? Galdera hauxe izango da garai honetan euskal poetikaren gainean sortzen den eztabaidaren gunea erdiz erdi jotzen duena, saio honetan zehar behin eta berriro harrotzen dena.

Bi zatitan banatua datorkizu saio hau. Lehenengoan, euskal kritika literarioaren hastapenak aztertzen dira, gehienbat egunkari eta aldizkarietan agertzen direnak. Hor ikusiko dituzu elkarren lehia klasikozaleak, berri-zaleak, populistak eta. Azkenekoan, hezkuntza formaleko curriculumarekin gertatzen denaren antzera, kulturaren nahiz literaturan ezkutatzen dena jakingarriago izaten baita azaltzen dena baino, hor sartu ditut gizarteko eta pertsonarteko elkarrekintzen labearen egosten diren idazleen arteko harremanak, noiz bakezkoak, noiz gatazkatsuak, noiz gizatasunezkoak, noiz bestelakoak. Botereak berekin duen kontrola izango da hor arazo-iturri nagusia. Ohartuko zarenez, botere jauna –berdin da gorbataz nahiz sotanaz jantzita egon–, orduan ere, bere txikian, botere jauna zen.

Hemendik aurrera zurea da bidaia. Hitza ere bai.

Egilea

**LEHEN ZATIA: EUSKAL KRITIKA  
LITERARIOAREN HASTAPENAK**



## I. Aurrez esan beharrekoak, hemen eta orain

Ohar orokorrak dira hemen doazkizunak, ondoko atalen norabidea markatzea helburu dutenak.

1. Euskal kritika literarioaren hasierari data zehatza jartzea uste baino lan gaiztoagoa da. Normalean “Aitzolen belaunaldia”ri egotzi ohi zaio. Ez ote da muga estuegia?

Izan ere, belaunaldi horretan sartu ohi direnei hurbil samarretik erreparatzen badiegu, ohartzen gara guztiak ez direla adin berekoak, ezta idazleen kolektiboan maila bereko eragina dutenak ere. Orixen, adibidez, guraso bezala da. Izan ere, 1930eko hamarkadarako, haren pentsamendua eta luma nahikoa helduak zeuden. Lauaxeta, Lizardi, Zaitegi, Aitzol bera eta beste hainbat, hura baino gazteago dira. Bestalde, hertsiki literaturari dagokionez, ordurako jadanik azaldua zeukan bere iritziz kritikoa bai euskal klasikoaren bai euskal metrikaren gainean. *Euzkadi* egunkariko orrialdeak begiratzen badituzu, begiak berak esango dizu herri-poesia zaharra ere ongixko ezagutzen zuela, bereziki Azkueren *Cancionero popular*-en eta Joan Karlos Gerraren *Cantares viejos del euskera*-n datorrena. Han-hemengo artikuluetan, kronologiarekin saltoka, poesi mota desberdinak eskainiz datorkio irakurleari. “Atea

dizut kirrinkari” poesian, adibidez, maitasunari kantatzen zaio. Oro har, amodiozko kantuak, asko izanik ere, ez dira hainbeste. Eta direnak, ez dira hain erakargarriak, hain sutuak eta tragikoak, hasperen epel eta goxoa darienak baizik. “Auntxo gazte” poesia, batez ere, duen hiztegi paregabeagatik, agertzen duen sentimendu sakon eta isurpen xaloagatik miresten du. “Los reos poetas” artikuluan, beren krimenengatik hiltzera kondenatuek egindako poesiak aipatzen ditu, garai batean nahiko zabalduak izan zirenak gure herrian: ohitura zaharra zen, antza, hobenduriak bere krimenen eta gaizki-eginen damua bertotan kantatzea hilarazia izan aurretik. Kondenatua bera ez bazen gauza bertsoak osatzeko, beste bati enkargatzen zion. Zeukaten errimatzeke erraztasunagatik, ia gehienak omen ziren bertsoak osatzeko gai. Honelakoa genuen bertsoen egitura: gertakari kriminalaren azalpena, xedertzat eskarmentuaren moraleja zuena; ingurukoei, familiari eta Jainkoari barkamena eskatzea: azkenik, fede katolikoaren aitortpena egitea, salbamena lortzeko. Mota honetako azken bertso famatuak Azpeitian exekutatuak izan zen Aiako hiltzailearenak izan ziren, antza. “Los amebeos vascos” artikuluan, euskal koplariak eta Arkadia-koak ahaidetasunik badutela baieztatzen du, konparaketa galdera moduan egiten duelarik: “¿Será atrevimiento el poner a Pernando, Pello-Errota, Chirrita, en parangón con Titiro y Melibeo, con Menalcas, Mopso y Palemón? Creo que no, y menos si tuviéramos conocimiento directo de su poesía, no escrita, seguramente, ni pronunciada en hexámetros virgilianos”.

Bada, hala ere, diferentziarik amebeo klasikoen eta euskal bertsolarien artean: “Nuestros árcades improvisaban ante muchos jueces innominados sobre historietas, vidas, materias en fin que se extienden a cuanto dan de sí las cualidades laudables o vituperables, guardando cierto modo en el ataque cuando disputan en público. Si

reparas ahora los amebeos clásicos, quizá la materia de ellos te parezca menos amplia más inofensiva; las estrofas o versos algo más desligados, menor la viveza en la disputa; en una palabra, menos interés dramático. La poesía de los bersolaris es esencialmente irónica; la de los antiguos pastores, no tengo conocimientos históricos suficientes para calificarla, si es que existen testimonios”. Bertsolari ez-ikasien trebetasuna, behartuta paperean jarritako bertsoetan baino gehiago, bat-bateko saioetan agertzen delakoan dago. Bertsoak berotasuna aurrez-aurreko jardunaldian hartzen du: “No saben seguir la idea sin el estímulo del contricante. Pierden la capacidad, la gracia, la viveza. Espero desmostrarlo con ejemplos a la mano”.

“El mote en nuestro pueblo” artikuluan dakarrenez, bestalde, goitizenez josia dago ahozko literatura. Herri batzuetan, bertakoek goitizenez edo abizenez bakarrik ezagutzen dituzte auzokideak. Eta honen arrazoia, Orixeren ustez, hauxe da: “Echemos la culpa de este abuso a la extraordinaria facilidad de nuestra lengua para componer epítetos descriptivos de un solo vocablo: que no son otra cosa que epítetos los motes y aún los apellidos”. Zoritxarrez, euskal literatura, idatzia areago ahozkoa baino, ez da behar adina baliatu herri-hizkuntzak hain oparo eskaintzen dizkion deskribapen laburtu horietaz. Haren ustez, epitetoen altxorra jaso beharra dago, jaso izan dena baino gehiago: “Recoger el inmenso tesoro de epítetos que corren en el pueblo es acumular materiales para escribir un capítulo de poesía y otro de composición gramatical. Los gramáticos, y aún más los literatos, deben tener en cuenta esta tendencia popular y explotarla en sus escritos más que lo han hecho hasta ahora”.

Euskal literatura zaharra ez ezik, egungoa ere ez du albotik pasatzen utziko hari kritikatzeko baten diosala zuzendu gabe. Nonbait hitzaldiren bat baldin bada, nahiz igandea izan, hara joango da. “Poesía y acción” artikuluan,

adibidez, Emeterio Arresek euskal poesiaz 1927ko azaroan Donostian emandakoaren berri dakar. Argitaratzen diren liburuek –bereziki euskarazkoek–, Orixeren kritika-zigilua daramate gehienek. Orokorrean begi onez agurtuko ditu gehienak, baina ez da geratuko bakoitzari buruzko bere aburua azaldu gabe, arrazoitua eta zehaztua, noiz aldekoa, noiz ez hain aldekoa, edo bestelakoa. Joera puristako aita Zabala Arana klaretarraren *Aste gurena*-z jardutean, “El libro de Semana Santa” artikuluan, liburu hori herri xehearentzat ez dela batere irakurterraza esango du: “El libro del Padre Zabala Arana no está dirigido precisamente al pueblo: para comprendérselo totalmente supone un lector bien impuesto en el movimiento arnista; pero aun al sencillo público fiel llegarán acaso de ese libro tantas o más ideas que de otros que corren como populares”. Irizpide garbizalea erabiltzeak bere zailtasunak baditu ere, zabarkeriak ere baditu bereak. Beraz, hizkuntzaren aldetik, hobe, ez garbizaleegia izatea, ezta mordoi-logia ere. Gregorio Mujikaren *Pernando Amezketarra*-ri, aldiz, euskara herriratzeko tresna baliotsua zeritzon 1924ko maiatzaren 8ko “Nuevo libro euskérico. ¡Ya era hora!” artikuluan esanguratsuan. Altuna jaunak Oscar Wilderen sei ipuin itzultzen ditu eta lan honetaz pentsatzen duena esaldi honetan laburbiltzen du “Nuevo libro euskérico. Su significación literaria” artikuluan: “Con haber hecho constar la corrección, fluidez y naturalidad de lenguaje, creemos haber dado el juicio general que nos propusimos”.

Gaztelaniazko batzuk ere pasatzen ditu kritikaren galbahetik. Ez hain goxo Miangolarra jaunaren *Quejidos de mi salterio* (1929) poesi liburua, erromantikoegia iruditzen baitzaio. Dunixiren *Mi pueblo ayer* (1932) aldiz, zaporetsua kausitzen du eta, bidenabar, baliagarria anti-kuario, folklorista eta hizkuntzalarientzat. Badu beste artikulua bat ere, “De una novela” izenekoa (1928), Orixek

egilearen erreguz egiten duena, baina ez dakigu zergatik, ez du ematen ez liburuaren ez egilearen izenik. Zergatik ote? Agian kritikaren haginak oso barrura sartzen dizkiolako? Ezin esan. Hain zorrotz kritikatzan duen “Fabio” hori nor den jakin gabe uzten gaitu. Dena den, ez dira makalak botatzen dizkionak: “Ni en una ni en otra pude pasar de las primeras páginas, no por sistema, sino por temperamento o por disciplina”. Gerorago: “Abro el libro, y en la primera página tropiezo, según me lo temía, con algo que me impulsó a cerrarlo instintivamente”. Orixeri min ematen dion zerbait horretantxe egiten du huts, batez ere: “Termino señalando otro defecto, otro afán excesivo: el afán de aparecer impío, cosa bastante en boga en lo poco actual que he leído. Frases de mal tono, no ya contra los ministros del culto, sino contra la ‘cándida’ Biblia y contra la religión; frases ligeras, despectivas, impías, irreverentes. La religión es cosa muy sagrada para que se la use en vano, como nuevo recurso literario”.

Baieztapen orokorrak egitea beti ere arriskutsua bada ere, esan daitekeela uste dut 1920ko hamarkadako euskal liburugintza –1929. urtea artekoa–, aski xumea dela. Xumea eta, gainera, urria, eskuko hatzez kontatze-ko modukoak baitira epealdi honetan argitaratutakoak. Garbi ala mordoilo, egin behar dena da idatzi, eta asko idatzi, bakoitzak gogoko duenaren arabera. Aholku hau xe ematen du Orixek 1928ko urtarrilaren 6ko artikulua aipatuan: “Lo que importa es que se escriba mucho, aunque no todo haya de ser útil. El tiempo cribará lo vicioso y segregará el buen grano, que no puede faltar donde se trabaje con generoso esfuerzo”.

Zerbait jasoko bada, lehenik erein egin behar. Eusko pizkundearen uzta, 1920ko hamarkadaren azkenaldian heltzen hasia, gerraurreko sei urteetan iristen da bere betetasun osora. Kalitatezko literatur sorkuntzarekin batera bideratzen da kritika ere. Sorkuntza eta kritika kro-

nologikoki bateratsu doazenez gero, une honetako euskal literaturaren ekarpenik lortuenak epetan sailkatuak eman-  
go ditut.

Baina euskal literaturaren norabidea norik markatzen du gerraurrean?

Koldo Mitxelenak, bere *Historia de la Literatura Vasca* liburuan (1960), Orixez haxe idatzi zuen: “la figura más representativa de un período de las letras vascas que dura todavía hoy”. Orixarra itzali eta gero, *Orixé, Omenaldi* bildumari jarri zion Atarikoan (1965), berriz, ez zela beti onetsia izan esango du geure gogoeten abiapuntutzat hartzen dugun aipu mamitsu honetan: “Azterketan asi ezker, esan bear da aurren-aurrenik ez dela beti izan ‘Orixé’, orain besterik badirudi ere, euskal-letren aitagoi onetsia eta ezin-ukituzko eredu. Aitzitik, asieran eta geroago ere bai, bere gisa eta bere kabuz ibilliz zen luzaroan, giroari entzungor egiñik. Bere bidetik abiatu nai zuen eta bere buruaren jabe izan, gizona izan ditekian neurrian, ez inoren esanera egon”.

Errepresentagarriena bai, baina ez beti eredutzat hartua. Hori duzu Orixek Koldo Mitxelenari merezi dion irudia. Ondoko urteetan (1983-1986), batik bat *Jakin*-ek argitaratutako lan monografikoetan aztertu izan da epealdi hori eta, honez gero, esan daiteke errenteriarrak egingako erretratu horrek zertzelada berriak hartu dituela eta orduan baino ezagunagoa egiten zaigula orduko literatur egoera. Hala ere, badut neure zalantzatxoa, lan horiek irakurtzean begiak lausotzen zaizkidanekoa, eta da ikerlan partzial horiei testuinguru historiko zabalago batek bakarrik eman diezaiekeen ikuspegi orokorra falta zaiela. Segun eta nor den ikertua, zentzu batean normala dena, haren ataritik aztertzen da oro: edo Lizardirenetik, edo Aitzolenetik, edo Lauaxetarenetik, edo Orixerenetik, autore hauek baitira aztertuenetakoak. Honelakoetan gertatzen da, eta ez nuke esango hemen horrelako arriskuren

bat ez dagoenik, ikertua den autoreak beti ere argi gehiago egiten duela zeharka eta, sarritan, kontrakarrean aipatua denak baino.

2. Gerraurreko produkziogintza bi sail nagusiotan banatuko dut: batetik, itzulpenak eta, bestetik, berezko idazlanak. Sail hauetako bakoitzak baduela uste dut aski nortasun, bakarka aztertua izan dadin.

Itzulpenak euskal literatura eta euskara jasotzeko tresna txit baliagarriak baldin badira ere, pentsatzen dut, azken finean, haiek baino gehiago berezko obrek ematen diotela hizkuntza bati bere maila. Berezko lan hauek mota askotakoak izan daitezke. Garrantzitsuenak aipatzearen, besteak beste, literarioak eta tekniko-zientifikoak. Ez dagokit orain zein lehenetsi behar den eztabaidatzea, gerraondoko euskal literaturaren prozesuak zer bait esatekorik baduela uste baitut. Baina ezin da esan gabe utzi —elementu hauxe delako, hain zuzen, gerraurreko kultur mugimendua nagusiki ezaugarritzen duena—, garaiko euskal idazleek, Aitzol orkestratzaile dela, kultur indar guztiak finkaturik dauzkatela euskal literaturaren eta, bereziki, poesiaren sustaketan. Horretara zuzenduta zeuden Aitzolek antolatutako Poesi Txapelketak, epos nazional baten ametsa noiz konplituko amorratzen zain. Lauaxetak, lehentxeago ikusi denez, poema horren egilea Errenteriako sari-irabazlearekin identifikatu zuen. Beraz, 1930-1936ko epealdian, euskaltzaletasuna sukartsuenik zegoen unean, Eusko Pizkundea eta literatura —hemen poesia, bereziki—, hertsiki batuta agertzen dira. Euskara tekniko-zientifikoa, hiztegi berezituak, eta horrelako plangintzak, usmatu ere ez ziren egiten. Dezente geroagoko kontuak ditugu hauek. Euskararen gaitasuna frogatu nahia, batez ere eskola jesuitikoan funtsezko gaia dena, gehienbat literaturaren mailan gauzatzen da.

Gerraurre hura ezagutu ez genuenok euskal atari eguzkitsu hartara han-hemendik jaso izan dugun infor-

mazio pittinarekin hurbildu garen bakoitzean, euskaltzaleak oro halako bloke monolitiko batean anaituta bezala ikusi izan ditugu. Niri bederen hala gertatu izan zait. Baina orduko iturriak –bereziki euskal egunkari eta aldizkariak–, arakatu eta datuak jasoz etorri garen neurrian, orduan ere taldeak, eskolak eta joerak bazeudela ohartu naiz. Maila politikoan bezala kulturalen ere. Honekin ez dut baieztatu nahi, kasu guztietan eta beti, bi maila horien artean joera-kidetasunak fideltasun ideologikoaren arabera eratzen direnik. Horretarako azterketa monografikoak egin beharko lirateke.

Aurreko zatian aipatuak ditut, oro har, epealdi honetako euskal plataforma politiko-kulturalak eta testuinguru haren barrutian kokatzen ditut, bada, hemen zehaztuz etorriko naizen epeak eta joerak.

3. Estilo zaharreko herri-poesiatik berrirako jauzia noiz ematen den zehaztu egin behar eta, hurrenez hurren, bi obra eta bi epe-muga hautatu ditut: herri-poesiaren tradizioetik datorren Jautarkolen *Biozkadak* (1929) eta euskal poesiararen forma berriak dakartzan Lauaxetaren *Bide Barrijak* (1931).

Herri-poesia diodanean, poesia ikasiari kontrajarriz ulertzen dena adierazi nahi dut. Zentzu honetan, poesia herritarra dei diezaiokegu bere eredu, sinbologiaren zein hizkuntzaren aldetik, ahozko literatura zaharrean nahiz egungoan aurkitzen duenari eta, bere barne-antolaketa sinpleagatik, irakurle xumeari eskuragarri gertatzen zaionari.

Bi gertakari daude poesia berriaren abiada markatzen dutenak: hasieran, Euskaltzaleak-ek antolatutako Poesi Txapelketak, *Eusko Olerkiak* (1930-1931) bildumetan jasota datozen emaitza kolektiboak, eta, gero, horren ondotik sortutako Lauaxetaren *Bide Barrijak* (1931) eta Lizardiren *Biotz Begietan* (1932) poesi liburuak. Ez da ahaztu behar, lehiaketa horietan lehen bi sarituak



Lauaxeta eta Lizardi izan zirela, euskal poesiara berritasunaren gantzua zekartenak, alegia. Baina kritikarien zelaiaren eztabaidaren hesia hautsi zuena, batik bat, Lauaxetaren *Bide Barrijak* izan zen. Argitalpen honek irekitzen du eztabaidaren lehen unea, 1931ko azarotik 1932ko urrira zabaltzen dena. Bigarren aroa, Lizardik “Urte-giroak ene begian” poemarekin Tolosan 1931ko saria jasoz geroztikoa da, 1932. urtean zehar irauten duena. Praxian, biak nahasian datoz.

Epealdi honetan kritika literarioak hedadura kolektiboa hartzen du, poetika berriaren lehen urratsak agertzean, asko baitira alde eta kontra eztabaidan parte hartzen dutenak. Hemen argitu behar duguna da zer den eztabaidatzen dena eta zein den kritikari bakoitzaren ikusmoldea eztabaida horretan. Eztabaidaren hariari hobeto segitzeko, lehen aipaturiko bi gertakariak epealdi berean gertatzen badira ere, bananduta emango ditut. Beraz, lehenik, Lauaxetaren *Bide Barrijak* poesi liburuari egiten dion kritika ikusiko da, segidan *Eusko Olerkiak* bildumakoa aztertzeraz pasatzeko, han hasten den eztabaida hemen bukatzen baita.

## II. Itzulpenen aldia (1929-1931)

Itzulpenen garai honetako genesisia, lehen esan ditugunak gutxietsi gabe horregatik, Orixerekin hasten da 1929an eta Olabiderekin bukatzen 1931n. Epealdi hau ematen dut, hain zuzen, une honetan autore horiek munta handiko obrak itzultzen dituztelako eta itzulpenek hizkuntzaren susperraldian izan dezaketen garrantziari buruzko lehen gogarteak orduan ematen direlako.

Nondik datorkio itzulpengintzari horrelako iratzaraldia?

Epealdi horrek bere sorburua, Iruñeko Udalak, Sanferminak zirela eta, 1928an antolatutako Literatur Txapelketan du. Euskarazko sailean, egin beharreko lana, Cervantesen *Don Quijote de la Mancha*-tik IX. atala itzultzea zen, honela zioena: “Donde se concluye y da fin a la estu-penda batalla que el gallardo vizcaíno y el valiente manchego tuvieron”. Bost itzulpen izan ziren sarituak –hauen artean Lizardirena ere bai–, baina lehen saria Orixeri eman zioten. Honen itzulpena hurrengo urtean argitaratu zen RIEV aldizkarian, izenburu honekin: “Euskaldun bipilak eta manchatar bizkorak izan zuten burrukaldi lazgarriaren ondarra”.

Sariketen tradizioan berritasuna zekarrena, hain zuzen, itzulpenari sarrera ematea zen. Ezohiko jokabidea,

noski, ordurarteko txapelketa hain ugariak berezko lanak bakarrik jartzen baitzituzten gai bakartzat. Horregatik, gai-aldaketa honek suposatzen zuen jarrera berriagatik, jakitekoa izango litzateke nor izan ziren antolatzaileak eta nolatan bururatu zitzairen ideia hori. Lehen datua hor dago: itzulpenak lehiaketa-gai bihurtu zirela 1920ko hamarkada-bukaeran. Gero etorriko dira, lan sarituekin batera, kronikak, gogoetak, arrazoiak.

Orixek, epaimahaikoen epaia jakin eta aski berehala, ateratzen ditu bere ondorioak “Certamen y un cursillo. Enseñanzas” artikuluan (1928). Lehen ondorioa da itzulpenek aro berri baten hasiera itxaropentsua dakartela euskal literaturaren arlora. Orixek lehendik ere bazituen sariak irabazita. Baina oraingoan besteetan ez bezalako poz-giroa nabari zaiola esango nuke: itzulpenen jorraketarekin zerbait berria hasi dela loratzen euskal literaturan, alegia. Zergatik ote? Itzulpen-lehiaketa honek idazleen artean harrera oso ona izan zuelako. Guztira, hamazazpi lan aurkeztu ziren. Kopuru horren arrazoa, Orixeren ustez, 300 pezetako sari gutziagarria izan bide zitekeen. Gainera, arrakastaren handia ikusita, sari hori, puskatan zatituta eman ordez, txapelketa berriak sortzeko jarri zen eta jokabide hau txalogarri iruditu zitzaion lehen sarituari, sari zatituak jasotzen nazkatuxe baitzegoen. Ez arrazoi-faltaz. Izan ere, aurreko urtean (1928) “Euskal-Literatura-ren atze edo edesti laburra” lanarekin irabazitako saritik zati bat kendu baitzioten: “Estábamos ya desmoralizados de ver concederse premios cercenados por sistema nada más. A tal trabajo se le concede el premio prometido, menos un tanto, debido a que no toca la perfección absoluta, según el Jurado. Y eso que aun para la perfección relativa era ridículo el premio”. Lan asko eta, oraingoan, onak aurkeztu ziren, epaimahaikoen aburuz. Orixe beldur zen, *Quijote*-ren atal hori esaldien erai-kuntza bihurriaren aldetik hain konplikatu izanda, ez

zirela ezta hiru itzulpen taxuzko ere agertuko. Profezia ustel gertatu zen. Hau genuen Orixeren pozbiderako bigarren arrazoia. Itzultzeak suposatzen duen literatur pres-takuntza da Orixek azpimarratzen duena. Honelako lan-mota batek, argitaratuak izanez gero, bide ematen dio itzultzaileari besteek zailtasunak nola gainditzen dituzten ikusteko. Itzulpen-teknikak ikasteko aukera ona eskain-tzen dute, beti baitago besteenetik zer ikasia. Orixek eta Lizardik, adibidez, xede hori zutela gogoan pasa zizkieten elkarri beren itzulpenak. Hala dio Lizardik: “He tenido en mi poder, y rumiado con moroso deleite, la traduc-ción premiada con el número uno. La confianza amable de mi buen amigo Orixe su autor me ha permitido tan sabroso como instructivo pasatiempo”. Bigarren ondo-rioa, zaharra berri, herri-ekintzari ematen dion lehenta-suna da. Goi-kultura garrantzitsua da, baina herri-ekin-tza premiazkoagoa, hura gutxiengo bati dagokion zeregi-na den bitartean, hau herri osora zabaltzen baita. Zentzu honetan, Eusko-Ikaskuntzak bideratzen dituen jarduerak (euskal jaiak, literatur lehiaketak, hitzaldiak, etab.) oina-rrizko zerbait dira, gehiengo bati zuzenduak baitaude. Herri-ekintza horrek aurrera egin dezan, biderik onena bazkideak egin eta diru-bilketa kuotaren bidez egitea izango litzateke.

Lizardik, Orixeren itzulpena irakurri eta gero, mi-respenez gainezka goretzi zuen “Traductores de Cervan-tes” artikuluan (1928). Ereduetan, Orixerena ereduga-rriena, itzulpenari itzulpena denik ere ez baitzaio igarri ere egiten: “Trátase de un trabajo de positivo mérito, más atento a interpretar el genio de la lengua que a copiar en detalle el modelo. Espontáneo, sobrio, fluído, expresivo, quizás a las veces lo supera suprimiendo hartas redundan-cias y alguna oscuridad. Traducción digna de cualquier idioma, puede dar una idea compendiosa del maravillo-oso avance operado en la literatura euskérica de aquende

el Pirineo en solo un cuarto de siglo, sin escuelas, sin universidades, sin precedentes literarios apenas”.

Orixerentzat bezala, Lizardirentzat ere optimismoaren argi-izpia pizten da euskararen inguruan hedatzen den gau ilunean. Zergatik? Bi arrazoi hauengatik, batez ere: batetik, Orixek itzulpen horretan erakutsi duen maisutzarekin, euskal literaturak aurrerapauso harrigarria eman duelako; bestetik, ez bakarrik Cervantesen itzulpenarekin ausartu ziren hamazazpi idazle horiek, ehunen bat ere ba omen direlako euskara modernizatzeko zaina zutenak. Hauek dira Lizardi probidentzialista izatera daramaten kariak. Hurrengo hileko “Traducciones-Diccionarios” artikuluan, berriz, itzulpenak zergatik diren baliagarriak esaten digu: “Es de un lado adiestramiento eficacísimo del escritor; forja donde pausada y sólidamente puédesse ir adaptando la dúctil musa del idioma nuestro a la varia y compleja superficie de la esfera presente de la expresión humana; es, de otro lado, medio llano relativamente de ir enriqueciendo con joyas de precio nuestro pobre acervo literario. Tantas buenas y notables cosas lleva ya dichas el hombre en diversas lenguas que al euskaldun se le ocurriera pensar que podían decirse igualmente en la suya, que realmente, en espera de nuestro Dante o de nuestro Mistral podemos entretenernos con provecho por ese vasto campo, espigando en él y vertiendo lo mejor del pensamiento ajeno, cuando los propios no nos parezcan demasiado originales o interesantes. Nunca querrá esto decir, que todos a todas horas, nos dediquemos a traducir, descuidando la creación ininterrumpida de una literatura propiamente vasca, no sólo por su medio de expresión, sino por su meollo y sujeto, inspirado en nuestro pasado en los múltiples medios fisionómicamente vigorosos todavía de la vida peculiar de nuestro pueblo”.

Hara hor, bada, itzulpenaren beharra justifikatzen duten bi arrazoi zein baino zein mardulagoak: lehenik,

idazlearen luma hezi eta trebatzeko tresna txit baliagarria dela eta, bigarrenik, euskara beste hizkuntzez baliatuz aberasteko modu egokia dela. Noski, garrantziaren handian ere, itzulpenak ez dio bere lekua jan behar berezko sorkuntzari.

Lizardi Orixe baino urrutiago doa bere ondorioetan, itzulpena euskara modernizatu eta aberasteko tresna egokitzat jotzen baitu. Beraz, itzulpenen beharra justifikaturik geratzen da. Justifikaturik, Lizardi eta Orixekin. Honek, urte-bukaeran orduko euskal literaturaz halako ikuspegi kritikiko bat edo agertu nahirik, "Orientaciones literarias" artikulua idazten du 1928ko abenduan. Artikulu biziki interesgarria, zeren, izenburuak berak dioen bezala, kritikariaren egitekoa bere egiten baitu. Kritika honetan *Euzkadi* egunkariak agertutako iritzi batzuk eztabaidatzen ditu. Zein diren horiek?

Hasteko hau: euskal literaturan gramatikismoa nagusitzen dela. Baieztapen honi ohar batzuk egiten dizkio. Esan beharrik ez dago Orixe bera, literaturan baino gramatikan murgilduago zebilela egunkari horretan bertan, berak aitortzera, bere borondatearen kontra. "Temas vascos" saila, adibidez, nagusiek aginduta egin zuen. Dena den, literatura zein gramatika, biak dira beharrezkoak, baina ez maila berean. Literatura egin eta gero, zer iker-tu ugari dagoenean da emankor gramatika. Zentzu honetan, lehenagokoa da literatura gramatika baino: "Literatura y literatura ha sido nuestro lema, no ya para los particulares que quieran dedicarse al cultivo de nuestro idioma, sino aun respecto de la más alta Corporación que, teniendo por fin el estudio reflejo de la lengua, debe subordinarlo momentáneamente al manejo de ella, o a su fomento entre otros, hasta que quede en salvo y se la pueda atender con científica exclusividad. Después que las lenguas estén cansadas de producir es cuando se las debe estudiar anatómicamente". Nahiz literatura lehenetsi,

gramatikariak ere behar ditugu, ez hizkuntz ikerketa sakonak egiteko, idazleei lege orokor batzuk eskaintzeko baizik. Gramatikismoaren ajerik handiena da, Orixeren ustez, gramatikari on gutxi dagoela eta txar gehiegi: "... los que sentamos cátedra de gramáticos somos legión, y legión que no tenemos más que noticia lejana y confusa de la mayoría de las cuestiones. Empezamos por ignorar lo elemental. Ni siquiera estudiamos los pocos textos –sobrados son para nosotros– que dicen que se han escrito en nuestra lengua. Y tanto celo tenemos por ellos, que ni siquiera los editamos". Bere pittinean, euskal literatura gehiago landu da gramatika baino, batez ere azken hagei urteotan: "En cambio, a pesar de cuanto se diga, en literatura hemos hecho más, relativamente mucho más. En esto sí que hemos avanzado de veinte años a esta parte, aunque todavía estemos lejos de la meta anhelada. El instinto literario ha precedido o, al menos, superado, aun en nuestro pueblo, al preceptista". Beraz, egia da gramatikismoa praktikatzen dela euskal literaturan, baina lehen esandako zentzu negatiboan ulertuta. Orixek garbi dauka euskal literaturaren osasuna askozoz hobea dela gramatikarena baino.

Bigarren arrazoia beste hau duzu: euskal literaturan merkatal espiritua usaintzen dela. Salakuntza honi, ordea, hankak falta zaizkio zutik egon dadin, euskal idazleak ez baitauka non argitaraturik eta egiten duen lana hizkuntzari dion amodioaren amodio hutsez egiten baitu: "Conocemos por docenas hombres de valer que por sólo cariño han trabajado en cultivar literariamente su lengua, y no por halagar oídos que les escuchen". Famaren lurrunari uko egin gabe, diruarengatik eginda ere, horrek ez luke ezer txarrik, gizonarena baita ohorearen bila joatea: "La fama, ordenadamente buscada, es de suyo cosa noble, y por ella han agitado la pluma los mayores genios de la humanidad. En cada uno, el amor ordenado a sí

mismo es más imperativo que el amor a su patria y más puesto, en razón”.

Azken arrazoia –eta azkenekoa–, beste hau da: itzulpenak direla eta, euskal literaturan exotismo-giroa txertatu berri dela. Atzerri-eragin hau, etxeratzen dena ona denean, beharrezkoa da euskararen bizitzarako: “Hay que assimilar lo bueno de fuera. No se puede alimentar uno, por decirlo así, del mismo organismo, con perjuicio de él. Consiguientemente, se ha hablado de las traducciones”. Testu honek esan nahi du itzulpenen ideia ez zutela askok begi onez ikusten. Lizardi eta Orixek, bakoitza bere aldetik, itzulpenen apologista bihurtzen dira. Zizeronek grekotik latinera itzultzean erabili zuen eredu aplikatu nahi luke Orixek euskararenean. Testu honetan ikusiko duzu ondoenik zein den itzulpenerako erabiltzen duen irizpidea: “Cicerón opinaba que no debía de traducir precisamente, a no ser como ejercicio, y él nos dice que practicaba la lectura de los autores griegos y después se ejercitaba en trasladarlo a su manera al latín, hablándolo primero, con lo que nos dejó obras maestras. Es la idea recta de la traducción menos ceñida, pero del contenido cultural mejor asimilado. ¡Oh, si hubiera muchos Cicerones en vasco, aun so pena de no ser originales, como no fué él! ¿No se autorizaría la lengua, y mucho, con tales traducciones?”. Beraz, itzulpenak on dira hizkuntz ariketak egiteko; bestalde, itzulpenean testuaren edukia ongi jasotzea da garrantzizkoena, baina jaso hizkuntza hartzaileari dagokion eran eta moldean. Horregatik dute Orixeren itzulpenek euskara-kutsu freskoa. Zehaztasunaren arazoa beste puntu bat da harenean, lanari ezarri dizkiodan mugengatik, hemen ukitzen ez dudana.

Hurrengo urtean, *El lazarrillo de Tormes* liburua itzultzen du *Tormes'ko itsu-mutilla* izenarekin eta, Lizardiri jakinarazten dionez, berak ordainduta argitaratzen da 1929ko uztailean Bilboko Verdes Achirica argitaletxean.



Liburua argitaratu bezain pronto igortzen dio poeta tolosartuari eta honek, 1929ko uztailaren 9an egindako gutunean, zorionik beroenak opatzen dizkio bere gutunean: “Eskua bete eskar, ta zorion: oso da itxurazkoa, eroso ta ongi irarria. Ekin diot irakurtzen, ta aurki egingo dizut erderaz (euskeraz ere bai, nai ba-dezu) artikulo koxkorren bat”. Agindu bezala, artikulu sendo-sendoa idazten du *Euzkadi*-n, hasieratik bukaeraraino osoki probetxagarria dena euskal itzulpenaren historiarako.

Ez zaigu inon esaten –nonbait idatzia badago ere, ez dut bederen irakurri–, zergatik hautatu zuen Orixek gaztelaniazko nobela klasiko hori. Lizardik obraren pikareska-generoa eta egilearen anonimotasuna bakarrik azpimarratzen ditu “Tormes’ko itsu-mutilla” artikuluan: “Trátase de la traducción al euskera de esa vieja novela española, iniciadora de un curioso género, el picaresco, que con amenísimo gracejo nos narra las fortunas y adversidades del travieso Lázaro, obra que parece debe clasificarse entre las de autor anónimo, aunque durante algún tiempo haya sido atribuída a don Diego Hurtado de Mendoza”. Geroago, artikulua iren bukaeran, autore anonimoari buruzkoa areago zehaztu nahiz, hauxe gaineratzen du: “... creo interesante decir que modernamente empieza a atribuírsela en su texto original a Sebastián de Orozco, hipótesis sentada por don Julio Cejador y que juzgan verosímil otros doctos investigadores”. Gaur egun, urteen joan-etorrian hipotesiak ugarituz etorri badira ere, arazoak erabakitzeke segitzen du, berrikitan beste izen batzuk ere agertu baitira, hala nola, Juan de Valdés, Pedro de Rúa eta Hernán Núñezena. Egiazko egilea nor den jakitea zaila bada, ez da errazagoa zein mezu eman nahi izan zuen zehaztea, garai hartako gizarte-klase batzuk –hauen artean klerikoak–, asmo satirikoz salatzea ala soilki, burlazko ipuinez baliatuz, literatura egitea. Den den, dirudienez, liburu horretan datozen anekdota

gehienak lehengo idazki burlazkoetan dokumentatuta daudenak dira.

Bestalde, nahiz eta itzultzailearentzat gastuak handitu, argitalpen honek euskarazko testuaren aldamenean jatorrizkoa dakar, Lizardiren ustez irakurlearen faboretan, bi testuak konparatzeko aukera ematen baitio.

Baina Lizardiri, batez ere, Orixeren itzulpengintza ezaugarritzen duten alderdi estilistikoak interesatzen zaizkio. Itzulpen batek, ona izateko, hiru arau hauek bete behar ditu, arestian aipatutako artikuluan dakarrenez: “Toda versión al euskera de obra castellana, del castellano clásico sobre todo, debe, a nuestro juicio, dirigirse en términos generales por las normas que se observan en la que hoy nos ocupa, y que podríamos titular, más o menos propiamente, concisión, división e impresión”. Euskaraz esanda: zehaztasuna, zatiketa eta inpresioa dituzu arau horiek, Orixeren itzulpenean oso ondo betetzen direnak.

Itzulpenak, lehenik, zehatza izan behar du. Alferriakako apainkeriak bazter utzita, ideiak zuzen eta garbi ematera jo behar da. Honek esan nahi du, oraingo bertzio modernoan, ez hitzak, baizik eta kontzeptuak itzuli behar direla. Hauxe da itzultzaile bati eskatzen zaion nolakotasunik behinena: “No gusta el euskera castizo de prodigar adjetivos ni giros de puro ornato: plácele elegir viejas palabras, plenamente, sabrosas, y servir la idea con las menores complicaciones que sea posible. Esta noble concisión que trasciende a lengua primitiva, es gran cualidad en todo traductor, y de un modo especial en el vasco, siempre que no la obtenga a costa de escamotear trozos o matices de original”. Orixek arau hau ederki betetzen duela adierazteko, adibide hau dakar: “Dice el original: ‘el deseo de alabanza le hace ponerse al peligro’. Tradúcese: ‘izen-gureak daroa arriskura’”. Hara hor ideia zuzen eta soil asko adierazita! Jatorrizko testua zenbat eta laburrago itzuli, orduan eta ohore handiagoa itzultzailea-

rentzat. Horren atzetik ibili zen Orixek, laburtasunean gaztelania eta latina bera hautsi nahirik, batzuen ustez, batzuetan, neurritz kanpo ere bai.

Bigarren araua da esaldi luze eta korapilotsuak zati-tzea, esanahia garbiki adierazia gera dadin. Esaldi luzeek, gainera, itsusi ematen dute euskaraz: “Hay todavía escritores que se empeñan en escribir así en euskera, lo que no presenta ninguna ventaja, pues ni es fácil, ni es claro, ni, por añadidura, está de moda en la literatura actual”. Arau honetan are zorrotzago jokutzen du Orixek, esaldia behar den lekuan moztuz eta, honela, prosa bizi eta ulertteraza lortuz.

Hirugarren araua inpresioa da, Lizardik honela definitzen duena: “que al fin no es sino lo que se dice traducción libre”. Zenbait esaera bereziren kasuan bezala, hitzez hitzeko itzulpena bihurri, artifizial eta iluna gertatzen denean, itzulpen askea erabiliz gairitzen da ondoen oztopoa. Orixek, adibidez, “salieron a buen puerto” esaldia dotore itzultzen du “legorrera onez urten eben” idatzita. Honetan ere badira pentsatzen dutenak Orixek larregi tira ziola askatasunaren sokari.

Liburu honetan, gaztelania klasikoan ohi denez, esaldi luzeak eta esaera bereziak maiz aurkitzen baitira, Orixek sarritan praktikatzen ditu hiru arau horiek, batzuetan esaldi bakar batean hiruak batera. Baditu euskara ezin jatorragoan itzultitako esaera bihurri batzuk. Hona hemen adibide batzuk: “... ninguno formó más astuto ni sagaz” = “... ez ebala alako ume azaririk egin”; “a tercero día hacíamos San Juan” = “irugarren egunerako ango bearrak egiten genduzan”; “¡Nuevas malas te dé Dios!”, dije yo entre mí” = “Beatzak galduko al dozak arrayo orrek, esan neban neure artean”.

Aipatutako hiru kalitate horiez gain, bada Lizardiren Orixerenganako laudorio-isuria areagotzen duen beste ezaugarri bat ere: berak nekezenik menderatzen

duen euskalkian –bizkaieraz, alegia–, itzultzen duela. Berrez gipuzkera-nafarrera eta ikastez lapurtera bereagoak zituen batentzat, esan zitekeen itzulpenari bizkaieraz ekitiak itzulpenari zailtasun bat gehiago eranstea suposatuko zuela. Hala ere, oharkabean egindako akats batzuk aparte, bizkaieraz ere gaitasuna agertzen du: “... aparte ligeras inadvertencias que se encarga él mismo de salvar al final de la obra, parécenos que la dificultad ha sido brillante y ágilmente vencida”. Bizkaierazko saioa egiteko, nik ere ez nioke aitzakia handirik jarriko itzulpenari, bizkaiera ere maisukiro menderatzen baitu. Eta testu klasiko korapilatsu hori itzultzeko, euskara landua eduki behar da, landua edozein euskalkitan. Orixek, hain zuzen, bizkaieraz ari denean ere badu dohain hori.

Bizkaitar batek, demagun Kirikiño batek, itzulpenari bizkaieraren kutsu gehiago emango ziola? Nik bederen ez dut horretan inolako zalantzarik, idazle bakoitzak bere euskalkian agertzen baititu ondoenik euskalki bakoitzari dagozkion esaera bereziak. Itzulpena, ikasitako batek egina denean, gerta daiteke teknikaren aldetik zuzena eta aberatsa izatea, baina euskalki horretako irakurleak hotz eta arrotz samarra atzematea, itzultzaileari euskalki horri dagokion sena falta zaiolako. Orixeren itzulpen honi, bere merituak eta guzti, horrelako zerbait gertatzen zaiolakoan nago. Andima Ibinagabeitia bizkaitarrak *Orixek. Omenaldi* bilduma-liburuan dioenez, nahiz helburu gaitza jarri bere buruari, Orixek ederki konplitu omen zuen bere egitekoa: “Beraz itzulgai zail xamarra aukeratu zuen Orixek bizkaierazko saioa egiteko... Eta nola atera zen, egiteko artatik? Eztu erderazkoaren gatzik batere galdu itzulpen onek”. Hala izanik ere, Andimak berak atzematen ditu Bizkaian erabiltzen ez diren esakerak: “Alaz ere eztaikit zergatik baztatu zuen, Bizkaian arrunta baizen erabilia den esabide-txo bat: ala dio Orixek liburutxo onen 5’gn. orrialdean: ‘erditik ez baño asieratik ekingo deutsot’ eta 115’gn. ‘...

pekatarien eriotza *ez baño*, bizitza ta damua nai ebazan ezkerok'. Guk esakerok beste modu batera esango genituzke Bizkaian: 'erditik *barik* asieratik...', 'pekatarien eriotza *barik*...'. Balendin Aurre-Apraizek, halaber, "giputz edo napar-kutsu geiegitxo" aurkitzen dio.

Lizardik, euskaraz hain trebatua ikusten duen Orixeri, erabat euskal literatura sortzera jartzeko proposamena egiten dio, duen onena bertan husteko ahalbidea izan dezan: "En el caso particular de 'Orixe' creemos que su misión ideal es, preferentemente, esa que inicia: la adaptación de libros de otras lenguas, mejor cuanto más agradables y fáciles; su trasplante a la nuestra, que sirva de iniciación a lectores actualmente en potencia y de adiestramiento a entusiastas cultivadores de aquélla en ejercicio".

Proposamena, kasu honetan, itzulpenak egitera mugatzen da. Nahiz eta zenbaitek itzulpenekin euskarak bere berezkotasuna galtzen duela pentsatu, Lizardi berriro euskarak duen itzulpen-beharraz mintzatzen da, konbentziturik baitago beste hizkuntza aurreratu eta landuagoek duten mentuaz gure arbola zaharra indarberritu eta aberastu besterik ez dela egingo. Itzulpen on batek hiru onura hauek ekar diezazkioke euskarari: "... estimamos innegable la utilidad inmensa de la traducción, en su triple objeto de suministrar lectura, de pulir el instrumento expresivo empleado y de aleccionar a los aprendices aprovechados que aspiran a manejarlo con dominio". Jakina, kontrakoan iritziari ihardetsiz egiteko hori ezin dakiok edonori eman, horretarako gaitua dagoenari baik. Gaitua egoteak esan nahi du, zehazki, hizkuntza hartzailea eta jatorrizkoa sakon ezagutu behar direla: "... sólo debe dedicarse a traducir quien esté en honda, en íntima posesión de ambos idiomas, original e instrumento de este último sobre todo". Orixek beste inork gutxik bezala betetzen ditu baldintza horiek. Horregatik opa dio urterro segi dezala horrelako emaitzak eskainiz.

Azkenik, akatsen sailean, obligaziozkoa egiten da Orixek jatorrizko VII. atala osoki kendu eta horren lekuan beste bat erabat berria asmatzeko hartu zuen erabakiaz zerbait esatea. Zergatik kendu zuen? Azalpen hau dakar lehen oharrean: “Erdel-yaubearen idazti yatorretik, yardun au osoa kendu dot, eta neure buruz ordaindu, edonoren eskuetarako irudi etxatalako. Kendu dodaz gainera, esan zantar bat lelengo yardunean, amazortzi lerro irugarrenean, eta bi koma-tarte laugarrenean. Kritikak begirapena zor ei deutsoe yaubearen idazti yatorrari; nik ostera begirapena zor deusot neure buruari ta irakurle euskaldunari”. Beraz, eredugarri ez dena, kanpora! Gu-retzat, haren literatur irizpideak ezagutzen ditugunon-tzat, ulergarri egiten da jokabide drastiko hori, bere kontzientzia moralak eskatutakoa aplikatu besterik ez baitu egiten. Lizardik gehiegizkoa irizten dio bi testuak, euskarazkoa zein jatorrizkoa, aldatzeko lizentzia horri. Barkagarri zitekeen, jatorrizkoa zergatik ezabatzen den esan eta, horri zegokion orrialdea zuri utzi eta euskarazkoa bakarrik asmatu izan balu: “Y aun ello pasáramoslo dentro de esta nuestra amplia manga de opinantes plebeyos, si manifiestos honradamente –como ya los pone nuestro amigo– motivos y lugar del execrable crimen, la invención no se extendiera a componer, por cuenta propia y aun con arcaicos fingimientos, un capítulo castellano, bien que brevísimo, en sustitución del original y verdadero”. Puntu honi dagokionez, aita Estefania, jesuitetan ikaskide izana, Lizardi baino bigunago agertzen da *Razón y Fé* aldizkarian argitaratzen duen artikuluan: “Debemos advertir con el autor que el texto ha sido expurgado cuidadosamente, porque no se trata de una edición para eruditos, sino para todo el mundo. El último capítulo se sustituye por otro compuesto por el traductor en ambas a nuestro juicio con bastante buena fortuna, aunque no es posible atenuar el fondo de simpleza y cinismo del sus-

tituído, sin que descaracterice un poco la obra”. Nahi bazu oso zuhurki, baina ez da geratzen jesuita kritikaria “con bastante buena fortuna” eta “sin que se descaracterice un poco la obra” judizioen erdian “aunque” konjuntzio adbertsatiboa tartekatu gabe.

Bestalde, akats mekaniko dezente itzurtzen zaizkio, azken orrialdean zuzentzen dituenak. Lana presaka egin duelako, antza. Kasu honetan bai bederen, hala esaten baitio Lizardiri 1929ko urtarrilaren 14ko gutun honetan: “Itsu-mutilarena ‘egunian eguniangoa’ egiten dut eta presaka xamar. Gaiñera, lerro batzuk utsegin, beste batzuk aldatu, ta beste zenbait irart-okor ikusiko zifñuzen. Ala ere ago ona egin ba dizu, ez ‘ei’ dago ain okor”. Horregatik, Lizardik testua berrikusten eta ertzak limaz leuntzen behar den beta har dezala eskatuko dio bere kritika-artikuluari, berak ohi bezala, goxo-goxo: “... después del inicial trabajo de la versión, llevado un poco a vuela pluma, se tome la paciencia de examinar y compulsar por una segunda vez los dos textos, con lo que eliminará de su obra ligeros detalles de omisión o de inexactitud, nacidos, según fácilmente se advierte, de una escasísima afición a la lima, gran instrumento literario, sin embargo, manejado discretamente”. Pazientzia gehiago. Horra!

Aita Jose Maria Estefania kritikari ikasiarentzat, Orixe erabateko garantia da euskal letretan, berme frogatua jadanik eginak dauzkan lanengatik. Eusko pizkundearen goraldian, bera da greziar literato handien estilora diharduen artistarik handienetako bat. Horregatik, euskal gramatika eta hiztegia nahiz euskal literatura klasikoa sakonki ezagutzen dituelako eta, aldi berean, idazle trebea delako, aita jesuitak uste du Orixe dela Eusko pizkundeak behar duen gidaririk seguruenena. Hori esanda—ez da gutxi esatea—, Orixeren itzulpenari erabateko onespina ematen dio, halakoa eman ere, ezen, azkenean, gramatika-kontuak utzi eta, osoki literaturari ekitera

aholkatzen baitu: “ ... consideramos esta traducción de gran mérito literario y útil para cuantos quieran profundizar en el estudio del vascuence. Tanto que creemos un deber nuestro aconsejar al Sr. Ormaechea que aplique todo su tiempo y todo su talento a producir literatura artística vasca y no los quiera malgastar en discusiones gramaticales, con la que a pesar de su gran competencia indiscutible, nunca podrá enriquecer tanto al vascuence como con aquélla, en la que él puede tanto y en la que apenas si se encuentran algunos pocos que puedan tanto como él”. Orixe ondoko urteetan, agian aita Estefaniaren aholkuari men eginez, literaturgintzari lotzen zaio batik bat. Lumaren artista izatea erabakitzen du.

Mistralen mendeurrena ospatzen dela eta, 1930ean, Lauaxetak haren *Mireio* liburua jarri zion mahai gainean, arrenka eskatuz lehenbailehen itzul zezala urte berean argitaratu ahal izateko. Agindua esan bezala bete zuen, beti bezala arinka batean, gaztelaniazko itzulpena lagun zuela eta Barallaten bertsioa gidari.

Kritikariek itzulpena nola juzgatu zuten begiratu aurretik, itzulpenaren asmoa nola sortu zen esan behar dizut. Ez baitago gurasorik gabeko seme-alabarik, ez dago, ezta ere, alde zuzeneko gogo-eman eta girotua izan ez den literatur sorkuntzarik. Horregatik, egin behar den lehen galdera da ea zergatik ematen zaion Orixeri *Mireio* itzultzeko enkargua. Erantzuna, garbi asko gainera, Aitzolek eta Lauaxetak ematen dute itzulpena argitaratu aurretik egindako artikuluetan.

Lehen esana daukagu Aitzolek urteak zeramatzala Europako herri menperatuen kultur mugimenduak aztertzen, bereziki Finlandia, Belgika, Proventza eta Kataluniakoak. Atera zuen ondorioa izan zen, oro har, literatura faktore eraginkorra izan zela hizkuntzaren berpizkunderan. Eredutik hori gogoan, poesiari eman nahiko dio protagonismoa euskal literaturan. Zer Frédéric Mistralen



mendeurrena baino une egokiagorik ideia hori euskaltzaileen kontzientzia kolektiboan sartuz joateko? Hiru bat artikulu egiten ditu 1930eko apirilean. “El cantor de un pueblo” artikuluan aitortzen duenez, *Mireio*-ren irakurketak espirituzko hunkipen batez bustita uzten dio arima. Larraizko ermita ondoan Aralarko mendikatera so dagoela, hantxe ikusten ditu artzainak nola datozen beherantza beren artaldeekin, eta loria bukoliko hartan ohartzen da Mistralek bere *Mireio*-n egiten duen deskribapen etnografikoan elkarren antzik badutela Proventzak eta Euskal Herriak: “Parecen las páginas del mejor poema idílico de los tiempos modernos, descripciones adecuadas y apropiadas de nuestros campos y de las leyendas y creencias populares que imprimen la característica a nuestro pueblo euskaldun”. Areago oraindik, “*Mireio* y las leyendas vascas” artikuluan esaten duen bezala, *Mireio*-ren balio estetiko eta hunkipenezkoaren handiak, geografia, kultura eta ideologiaren aldetik elkarrengandik oso urrun dauden arren, bi herrien interesak ezkonzen ditu. Komuntasun honen arrazoia da biak antzina-ko kultura zahar baten jabe direla: “Provenza es un pueblo arcaico, una raza, si no primitiva, antiqúisima, que ha sabido defenderse, llegando a sobrevivir, sin ser absorbida, por los francos, con los que se halla ya muy mezclada, por desgracia. Este pueblo ha guardado en su seno las leyendas, cuentos, tradiciones y costumbres de los pueblos primitivos europeos. Y ahí es donde, precisamente, convergen el País Vasco y la Provenza, en que los dos son depositarios de una cultura primitiva que, en algún tiempo, dominó en Europa”. Kidetasun honetatik eta Mistralen eredutik bi ondorio ateratzen ditu Aitzolek: lehenik, Oc deituriko hizkuntza probentzala hizkuntza modernoan mailara jasotzen duela, 1904an Nobel literatur saria lortzeraino jaso ere; bigarrenik, eta ideia hau “Mistral y los poetas vascos” artikuluan kaleratzen du, poetak

direla literatur errenazimenduan aitzindari doazenak, Proventzan Mistral bezala Euskal Herrian Sabino Arana poeta.

Elementu soilki folklorikoan oinarritutako literatur eredu hori gogoan duela hasten da norakorik gabe dabilzan euskal poetak bideratu asmotan. Horregatik, lehen lan premiazkoena, poetak bildu eta, euskal folkloretik elementurik aberatsenak hartuz, elkar-lanean egiazko euskal poesia biribiltzea izango da. Xede honen bila urtzen du Aitzolek bere kemena, ondoko aipu honetan adierazita datorrenez: “Nuestros vates o desconocen o desprecian los elementos más valiosos para una poesía genuinamente indígena. Ninguno de ellos ha estudiado al *arrantzale*, ni su vida característica, la preocupación y, fisonomía del *nekazari* y *baserritar*, al *aizkolari*, al *bertsolari* y al *korrikalari*. Las escenas de la vida labriega, tan típica en nuestra patria: la vida pastoril, tan saturada de cuentos amenísimos; las ferias de ganados, con sus festejos y apuestas, no han merecido la atención de nuestros poetas. ¡Arrinconadas nuestras leyendas, veneros de inspiración; olvidadas nuestras tradiciones, retazos interesantes de nuestra vida vasca, desconocimiento absoluto del folklorismo vasco! Como excepción, solamente pudiera citarse al poeta Zaldubi, señor G. Adema, canónigo de Bayona, que compuso su pindárica obra poética *Pilotariak*”. Euskarak *Mireio* bat behar du. Baina Aitzolek ez du aipatzen –gogora ezazu 1930eko apirilean gaudela–, ez liburu horren itzulpen-beharrik ez itzultzailearen izenik.

Lauaxetak, Orixeri itzulpenaren zama leporatu zionak, 1930eko maiatzaren 15ean argitaratu zuen “Federico Mistral” artikulua *Euzkerea* aldizkarian. Honek Proventzako Oc hizkuntzaren historia egiten du eta, bidenabar, Mistralen idazlanak aipatzen. *Mireio*-ren laburpena egi-tean, esaten du, ziur ez dagoen arren, honen atalen bat

Otegik euskaratu zueneko ustea daukala. Baina Mistralen mendeurrena ospatzean Lauaxetari gehien interesatzen zaiona, Aitzoli bezala, zera da: etnikotasunean oinarritutako Euskal Herriari buruzko poema burutzea. Virgilio, Homero eta Mistral baten antzeko jarraitzaileen bat eskatzen dio euskarari: “Virgili eta Omero’k euren olerkijetan jokuak edestu ba’ebesan, Mistral’ek be zagi jauska, burni jaurtikia, pelota jokua, loki-dantza, arraunketak eta abar agertuten dauzkuz. Euzkoen jokuak noz orrelako edeslari bat aurkituko ete dabe”. Lauaxetak badauka esperantza zorioneko poeta hori Erretereriako poesi lehiaketan agertuko dela, Mistralek Katalunian Verdaguerreri esana aplikatzen baitu Euskal Herrirako: “Mistral’ek orain urte askotxu Lora-jai batzubetan Verdaguerreri esan eutson legez, Errenderiko jai onetan nok entzungo ete dau, ¿Tu Marcellus eris?”.

Galdera egiten duen bera –Lauaxeta, alegia–, izango da hori, baina honek ez du itzuliko *Mireio* eta ez egingo poema nazionala.

Orixek, “Mistral sortu zenetiko eun urtegarrenean argitara nai ta arnaska ibili” ondoren, lortu zuen azkenean urte-bukaerarako *Mireio* kaleratzea. Hitzaurre-bukaeran, zain daukan irakurleari itzulpenaren entrega egiteko orduan, poema hori euskaratzeak zer suposatu dion eta nolako irizpideak erabili dituen esaten dio xalo-xalo: “Euskaratzea etzait beste munduko lana izan, baño ba ditu bere oztopoak, batez ere idaztankera berri-antza nas-ten duncan”.

Pasarte horren lehen parte irakurtzen duzunean, harrিতuta geratzen zara. Ez gutxiago orduko kritikariak. Eta laudorioak, zeruan hodeien haserrikeri gabe, gozo eta leun datoz euskal literaturaren udaberriko baratza itxaropen berriz bustitzera, sinestuta Orixerekin sortuko dela Euskal Herriak desiratzen duen uzta heldua. Mezu hau, segidan xehatuz etorriko garenez, garbiki irakurtzen da

orduko kroniketan. Abendu-hondarrean, L laburdurarekin izenpetzen duen batek 1930eko urte-bukaeran *Euzkadi*-n argitaratutako “Mistralen *Mireio* euskeraz” artikuluan dakarrenez, idazle askorentzat ia ezinezkoa izango litzatekeen eginkizuna, Orixerentzat jolas eta denborapasa izan zela esaten zaigu. Paradoxa dirudien honen esplikazioa da, kritikari ezezagun honen aburuz, Orixek euskara nahierara menderatzen duela: “El euskera no tiene secretos para él, y le presta toda la maravilla de sus giros y decires, que reciben en su concha las ideas y las imágenes más atrevidas y sutiles. No es la suya, ni una paráfrasis, ni una traducción literal. Sabe dar el sentido, el ritmo, del original pero con la mentalidad del escritor vasco”.

Suak argizaria urtzen duen bezala, xehatzen dira esaera, irudi eta ideia moldakaitz eta ausartenak Orixeren euskarari. Batere bortxatu gabe, zuzen eta labur, itzulimitzulika ibili gabe. Hain da euskara gardena haren lumatik ateratzen dena, itzulpena denik ere ez diozula antzematen. Luis Jauregi poetarentzat, hain zuzen, horretantxe datza liburu horren meriturik handiena: “Más que una mera traducción, parece una obra completamente vasca. En esto estriba, a mi humilde juicio, el mérito principal de este libro, cuyas páginas exhalan un perfume delicioso de poesía, de idealismo y de pureza. Ha sabido Orixe cuajar en moldes vascos, sin neologismos, sin giros enrevesados de extraño origen, antes con palabras y modismos populares del habla de Nabarra la melíflua y bucólica belleza poética del inmortal Mistral”.

Asmakizun erraldoi baten aurrean harriduraren ahoa zabalik eta begiak handituta geratu ohi garen bezala, antzeko egoeran kausitzen da Pierre Lafitte ere euskaratzea ez zaiola “beste munduko lana izan” irakurtzen duenean. Ez Hegoaldetik bakarrik, Iparraldetik ere gorresmenak datozkio: “Aithor dugu, guhaur ez ginitzaizkola gogotik lotuko sail horri, hitz beharrenak, bereziki Pro-

vence-ko ohidura chaharreri doazkotenak eskas izan bel-  
durrez. Eta Orixen irakurgaia hartzearekin, baginauden  
ea atheka hortarik atherako zen eta nola. Athera? Bai eta  
aise! Ez da nehun murtzi-harririk, ez hats-bahi, ez nekhe-  
rik ere ezagun. Ur-chirripa bezala darian abiatu-  
rik, deusek ere geldiarazten ez duelarik, bidez-bide bere hel-  
burura badoa, argi eta garbi, erasirik gochoenean”.

Kritikarien artean adostasuna erabatekoa da, baiez-  
tatzen dutenean Orixek, itzulpen libreari esker, beste  
inork ez bezalako zukua ateratzen diola euskarari. Aita  
Estefaniaren iritzia ere baieztapen hori sendotzera dato-  
rren ahots bat gehiago da: “Como traductor es un tra-  
ductor de verdadera talla. No traduce literalmente y pala-  
bra por palabra, trabajo para el que basta un buen filólogo,  
sino dándonos la poesía con que resplandece el texto  
original, cosa que requiere ante todo, y como algo indis-  
pensable, al poeta, al literato artista”. Hemen, itzulpen  
librea zergatik lehenesten den arrazoitzen da: hitzez-hi-  
tzezko itzulpena egiteko aski da filologo on bat; itzulpen  
librea egiteko, ordea, sortzailea izan behar da, artista, zai-  
lagoa dena. Orixek, bere hitzaurrean, Mistralen gehiegiz-  
ko apainkeria batzuk soildu egin dituela esaten du, eus-  
karari ondo ez datozkiolako, hain zuzen ere. Baina aita  
Estefania ez du betetzen Orixeren arrazoi honek: “Esta  
última razón no nos convence, porque todos los rasgos  
omitidos no llenan juntos ni siquiera un par de páginas,  
y, por otra parte, ofrecen todos ellos bastante menos difi-  
cultad que los muchos que traduce”. Beraz, ondorioa be-  
rez dator: zailean badezakeenak badezake errazean ere.  
Eta Orixeren kasuan, arrazoi gehiagoz, zeren, kritikari  
jesuitaren aburuz, hazi egiten baita zailtasunen aurrean:  
“Diga lo que diga el traductor, las dificultades parece que  
le estimulan y le agigantan. Cuando uno tropieza en el  
texto mismo con frases que constituyen un obstáculo  
para su versión y las lee después en ésta, no puede menos

de admirar los inesperados recursos de expresión con que el señor Ormaetxea, merced a sus profundos conocimientos de la milenaria lengua y a su certero instinto literario, nos las traslada, sin que se desvanezcan más de lo inevitable ni su fragancia ni su significación”. Itzulpen librean beti ere arriskutsua izaten baita jatorrizko testuari zintzotasuna atxikitzea, kritikari honentzat ez da horrelako beldurrik ematen Orixeren kasuan, espresuki ziurtatzen baitu itzulpenaren alderdi hori: “... es preciso reconocer su rara fidelidad en la sustancia de las cosas, en las ideas y los sentimientos y en cuanto constituye verdadero valor poético del original”. Itzulpena hain da ona, L kritikariaren ustez, Mistralek ez baitu kidekorik aurkitu beste hizkuntzetan: “El poema *Mireio* ha merecido numerosas traducciones. Además de la versión francesa del autor, se cuentan las de Hennion de Rigaul y otros. Dorioux Brotbeck lo tradujo al alemán. Los ingleses cuentan con tres versiones. Una de Grant, otra de Griclton y la de Preston. Briz lo tradujo al catalán, Barrallat lo puso en castellano. No queremos seguir enumerando todas las traducciones que se han hecho. Ellas demuestran el aprecio con que ha sido recibida la obra en el mundo de las letras. Pero francamente, creemos que Mistral no ha encontrado traductor alguno que siente y guste tan honradamente a los clásicos, y por ende su obra, como el señor Orixe”. Jartzen dion oztopo bakarra, zalantzakoa bera, esaldi batzuetan egiten duen soilketa da, aita Estefaniak, arestian esan bezala, barkagarri atzematen duena.

Ezin da gehiago esan itzultzaile bati buruz. Eta jakizu, ez garela ezer asmatzen ari. Gertatzen dena da literatura kritika hau ezkutuan zegoela eta orain gainera harrotzean, Orixeren irudiak dorre baten altuera hartzen duela. Kritikak horrelako gorespen gaitzak egin eta gero, ez da harriztekoa Orixe Mistralekin identifikatzea, *Mireio*-ren euskarazko senidea izan behar zuenaren aita izateko ore-

xarra izendatzea. Iradokizunak aipaturiko artikuluko horietan datoz. Euskaraz *Mireio*-ren antzeko zerbait sor dezakeen bakarra, inor izatekotan, haren itzultzailea izango litzateke, L ezezagunaren ustez: “Nosotros no podemos presentar aún el pueblo, su literatura, su libro. El único tal vez de los escritores actuales capaz de producir una obra de este género, sería el traductor de *Mireio*, Orixe; siente como nadie la vida del pueblo, domina el lenguaje, sabe de leyendas y costumbres populares. Educado en los autores clásicos, ha querido presentar su ofrenda al único autor que mereció el siglo pasado ser distinguido discípulo de Homero y Virgilio”. Pierre Lafittek, halaber, gauza bera pentsatzen du: “... nehorik egitekotz, iduri zaiku Ormaetxea jaunak berak egin lezakegula amesten dugun ‘poema nagusia’”. Luis Jauregik, Euskal Herriak bere hizkuntzarekiko duen aspaldiko zorra lehenbailehen ordaindua izan dadin, poema nazionala lantzeari ekitera bultzatzen du: “Nadie, entre los actuales poetas, mejor preparado que él para dar cima, con seguro éxito, a tamaña empresa. Su formación clásica, moldeada con el trato familiar con los grandes maestros literarios antiguos y modernos, su extraordinaria facilidad para componer, sus frecuentes ratos de verdadera inspiración y su profundo conocimiento del lenguaje, del alma y de las típicas costumbres del pueblo vasco, le colocan en posición privilegiada para obra de tal importancia”.

Poema nagusia egin behar eta, Orixeren izena haitzatzen da. Noiz eta, Errenteriako poesi lehiaketa egin ondoren. Honek zerbait esan nahi du. Niretzat, hauxe: haren literatur irizpideak onartu ala ez, euskararen erabileran aho batez aitortzen zaion nagusitasunagatik ematen diotela horrelako erantzukizuna. Besterik da poema nazionala egin behar zen ala ez, egin zenak garaiko euskaltzaleen kolektiboari erantzun zion ala ez, eta abar. Arazo hauek beude, oraingo, mahaiko kaxan gordeta.

Aipatutako Orixeren itzulpen-lanen segidan, aita Olabide jesuita euskaltzaina da *Itun Berria* argitaratzen duena. Itzulpen hau dugu 1931ko berri aipagarria, kritika batek goraiatzeko, beste batek gutxiesten, eta gehien-go batek isiltasunera kondenatzen duena. Dudarik gabe, gertakari honek epe berri bat markatzen du itzulpenen historian. Baina ez nadin sobera aurrera.

Orixek, funtsean mezu bera barreiatzera datozen bi artikulurekin egiten dio ongiatorri beroa argitalpen honi. Zergatik egiten dion hain harrera abegikorra? Bi arrazoi ikusi bide ditut haren gogamenean aski esplizituki adierazita datozenak.

Lehen arrazoa da, *Itun Berria* euskaraz argitaratzea, gaiaren aldetik begiratuta soilki, herriak txaloka ospatu beharreko gertakari bat dela, zerbait garrantzitsua. Garrantzitsua, batetik, oraintxe ikusten duelako argia lehen aldiz Itun Berri katoliko osoak; bestetik, liburu hau, izanik liburuetan sailduena, euskal herri elizkoiarentzako onuragarri bezain beharrezkoa delako; azkenik, Jainkoaren Hitza irakurtzetik euskarari ere onura datorkiolako. Orixek iritziz ez du aldatzen. Betikoa da harena: euskararen gainetik, Jainkoa.

Bigarren arrazoa da aita Olabideren itzulpenak ezohiko ezaugarriak dituela, idazleengan oso bakanka eman ohi diren horietakoak. Hasteko, esan behar da Vogelsen grekozko bigarren argitalpen kritikotik itzulia dagoela, aldamenean, osagarritzat, aita Hetzenauerren *Vulgata* duela. Iturriak, beraz, fidagarriak dira. Eta euskarari dagokionez, gasteiztarraren lana bere neurri zuzenean goresteko inolako bainarik ez du Orixek eta, oro har, esan dezakegu oso goitik jartzen duela haren izena. “Euskerara bikain itzulia dago”, dio Orixek “Itun Berria” artikuluan. Hargan gehien estimatzen duen bertutea, nik uste, zehaztasuna da, hots, testuaren esanahiarekiko zintzotasuna. Xede hori lortzeko, sortzen zaizkion zailtasunak,



esaerekin zeharka-meharka ihesi ibili gabe, zuzeneko bidea hartuz erabakitzen ditu. Metodo zaila bezain errotikoa. Eta nekosoia, dudarik gabe. Honetan Olabidek hausten ditu bere aurrekoak, Leizarraga, Urruti, Urte, Oteiza, Haraneder, Duvoisin eta: “Besteen lana urruñatu gabe, ta beti begien aurrean idukita beren yoera eman dio aita Olabidek. Onetaz aurrekoak, oztoporen bat billatzen zutenean, itzulinguru egiten zuten geienez, al zuten bezala, beti argalkiro, Yainkoaren itza adieraziz; onek ordea, oztopoari bekoz beko begiratzen dio, ez dio egika edo aldear egiten, eta bidea zuzen urratzen du oztopoari bizkor aldegiñez”. Hau du meriturik handiena Olabidek, jatorrizkotik hain urrun dagoen euskarak gehien zor diona. Orixek ez du gutxi-gutxi esaten Olabideren alde: “De las traducciones que conocemos aun a otra lengua, ninguna tan fiel, tan ceñida, tan exacta, de tanta fuerza, como ésta... Nuestro juicio de hoy por impresión no es, pues, pasajero, sino definitivo, si bien sujeto a errores e inexactitudes, como nuestro”. San Pauloren Gutunak, darabiltzan goi-burutapenengatik hain itzulgaitzak izanda, Olabidek maisuki euskaratzen ditu. Maisuki eta, Orixek huts egiteko beldur handirik gabe dioenez, pazientzia handiz: “Sin vacilar afirmamos que alguna de las cartas de San Pablo habrá costado al P. Olabide más esfuerzo que los veintidós capítulos del último de los libros de la sagrada Biblia”. Hori esateko, zerbait jakingo zuen zailtasunetan ohitua zegoenak.

Lehen, 1928ko urte-bukaeran, “Orientaciones literarias” artikulua idatzi zuen bezala, orain, 1931ko urte-bukaeran gaudela, “Nuestra crítica literaria” idazten du, aita Olabideren *Itun Berria* defendatu beharrez. Orduan bezala, ez gramatikaren kontra, baizik eta gramatikismoaren kontra erreakzionatzen du, “desdichadamente, entre nosotros el instinto gramatical, al menos de Gramática barata, se ha anticipado al instinto estético” esanez hasten

baita. Oraingoan gramatikismo honek izen propioa du. Aita Iraizoz kaputxinoak *Zeruko Argia* aldizkarian *Itun Berria* itzulpenari egiten dion kritika negatiboan oinarritzen da delako gramatikismo hori salatzeke. Orixeren laburpenean datorrenez, kritikariak bi akats nagusiok egozten dizkio jesuitari: “... el usar de vulgarismos ‘que en los libros santos no deben figurar’, y el alterar la sintaxis vasca. Termina su juicio diciendo que también habría que hablar acerca de la conjugación que usa: pero no lo hace en atención a la brevedad. ‘Lo dicho –añade– basta para dar a entender que no nos ha satisfecho’”.

Kritika horri mingarri deritzo bai egilearentzat eta bai jendearentzat, eta mingarri, esaten duena gezurrezkoa baino gehiago bidezkoa ez delako. Ez da bidezkoa, hain zuzen, ez baitu liburuak dauzkan hainbeste gauza onetatik bat bakarrik ere aipatzen. Zeharka, bada, Orixekek egindako kritika adeitsua hankaz gora botatzera zetorren. Bestalde, *Euzkadi* egunkariko idazkaritzara bost gutun heldu baitzitzaizkion aita Iraizozen kritikarekin ados zegoenentz galdetuz, nolabait behartua sentitu zen zerbait esatera. Gainera, gogoratuko duzunez, aita Olabide lankide eta adiskide izan zuen Euskaltzaindiko bulegoan eta egiazko begirunea zion. Horregatik guztiagatik, nahikoa minduta, ustez zuzengabeki kritikaturia denaren defentsa irmoa egiten du: “El que estas líneas escribe conocía desde hace ocho años el manuscrito de gran parte de ese libro ‘que confrontado con otras traducciones de lo mismo, revelaba un gran adelanto respecto de Joanes de Leizarraga, Haraneder y otros autores, de los que también él se ha servido... Sin vacilaciones hemos de afirmar que no existe en euskera obra de tan titánico esfuerzo. Bien merecería el autor una alabanza por lo mucho que ha trabajado y por los muchos aciertos que su obra tiene, aunque se quieran cegar los ojos para pasarlos por alto. Recomendando al aludido crítico que lea, relea y estudie el epistolario de San Pablo, por ejemplo, que a mí me causa

asombro y él de buena fe no puede despreciarlo bajo la fórmula general de que el aspecto del libro es bonito, pero su contenido no le satisface”.

Sintaxian akatsen batzuk badituela? Badira, bai, euskal belarriari arrotz egiten zaizkion esaldiak, aditz erlatiboak atzera ez botatzetik eratortzen direnak, eta aita Olabidek, jakin, bazekien hori, aldamenean zituen aholkulariek esanda. Hala ere, nahiago izan zuen argitasuna hobetsi eta ez belarria. Honek ez du esan nahi oro gaitzes-tekoa duenik, syntaxian eta beste hainbat gauzatan hobestekoa askozoz gehiago baitu.

“Kirten” bezalako arrunckeriak erabiltzen dituela? Euskarazko hitzak, arruntenak asmatuta ere, ez dira hebraierazkoak baino arruntagoak. Hitz eta esaldi arruntik asko eta asko da, adibidez, Testamentu Zaharrean. Beraz, arrunckeriak direla eta, ez da zertan izutu.

Baina Orixek, bidenabar, bazeukan aita Iraizozekin maila pertsonalean kitatu beharreko beste zor bat ere, kritika honetan azkenerako uzten duena. Zein zor? Aita Olabideren itzulpena bezala, bere bi aurrekoak ere, *Tormeško itsu-mutilla* eta *Mireio*, gramatikismoaren lupaz neurtzeko zaletasun gehiegi agertzen duela bere kritike-tan. Gauza onen baino akatsen bila zaletuago. Kritika onak hori baino gehiago eskatzen du.

Itzulpenen epealdi honek, Orixe eta Olabideren lanekin, gauza garrantzitsu bezain erabakigarria erakutsi digu: itzulpenek gerraurreko euskal literatur gorenaren zatirik funtsezkoenetako bat osatzen dutela, alegia. Nolabait esanda, dezente sinplifikatuz, *Mireio* izango litza-teke *Euskaldunak* poemaren historiaurrea. Zentzu honetan, itzulpenak beharrezkoak dira euskara aberasteko, beste hizkuntzen gaitasunak ezagutzeko, lumak trebatzeko, eta abar. Hori da tesia. Ikusiak gara lehen zatian gerraondoko euskal literaturan zein leku ematen zitzaion itzulpenari.

### III. Jautarkolen *Biozkadak* (1929)

Nik ez dakit Luis Jauregiren *Biozkadak* poesi liburuxoak herri-poesiaren ezaugarriak oro betetzen dituenetz, baina bai iruditzen zait haren idaztankera hori dela gehien hurbiltzen dena joera horretara. Lauaxetaren *Bide Barridak* liburuarekin poesiaren nolakoaz era pertsonalean plazaratzen den eztabaida nahaspilatuan, oinarrioinarrian, poesia errazaren ala poesia zailaren arteko oposizioa nagusitzen dela uste dut eta, honekin batera –baina, nire ustez, maila apalago eta selektiboago batean–, baita modernismoaren eta klasizismoaren artekoa ere. Honetan, ñabardura batzuk gorabehera, ados nator Jon Kortazarren esaldi honekin: “... el eje fundamental sobre el que se va a mover el debate va a ser poesía fácil/poesía difícil. Sin embargo, los matices pronto se confunden y los textos empiezan enseguida a discutir sobre oposiciones distintas: poesía joven/poesía vieja; lírica/épica (o, mejor, poesía narrativa); renovación/conservación; modernismo/clasicismo”. Baina arazo hau Lauaxetak bere liburua argitaratu baino lehenago ere planteatua zegoen. Oposizio horren iturria, aranismo garbizaleak mende hasieran bertsolarien eta olerkarien artean ezarritako muga kausitzen da. aita Antonio Zabala jesuitaren ustez,

ideologia politiko baten izenean erdeinatzen da bertso-  
aritza, bereziki Bizkaialdean: “Surge luego otro movi-  
miento en Bilbao. Sus hombres traen una ideología polí-  
tica de la que no me corresponde tratar, pero cuya esen-  
cia es –según mi pobre juicio y creo que coincidirán en  
ello amigos y enemigos– un radical disconformismo res-  
pecto a una situación de hecho y a favor de otra que esti-  
maban de derecho. Pero este mismo radical disconfor-  
mismo lo aplicaron también al idioma, poniéndose en  
contra de la situación de hecho de éste y a favor de otra  
que juzgaban de derecho... Lógicamente, este cambio  
tenía que repercutir en el bersolarismo. Los bersolaris no  
cantan en el vascuence de derecho que los puritanos pro-  
pugnaban, sino en el hecho que rechazaban. En conse-  
cuencia, el bersolarismo no sólo comienza a carecer del  
aplauzo del sector culto, sino que comienza a ser menos-  
preciado. Ya apenas se llama a los bersolaris a las fiestas  
euskaras, ya no se les abren los teatros –a no ser en San  
Sebastián en las fiestas de Santo Tomás–, ya no hay quien  
haga reseñas de sus sesiones, como lo hicieron Manterola  
y Otaegui con aquella impresión de admiración y asom-  
bro. Es más, algunas reediciones de canciones o poesías  
populares llegan a retocar los textos primitivos”. Bertso-  
larienganako mesprezu honek eraginda ekingo dio Ma-  
nuel Lekuonak ahozko literatura maila teorikoan berres-  
kuratzeari. Ahozko literaturaren berreskurapen-tradizio  
honetan sartzen dut nik, Lauaxetaren *Arrats Beran* baino  
dezente lehenago eta errebindikazio-titulu gehiagorekin  
sartu ere, Luis Jauregiren *Biozkadak* liburutxo. Eta pun-  
tu honetan urruntzen naiz Jon Kortazarren ikuspuntu-  
tik, agian garaiko testuinguru historikoa Lauaxetaren ira-  
kurketara sobera hertsitzen duelako, Alzoko jaun erreto-  
reari ez baitio, nire ustez, dagokion lekurik ezagutzen.  
Hutsune hau, gainera, harena bakarrik ez, are orokorra-  
goa delakoan nago. Diziplinartekotasunaren beharra,

inon nabari bada, kultur gertakarien alorrean nabari da. Unibertsitatean euskal linguistika indartuz etorri den neurrian, kritika literarioa ikuspegi ia soilki formalaren aldetik egiteko joera nagusitu izan da eta honek, testuari sorrera ematen dioneko ingurune soziohistorikoa ahazten duen aldetik, asko mugatzen du testuaren beraren ulerpena. Baztertuegia dagoen literatur soziologiari gehiago begiratu beharko litzaiokeela iruditzen zait. Nik ezin dut irakurri Aitzol, Jautarkol gabe, Orixo Lizardi gabe ezin gogo-eman dudana bezala.

Luis Jauregiren emaitza 1929an loratzen da, aurretik, 1923-1927ko epealdian, Euskal-Esnalea elkarteak antolatutako poesi lehiaketan sari-mordoa –bostereinopilatu eta *Zeruko Argia*-ra urtero-urtero olerki-saila bidali ondoren. Luis Jauregik, bada, irabazia zeukan bere omena liburu argitaratu orduko. Gero, 1935ean Lora-mendiren omenez Bedoñan egindako beste poesi lehiaketa batean, “Maite opari” rekin sari handia jaso zuenean, orduan geratu zen erabat sagaratu haren izena Aitzolen belaunaldiko euskal poeten artean. Lauaxeta eta Lizardiren liburuak, irabazi zituzten sarien berrespen eta segida gisa direla esango genuke; Jauregirena, aldiz, bereziki 1920ko hamarkadan egindako poemen bilduma da, aurretik eta ondoren sariz koroatua. Gazteagoek horregatik daukate beren maisutzat. Halakotzat zeukan Tomas Agirrek (Barrensorok) 1933an: “Arrese olerkariaren ondoren, Jauregi izan da oraingo olerkari gazte guzien bide-erakusle. Jarrai beza, bada, bidez irakasle aulkian”.

Geroko eztabaidaren bihotz izango den joera baten, hots, poesia liriko errazaren ordezkari dugu Luis Jauregi. Diodanaz jabetzeko, aski da liburuari hitzaurrea nork egiten dion eta zer dion aztertzea. Aita Damaso Intza kaputxinoak, hitzaurre horretan, bertsozaleen artean barreiatu dagoen kexa jasotzen du: “bertso asko, baño olerki gutxi”. Esan nahi baita, neurtitzen legeak betetzen

diren arren, olerkiak irudimen gutxikoak eta motelak direla. Poeta ikasiak bertsolarien eskolatik urrundu direlako gertatzen da hori: “Euska-olerkari onak bertsolari erritarrari baño naiago dio olerkari arrotzari entzun”. Eta hortik, aita Intzaren ustez, olerkariari kaltea besterik ez datorkio: “Gure gizon ikasiak, beren ikastaroekin badirudi galtzen dutela berezko bertsolarien itz-jarioa ta etorria ta baita aien irudimenaren ezatasuna ta biguintasuna ere”. Euskal poesiak bide jatorrari ekin diezaion, proposamen bikoitza egiten du: euskal poetak, lehenik, herri-bertsuak irakurri behar ditu, euskal estetikaren jabe izan dadin; bigarrenik, herritarrekin hitz egin behar du, euskararen joskera ondo mendera dezan. Bi baldintzok bete behar ditu poeta ona izateko. Laburki esanda, poesia ahozko literaturan oinarritzea eskatzen du, poeta kanpo-iturrietatik baino gehiago herri-literaturatik aberastuko delakoan baitago. Euskal poesiak, bada, literatur eredu-tara etorri, Ipar Euskal Herriko Grazian Adema eta Elizanbururen eta Hego Euskal Herriko Arrese Beitia eta Eusebio Azkueren eskola landu eta hobetu beharko luke. Hori da, hain zuzen, Luis Jauregik hautatzen duen bidea eta baldintza horiek bikain ontzen dituen: “Gaur zuen eskuetan jartzen dizutedan liburuan auxe ikusten dut. Euskal esaera, garbi baño garbiagoa; bere irudipenak argi ta erraz emanak; irudipen bat hartzen du ta zearo ta osotara azaltzen du, eragozpen guzien gañetik triskatuz”. Luis Jauregi poeta da, aita Intzaren ustez, euskal usaina duen herri-poesiaren eredu nagusia.

Lauaxetak *Euzkadi*-n, 1929ko azaroan, bi artikulua idatziz agurtzen du liburuaren argitalpena. Artikulu haue-tan, gogoeta kritikoa baino gehiago, gogoeta poetikoa eskaintzen du. Hala ere, Jautarkolen poesia ezaugarritzen duten elementu batzuk atera daitezke. Sentimentalismoa, erromantizismoa da lehen elementua. Jauregiren poesia-ri darion tristeziak euskal paisaiaren kolore melankolikoa

islatzen du eta Lauaxetari, barne-sentimendua eta inguruko paisaia anaitze horretan, Frantzisko Ituribarria dator kio gogora. Melankolia honetan oreka ondo gordetzen du, subjektibismo egolatan erori gabe, oinazea gehiegi goratu gabe. Bigarren elementua, poesian oinarriko garrantzia eman ohi zaiona, musikalitatea da. Luis Jauregiren poesia melankoliko hori funtsean musikala da, Lamartine baten erritmoa gogorarazten diona. Baina Orixek bezala, Lauaxetak ere ez baitu maite zortzikoa, ez bada kantatzeko, haren poesia batzuk mailukada-hotsak zaizkio belarran. Poetaren ideia erritmikoak bertso melodiatsua eskatzen du eta hori lortzea zaila gertatzen da errezitatzeko bertsoetan. Horixe da Jauregik ere lorkizun duena: “Y no le sería difícil tentar ese camino a un poeta como Jautarkol, que se manifiesta maestro del lenguaje y de la técnica poética”. Hirugarren elementua, euskal sena da, aita Intzak hitzaurrean euskal poesiari opa dion dohain nagusi hura: euskal joskera jatorra, alegia. Jautarkolek, barroko-kutsurik gabe, ideiak zuzen, zehatz eta argi azaltzen ditu: “Sin duda, proviene esta cualidad del genio mismo del euzkera. Los idiomas cultos han gastado las formas en flor; los decires populares y la virginidad de la palabra no se pueden recobrar una vez perdidos. El arreo de toda la poesía de Jaúregi es tan esmaltado de giros populares, que nadie confundiría su procedencia. Sabe de sentencias, retoques y galanuras que en labios del pueblo suelen florecer”. Baina euskal poesiak euskal senari dagokiona izan behar duela esatean, ez da mugatua gertatzen hari berezkoa zaiona. Batzuentzat eredu lirikoa Elizanburu, Zalduby, Oxobi eta Lapurdiko beste poeta batzuen estilo biguna izango da; beste batzuek, berriz, herri-poesia gogokoago izango dute. Artistaren adierazpen-bideak herri batenak baino harago doazenak dira. Poetak, bere nortasunaren egarria asetzeko, etxeko eta kanpoko iturritik edan behar du. Lauaxetak,



Jautarkolen kanpo-eraginez ari dela, “Zergaitik?” poesia-  
ren atzean Dacarreteren “Dime” ikusten du, “Maitasun-  
indarra” poesia Campoamor, “Bizitza ta Eriotza” poe-  
sia Baudelaire eta Heredia, etab. Hemen, nik uste, aita  
Intzaren bidetik urrundu egiten da. Laugarren elemen-  
tua, gure herriaren idiosinkrasiari dagokiona, erlijioa da.  
Eta hemen Lauaxetak bat egiten du Orixerekin, bientzat  
faktore erlijiosoak Euskal Herriari oinarrizko zaion zerbait  
baita. Alde honetatik begiratuta, Jautarkolen poesia erli-  
jiosoak Euskal Herriaren bizitza islatu besterik ez du egi-  
ten: “Desde las escenas familiares hasta las reuniones  
públicas, la religión preside y rige sus actos. Todo el cau-  
dal literario es religioso en nuestra bendita tierra. Ni qué  
decir que el señor Jáuregui no se aparta un ápice de esa  
meta”. Ideia erlijiosoak da, beraz, printzipio inspiratzailea  
dena eta poesiari transzendentzi kutsua eransten diona.

Lauaxetak artikulua horiek egin eta handik hilabete  
eta erdira ateratzen da Orixek kritika-sailera, 1930eko  
urte-hasieran, hau ere beste bi artikulurekin. Orixek poe-  
sia guztien irakurketa oso zehatza egiten du, ahapaldiz  
ahapaldi, puntuz puntu. Esan dezadan, oro har, oso in-  
presio ona ateratzen duela Orixek Luis Jauregiren poesia  
hauetatik eta oso goian jartzen duela: “Jáuregui tiene la  
suficiente vena y un adecuado cultivo poético, con auxi-  
lio de los cuales ha llegado a ser el mejor que hasta ahora  
conozco de los poetas vascos. Entiéndase que a ninguno  
he leído con tal detenimiento, y ¡ojalá tuviera que recti-  
ficar, para el bien de las letras vascas! Le falta, a mi ver,  
para llegar al ideal, el ápice del nervio vasco de que es  
ejemplar Zaldubi”. Erdipurdiko lau poesia salbu, beste  
guztiak maila ona ematen dutenak dira, eta horietatik  
zortzi punta-puntakoak dituzu, edozein hizkuntzatarako  
antologietan sartzeko modukoak. Lauaxetak egozten  
zion lamentazio-kantu tristea bi poesiatan bakarrik kau-  
sitzen du. Baina Orixeren kritika, oso lagun antzean

egina, beste nonbaitetik doa: Jauregi batzuetan imitatzailea edo egokitzailea dela, alegia. Geroko eztabaida ondo-ko testu honek irekitzen du: “El lector advertirá que acudimos a la comparación con otros poetas, y, por consiguiente, Jáuregui es a veces imitador o adaptador. No es deshonra, sobre todo cuando la imitación es mejorada, como aquí sucede”. Segidan adibideak datoz, non noren ukitua hartzen dion esanez: “Aizkorriren oñetan” poesian, Jorge Manriquereña; “Mater dolorosa” poesian, Luis Granadakoareña; “Jesusen Biotzari” poesian, Verdaguerrereña; “Alai ta pakean” poesian, Elizanburureña, etab. Jauregiereña poesia, lehen esan bezala, goi-mailakoa da, baina bukatua izateko, “Lotsagabea” poesian bezala, plangintza falta zaio, klasikoengan ohikoa den egitura arkitektonikoa. Poema, pentsamenduak elkarri ondo lotuta aurkitzen direneko lore-sorta bat bezala da.

Metrikari dagokionez, Orixe Lauaxeta baino baiko-rrago agertzen da Jauregiereña epaitzerakoan. Areago oraindik: aurrerapausorik ere ikusten du honengan: “El libro es, pues, instructivo aun en cuanto a la métrica del verso”. Zergatik den horrela? Batetik, zortzi poesia horietatik bat bakarria duelako berari logura dakarkion zortziko neurrian egina. “Bizitza menditarra” duzu hori. Honi, nahiz eta gauza negatiboa izan, metrika-lorpen bat deritzo. Bestetik, neurrietan ugaritasunik baduelako. Baditu, adibidez, gaztelaniatzko segidilen antzera idatzitakoak, errezitatze arinak eta graziosoak, asklepiadeo handietan osatutakoak eta hainbat konbinazio-motatakoak. Noski, gauza onen ondoan akatsak ere baditu, batez ere hizkuntz akatsak; baina, horietan geratu gabe, gaineratik pasatzen da Orixe.

Ez ziren Lauaxeta eta Orixe bakarrik izan Luis Jauregiereña poesi liburu ezta milizkatu zutenak. Aitzoli, euskal lurretik urrun aurkitzen zela heldu zitzaion liburu hori eta handik bidali zuen “Nuestros poetas” artikulua

*El Pueblo Vasco*-ra. Aitzolek, lirismo espainolean beheraldia nabari dela esan ondoren, kontrastean bezala, Luis Jauregiren lirismoa, espiritualismo finez eta dotoreziaz jantzia, goratzen du. Jauregirengan begizatzen du Aitzolek, Karmelo Etxegarairen esanetan oinarrituz, etorkizuneko euskal literaturaren esperantzarik handienetako bat. Harritzen duena da, *Biozkadak* inspirazioan hegaz hain gora egiten duen poema izanik, nola ez dion kasu gehiago egin euskal prentsak. Orixeren artikulua aipatzen ditu, honen izena ez gutxi goratuz, gainera, baina ez Lauaxetarenak. Aitzol ados dator Orixek Luis Jauregiri egiten dion kritikarekin, imitatzaileren kalifikatiboa egoztean izan ezik. Horrela deitzeko ez du aski arrazoi atzematen: "... no creemos exacto que merezca Jauregui el dictado universal de adaptador o imitador. Si en la poesía 'Alai ta Pakean' puede imaginarse alguna imitación de Elizanburu, quien solamente estuvo inspirado en la primera estrofa, mientras Jauregui lo está en toda la composición, con más aristocrática espiritualidad y delicadeza más refinada, —no encuentro la imitación de la célebre elegía de Jorge Manrique en la magnífica poesía 'Aizkorriren oñetan', llena de vida, colorido y expresión—. El haberse inspirado, quizá, un tanto en modelos clásicos, no creo sea título suficiente para ser tenido por imitador". Bestalde, Orixek Luis Jauregiri proposatzen zion ereduari buruz, Aitzolek onartzen du Zalduby maisu izatea hizkuntzaren erabileran, baina ez poesia lirikoaren sorkuntzan, Jauregi askozoz ere jantziagoa dagoela iruditzen baitzaio bai inspirazioz eta bai irudimenez.

Aitzolen kritika horri "La imitación en Jauregui. Respondiendo" artikuluaekin erantzuten dio Orixek, esanez ez duela ondo ulertu imitazioari eman nahi izan zion esanahia. Imitatzeko moduak eta moduak daude, ondoko testu honetan ohartarazten duen bezala: "Imitar o adaptar un poeta en el conjunto de su obra a tal o cual

poeta, o a tal familia de poetas, no significa que esa imitación se eche de ver en cada poema, ni en cada estrofa, ni en algún verso aislado, sino en el tono y espíritu de sus producciones, que recuerden nada más el autor o autores en que el poeta se ha educado, o de quienes ha sido influido. Hay otra imitación más servil, que aun los buenos poetas han usado”. Azken kasu hau izango litzateke, adibidez, Virgiliorena, honek asko baitu Homerori nahiz Teokritori hartua. Hala ere, ezin zaio ukatu nortasunik haren poetikari. Noski, Luis Jauregirengan ez da ematen gisa honetako imitaziorik. Agian, ahapaldiren batek Verdaguer gogora ekar diezaguke, urrutiko oroitzapen atsegin baten antzera. Baina ez gehiago.

Poeta onek duten ederra beretzen ahalegintzea, azkarrena da. Areago oraindik literatura bat, euskal literatura bezala, hasiberria denean. Ondo datoz, aberasgarri gisa, bai kalkoa, bai plagioa eta bai itzulpena, nahiz eta elementu hauek ez osatu kultura baten helburu ideala. Literatura erromatarrak greziarra imitatu besterik ez zuen egin. Euskal poetak, zoritxarrez, oso gutxi baliatu izan dira iturri horretaz. Arrese Beitiaren poesiak, adibidez, asko irabaziko zuen baldin baliabide hori erabili izan balu. Zentzu honetan, esan behar da Jauregik bere alde duela imitatzaile izatea, honek, zentzu erlatiboan hitz eginda, ez baitio berezkotasunik kentzen. Nolanahi ere, Jauregi imitatzaile huts baino zerbait gehiago ere bada: “La obra de Jáuregui es más que imitación servil y aun más que una digna imitación”. Imitatzaile hutsa baino zerbait gehiago baldin bada, zer da orduan? Sortzailea edota, Aitzolekin esateko, poeta “inspiratua” ere bai? Ez du horrelakorik baieztatzen.

Kritikariek bere iritziak azaltzen dituzten bitartean, Luis Jauregi –protagonistarik interesatuena–, isilik gertzen da bere txokoan. Euskaltzaleak-ek argitaratutako *Eusko Olerkiak* izeneko bi bildumak kritikatzean, Tapi-

Perurenaren poesiaz ari dela, orduan ezeztatzen du inplizituki Orixek berari egotzitako imitazio-ustea: “Cuando el que estas líneas escribe publicó su librito de poesías *Biozkadak*, no faltó algún crítico que en algunas de ellas viera reminiscencias y hasta imitaciones de varias composiciones francesas de cuya existencia, dicho sea en honor a la verdad, el autor del libro no tenía ni la más remota idea”.

Dena den, imitatzaile izan ala ez, Luis Jauregi liburu honekin eskola berri baten ordezkari nagusi bihurtuko da gerraurrean. Eskola hau, gerora esplizituago Aitzolek errebindikatuko duen bezala, poesia erraz eta herritarren eskola da, jende askorengana heltzeko beste landuago batzuk baino egokiagozat jotzen duena.

#### IV. Lauaxetaren *Bide Barrijak* (1931)

Lauaxetaren liburu hau 1931ko abenduan argitaratzen baita, nola da posible Orixek bere lehen bi artikulak aurreko hilean egitea? Ez da honetan inongo misteriorik, berak askatzen baitigu korapiloa. Amak labetik opil goxoa noiz aterako zain dagoen haurraren antzo, Orixe Lauaxetaren liburua kalean noiz ikusiko erretzen zegoen. Ezinegonaren ezinegonez luzetsita, inprimategira joan eta bertan eskuratu zituen poesiak oro. Kritikak, beraz, aurrea hartu zion argitalpenari berari. Bitxia da horrelako gutizia agertzea liburu baten aurrean!

Liburuak lehen begiraldian egiten dion inpresioa da, izenburuak berak dakarrenez, bide urratzaile izan nahi duela, euskal poesia modernizatzeko aireak dakartzala: “Estamos en época de exploraciones, de tentativas y aun de francos éxitos. El nuevo libro de Urkiaga ‘Lauaxeta’, es lo que su título dice: un romper nuevos mares para conquistar la isla encantada de la Poesía”. Orixeri ez zaio ezkututzen Lauaxetak norabidez aldatu nahi duela euskal literatura. Liburuan barneratu ahala, bi poesi joera nabarmentzen ditu: modernoa eta klasikoa.

Joera modernoa Frantziako eskolatik hartua du, bereziki ondoko poesia hauetan islatzen dena: “La ten-

dencia francamente francesa moderna que le ha subyugado casi hasta estos días, y el anhelo de emancipación formulado en la poesía 'Itsasora' y reflejado en otras como 'Miren'i otoa', 'Siaskatxua', 'Artxandako ganian' y 'Goxaldeko edurra'. Poesia hauek ez dute ezustean harapatzen Orixe, bi urte lehenagotik ere ezagutzen baitzitu-tuen joera horretako batzuk, beragatik izan ez balitz Lauaxetak sutara botako zituenak. Orduan egindako gutunean jakinarazten dionez, begi onez ikusten du Lauaxetaren modernozaletasuna, liburua argitaratu eta gero ere bere egiten duena: "Animarse, pues, a traer a la lengua vasca la autoridad de Verlaine y Baudelaire. Pues no le hace falta autorizarse a nuestra lengua! Ese tinte de modernidad que comunica usted a sus versos, viene bien, aunque no fuera sino un alarde de adaptación. No hay por qué añada más ni modifique mi juicio".

Orixeren kritika hau, oro har, positiboa bada ere, bere erreparoa jartzen dizkio modernismoari. Handiena da frantses eskolako poesia belaxka eta hutsal hori Europan eta munduan modan dagoen zerbeit dela. Ondo dago eskola horretan ere euskara gaitua egotea, baina aski dira liburu horretako poesia batzuk gaitasun hori adierazteko. Zergatik? Bi arrazoi hauengatik: batetik, literaturan eredu iraunkorrak bilatu behar direlako eta ez modan daudenak eta, bestetik, hizkuntza hainbeste lantzen duen frantses eskola kontzeptismoan eta sentsismoan jautsia kausitzen delako. Orixeek sostengatzen duen funtsezko ideia da, filosofian bezala literaturan ere, garai guztietan eta beti balio izango duten legeak jadanik asmatuta daudela: "Hay leyes filosóficas eternas que están asentadas sobre el buen sentido, la disciplina, la armonía, la medida y, sobre todo, la unidad artística, que hoy tanto se descuida". Horaziok idatzita utzi zituen arte poetikoari buruzko bere kodigoan. Orixerentzat garrantzitsuena ez da ideietan edo hizkuntzaren erabileran moder-

noak izatea; aitzitik, pentsamenduen eta afektuen arteko ezkontza harmoniatsua lortzean datza literaturaren handitasuna. Horixe da, hain zuzen, literatura modernoari, frantsesari eta areago oraindik espainolari, falta zaiona: harmonia, neurria, batasuna. Literatura modernoan pentsamendua eta bihotza dibortziatuta dabilta eta horregatik dituzu hain ahulak, hain kaskarrak, hain hutsalak oraingo hainbat poesia. Hori horrela, eredu poetikoaren bila abiatzeko orduan, hobe da beste aro eta beste literatura batzuk arakatzea.

Beraz, modernotasuna onartzen du, hizkuntza lantzeko, batez ere, baina neurriz. Dosifikatuta. Bestalde, literatura hori ez da edonorentzat egiten dena, gutxi baitira hartaz baliatzeko gauza direnak. Lauaxetari, poesi eremu berri horietan egindako esperientzian, denetik kausitzen dio: onetik eta ez hain onetik. Bertuteen artean, irudimena eta sentimendua hain oparo erabiltzeak euskal poesiari ekarri dion berritasuna nabarmentzen du. Hau lorpen handi bat da: “Imaginación y sentimiento le han hecho decir cosas que en nuestra lengua resultan de rara novedad. ¿No es gran conquista?, volveremos a repetir”. Eta akatsen artean, amodiozko poesietan nabari den konbentzionalismoa da gutxien estimatzen duena. Poesi mota honetako poesia batzuk belaxkak iruditzen zaizkio, “Gazte gexua”, “Gexorik nago”, “Mosuba”, etab. Oro har, Lauaxetaren ekarpenari positiboa deritzo: “En resumen, ‘Lauaxeta’ ha sabido aclimatar entre nosotros un género de poesía que, aunque llegue a caer de moda, demuestra una vez más la capacidad de nuestro idioma para el lenguaje de las musas”.

Baina Lauaxetak badu joera klasikotik ere, liburua-  
ren azken partean, batez ere: “Sin desaparecer la persona anterior, se adapta a otro género de sentimiento más asequible y no menos humano”. “Neguko gaba” poesiak Horazioren ahapaldiak dakarzkio gogora, “Jaungoikotija”



poesian San Agustin, Joan Gurutzeko eta beste autore aszetikoen pentsamenduak irakurtzen ditu, “Artzai ona” poesiaren lehen eta azken ahapaldiek Joan Gurutzeko eta Verdaguerren pasarte batzuk gogorarazten diote, “Ezilkortasuna” poesian San Paulorengan inspiratutako pentsamendu eder batzuk datoz.

Lauxetak lehen joeran bezala bigarreanean ere poe-siarako gaitasunik erakusten duela baieztatu ondoren, bi aholku ematera ausartzen da azkenean: “Le aconsejaría yo, en primer lugar, que refrenase o dominase un poco más la imaginación y la sensibilidad; y en segundo lugar y último lugar, y con el mayor encarecimiento, que procure buscar y obtener siempre la unidad artística, que es la piedra de toque de toda obra de arte”.

Lehen ekinaldi honetan, kritikatik at geratzen dira, nahita, “Maitale kutuna” amodiozko poesia moderno saritua eta hizkuntz azterketa.

Lizardiren kritika abenduan heltzen da. Maitasunez eta adiskidetasunez egina izan arren, bigunetik ez du Orixerenak baino gehiago. Sarrera gisa egindako “Rumbos nuevos” izeneko lehen artikuluan esaten zaigunez, egileak liburu honekin lortu nahi duena da frogatzea euskaraz ere pentsamenduak oro adieraz daitezkeela. Lortu ote zuen helburu hori? Erdizka bakarrik. Ahalegin handia egin zuen, guztiz meritagarria, euskara kontzeptu zailetara moldatzen. Hala ere, Lizardiren ustez, ez da iristen bere asmoa erabat betetzera, itzulpenak gehiago adierazten baitu jatorrizko testuak baino. Lauaxetak ez du aurkitu euskarak bere erraietan daukan urre-zaina eta horregatik geratu da eskas antzean bezala bere adierazpenean. Dena den, egin duen lan handiarengatik, ondo merezia du “olerkari” izena. Izen bereko bigarren emanaldian, liburua pausatuago irakurri ondoren, Lauaxetaren poesian hiru sailok bereizten ditu: erlijiozkoak, maitasunezkoak eta orotarikoak.

Orotara, poetikaren aldetik hartuta, zer iruditzen zaion? Esaldi laburño honetan dator esana oinarritzkoa: “Hay en la obra de Lauaxeta abundancia de pensamiento y de imágenes, delicados, ingeniosos, profundos”. Orixek esan zuen gauza bera, funtsean. Baina esaldi positibo horren aurretik eta atzetik, dezente luzatzen da akatsen katea. “Artxanda ganian” poesian gehiegi moralizatu eta filosofatzen du, “Gabeko irrintzija” poesia emeegia iruditzen zaio, “Mendijetarra” poesian sentimentalkeria ikusten du. Eta horrela. Laburki esanda, Orixek baino akats gehiago kausitzen dizkio. Jarraiko lau hauek bederen bai: a) pentsamenduak eta irudiak “pilatuta” bezala egotea, batasun harmoniatsurik gabe; b) amodiozko poesia batzuen artifiziakeria; c) melankoli tanta gehiegizkoa; d) pieza batzuk adimenari emanegiak izatea. Zentzu honetan, hiru aholku ematen dizkio, bere hitzez baliatuz azalduko ditudanak: lehena, “con perdón de los señores de la poesía pura que cita Aitzol, yo le aconsejaría amigo mío, que se haga usted todo corazón y ojos y que apenas deje a la cabeza sino aquel cuidado, recomendado ya, de dar unidad y engarce a los elementos aportados por aquéllos”; bigarrena, “debe esforzarse en alcanzar cada vez una expresión más justa y más densamente vasca”; hirugarrena, “conviene ponga usted atención en evitar incorrecciones gramaticales que a veces se le escapan, como el empleo un tanto arbitrario de modismos y formas”. Nik ez dakit Jon Kortazarrek non ikusten duen Orixeren artikuluan Lizardirenean baino dogmatismo gehiago. Nik ez batean eta ez bestean ikusten dut horrelakorik.

Bestalde, bigarren aholkuari dagokionez, esan behar da Orixek esana berretsi besterik ez duela egiten. Horregatik dio “recomendado ya”. Ez dirudi Lizardik Orixek baino gustukoagoa duenik poesia garbiaren aldeko joera. Aitzolek Lauaxetari egiten dion “Hitzaurrea”n dakarrenez, poesi mota honek poesia kontzeptuala lantzen du

bereziki eta horixe da, hain zuzen, Frantziako joera modernoak hartu duen bidea eta Lauaxetak bere lehen liburuan segitzen duena. Aitzolen lumak idatzia da hau: “France’n, batez ere, poesi gaia, aldakuntza gogorra jaso beharrean dago. Olerkariak, buru-belarri, era berriak sumatzen ari dira, olertiak goratu eta edertzekotan. Bremond, Valéry, Claudel eta Souza *poésie pure*, ‘olerti-uts’ bidexurretatik jo ta, poesi osertza zabaltzearren leiatsu dabilta. Adi poesia, oldozkun olertia, olerti gallurrentzat daukate. Iturri garden, aran sotil, baso itzal, mendi zorrotz, maite min eta minkotasunak beratutako gaiak goi-argiarentzat egokienak dirala ez uste; beste alako gai sakon eta barnekoak, adikorrak alegia, olerkari kemen-tsuenentzat berekikoenak zaizkiotelakoan egon ginezke, ertilarri oiek dasatenez. ‘Lauaxeta’ oien kidekoa zaigu”. Orixek “kontzeptismo” hitzaren bidez ezaugarritzen du poesi mota hau. Beste nonbait “conceptillos y suspiros de falsete” kalifikatiboak ere egozten dizkio.

Luis Jauregi ere bat dator Orixe eta Lizardirekin esatean Lauaxetak alor berriak jorratzen dituela euskal poesian. Amodiozko poesietan nabarmentzen da gehienbat, inon baino gehiago “Maitale kutuna” poesia sarituan. Lauaxetaren erotismoak bikain gainditzen ditu Heineren ausarkeria errealistegiak, antikristauak eta, halaber, sentimentalismo emea. Bertuterik behinena zintzotasuna du, poesia lirikoan hain beharrezkoa dena. Ez du uste melankolia akats bat denik, baldin ondo erabiltzen bada. Poesia intelektuala lantzeko agertzen duen gehiegizko zaletasunarekin, ordea, kontuzago ibili beharko luke. Funtsen, ados dator Lizardik egindako kritikarekin, batez ere, bertsogintzan hartzen dituen gehiegizko lizentzien gainean. Liburu hau, bestalde, ez da herri sotilarentzat egina, estetikan ondo prestatua dagoen gutxiengo barentzat baizik. Baina baditu poesia batzuk itzulpenik gabe gutxiengo honek ere ulertu ezingo dituenak, esaldiaren

egitura sobera konplikatzen duelako eta batzuetan aditza falta delako. Hizkuntza ezin bihur daiteke laborategi literaturgintzan. Poesia euskara herritartzeko baldin bada, lehen baldintza da ulergarria izan behar duela. Beraz, hizkuntza poetikoak argitasuna eskatzen du. Bestela, irakurlerik gabe, denbora alferrik galtzeko arriskua dauka poetak. Lauaxetarekin horrelako zerbait gertatuko ote denaren beldurra dario testu honi: “Muévenme a estampar estas reflexiones, más que la necesidad que de ellas tenga nuestro joven poeta, la visión real de nuestro actual campo literario, que juzgo debe decididamente orientarse en el sentido de extender y ampliar el área de sus lectores, y sobre todo, el deseo de que, la poesía vasca, lejos de concentrarse en el círculo admirativo de unos cuantos amigos del poeta, extienda sus benéficas raíces a través de la masa común culta de nuestro pueblo”.

Testu horrek laburtzen du ondoenik Luis Jauregiren pentsamendua. Ondo dago, jokabide isolatu gisa, poeta banaka batzuk gutxiengo batentzat bide berri ausartak urratzea. Baina, oro har, ahalik eta jenderik gehienengana helduko den poesi mota egitea eta, norabide horretan, ahalik eta arte-perfekziorik handiena lortzea izango litzateke jomuga. Azken batean, Luis Jauregik espresuki esaten ez badu ere, herri-poesia aldarrikatzen du.

Bere aurrekoen artikulua gaztelaniaz datozelako kexatuz, Barrensorok euskaraz egiten dio bere kritika. Datu zehatzik ekarri gabe, gogoeta orokorrak eskaintzen ditu. Ikuspegi inpresionista honen barruan, beste kritikarien antzera, dohain bikainak aitortzen dizkio egileari: olerkari-gogoia duena da, bihotz samur eta bigunekoa. Hutsuneak aipatzean, Barrensororen begiek handitxoek amodiozko poesietan atzematen dituzte.

Orixe, bere lehen artikulua egin eta handik urtebetera (1932) itzultzen da berriro Lauaxetarengana, *Eusko Olerkiak* bildumako poesiak aztertzeari ekingo dionean,

hain zuzen. Bilduma honetan, “Maitale kutuna” izango du lehen kritika-gai.

Oraingoan Orixek, lagun batzuek zirikatuta, bere lehen artikuluetan baino estuago hartzen du Lauaxeta. Orduan laudorioak zituen harentzat; orain, akatsak. Hiru bederen badakartza. Lehenik, literatur korronteari dago-kionez, gehiegizko modernismo-lehia egozten dio. Antzinateko klasiko jatorrengandik gehiegitxo urruntzen da Frantziako poeta berrizaleengana hurbiltzeko: “Lauaxeta’k tankera ontakorik au bakarra egin ba’lu, ez nion esango diodanik; baña bere liburuan geitxo ditu, ta gure gaztediari mesede baño kalte geyago egin lezasote. Ames-zalea ta gaizberatxa agertu zaigu adiskide gazte au. Antziñateko poeta jatorretatik etzayo ezer aundirik itsasi. Ayen zaña ta osasuna besterik da. Ayek bezelakorik ez da sortu, ta sortzen diranik onenak, ayen aritzeko izango dira... Guziak buruz ta zentzuz jokutzen ziran. Ayen eskola zentzu-eskola zan. Andik onontzakoak geyenak zentzugabe batzuk izan dira ametsa, negarra ta idurikeria daritela”. Euskarak kaltetan du, Lauaxetaren kasuan bezala, horrelako literaturarekin liluratuegi ibiltzea, bereziki bi arrazoi hauengatik: batetik, helburu moralengatik, modernismoak bere liberalismoarekin euskal gazteriarik alderik ekar diezaiokeelako; bestetik, literatur helburu hutsengatik, literatura modernoa, kasurako Frantziakoa, itxurakerien atzetik dabilena delako. Lauaxetaren “Palankaria”, adibidez, estilo horretakoa da, “guzia milinga ta itxura-nayekoa, erderaz ‘amanerado’ esaten deguna”. Hemen du abiapuntu klasizismoaren eta modernismoaren arteko eztabaidak. Bigarrenik, hizkuntzaren aldetik, trebetasun handiago baten premia azpimarratzen du. Bide-nabar, gramatikazko akats-pare bat zuzentzen dizkio, hots, “haren” ordez “bere” eta “iñoz ikusi ez dodan” ordez “iñoz ikusi bako” jarri izana. Areago oraindik: haren bertso batzuk ulergaitzak eta latzak egiten zaizkio eta,

bestalde, hitz eta aditz sintaktiko berri gehiegi erabiltzen dituela iruditzen zaio, batzuetan ahapaldi berean pilatuta. Hirugarrenik, giza maitasunaren gehiegizko idealizazioa oso zalantzan jartzen du, maitasun horretan haragiaren desira espirituarena baino indartsuago dela uste baitu: “Giza-maiterik ez da izan sekulan ain garbirik. Zerura baño maizago begiratzen du lurrera, ta lokatzera ere. Musuak otoitz biurtzen dirala, asmatzeko polita da, baño gauza orren berri dutenak, batez ere santuak, bestera mintzo dira. Nik ez det sinisten olako maitasunik”. Beraz, giza maitasuna ezin da aingeruzkotzat hartu, ez baita egia.

Lauaxetak, oportetara irteten den egun berean, eskerak emanez ohar labur batekin erantzuten dio Orixeren kritika horri. Onartzen ditu egiten dizkion gramatikazuzenketak, baina ez dator ados Frantziako poeta modernoez eta autore klasikoiez azaltzen dituen iritziekin: “Oraintsuko Franceko poeta barrizaleen antzera idazten dodala esan daroela, diñau. Ez ba. Ori diñoanak ez dakit zelango idazkerea gura dauan. Francen gaurkoetan Valéry, Claudel, Gide, Cocteauren antzik iñondik ez. Leenago parnasiano esanak, nere gogaide, bearbada. ‘Maitale kutunatzaz azterketa: ederki egiña. Olerkari guztiakaz orixe egin bearke. Baiña naiakoatzaz idatziko dogu. Batzuk naiakotzat edo amaneramentotzat daukoena, besteak ez. Bakoitzak bere agoa. Ez nago antziñakoeztaz diñoanean. Zentzu eskola eukiko eben, baiña ez guztitik. Pindaro baizen romantikorik ete da? Ovidio bere bardin. Lirikan nortzuk zentzun eskola osoan? Horatius? Teokrito? Ba dira ludiko literaturatan olerkari gorenak, klasiko izan ez arren”. Dena den, erantzun pausatua gerorako agintzen dio. Bitartean, “Maitale kutuna”z egindako azterketa Lauaxetak onez hartu duela eta, Orixek kritikarekin segitzen du. “Klasiko” kontzeptuaz zer adierazi nahi duen eta zein autore dauzkan kla-

sikotzat zehaztera eta, zentzu honetan, 1931ko “Bide Barrijak” artikuluan esandakoak osatzera dator “Euskal *Eusko-Olerkiak* tartean” izeneko artikulua. Bi puntu dira hemen oinarritzekoak: bata klasikotasunaren ikuspegi diakronikoari dagokiona, eta bestea “klasiko” izena merezi duten autoreen zerrenda gutxi-asko itxiari buruzkoa.

Lehen puntuari dagokionez, Orixek onartzen du klasikoak izan daitezkeela bai antzinatekoak eta bai oraingoak: “Beren doaien iabe ta nagusi diranak dauzkat nik klasikotzat, naiz Homer’en gizaldiko, naiz gaurko. Doaien iabe izatea bat da. Romantikuak ere ba dituzte, Jainkoak inori ukatu ez dizkion doaiak; baina ez dira doai orien nagusi; ots, idurimena ta biotza berak nagusitzen zaizkie, bestera izan bearrean. Klasikoak ere doai orien iabe dira, baino baita nagusi ere. Zenbaitek uste dutenez, klasikoak ez dute irudimenik, ez biotzik; alako neurri zur batean baino... Irudimena ta biotza ba dituzte, alegia, klasikoak ere, baina aien nagusi dira beren laneginetan”. Honek esan nahi du buruak esaneko behar dituela bihotza eta irudimena. Klasikotasuna mugatzen duena, beraz, *sophrosyne* da: pentsamenduaren eta sentimenduaren arteko orekatik espirituari bake-giroa dakarkiona, alegia. Lege hori betez gero, nornahi izan daiteke “klasiko”, hots, idazle goren, antzinatekoa bezala oraingoa.

Bigarren puntuaz, Orixek bere ikuspuntu pertsonala agertzen du. Bost dira klasikotzat dauzkan autoreak: Dabid eta Luis Leongoa dira lirikoen artean eta Sofokles, Virgilio eta Platon ez-lirikoen artean. Lirikan klasikoak izatea gauzarik zailenetakoa dela iruditzen zaio Orixeri, bihotzaren jabe eta nagusi izatea ez baita nornahiren eskuko egiten. Euskal literaturan, Lauaxetak bi poema ditu maila horretan sartzekoak: “Miren’i otoya” eta “Artxanda ganean”. Lizardiren gehienak sar daitezke klasikoen artean. Bide honetatik segitzera aholkatzen du gogaidetzat daukan Lauaxeta: “Bai, ‘Lauaxeta’, klasiko

zer daneko ontan, uste baino ondoagoan naukazu. Bai, 'Lizardi', Bedoña, eusko-olerki batzaldietan saria atzeman dezutenok, olakoak nai zaituet euskera amarentzat”.

Orixek, bada, poesia klasikoaren eredia segi dezala proposatzen dio Lauaxetari. Honek, aurreko oharrean agindu bezala, oporretatik itzulitakoan agertzen dizkio bere iritziak “Erantzuna” izenburuarekin argitaratutako sei artikuluren bidez. Orixeren aburuak, oro har, dogmatiko samarrak iruditzen zaizkiola esanez hasten da. Hala ere, prest agertzen da gramatikazko akatsak onartzeko. Onartzen du, era berean, frantses idazleen eraginik izan duela. Arazoa ez du bideratzen hortik, zer esan gutxi baitu hor. Nondik, bada? Ikus dezagun patxadatsuago.

Bere jarrera estetikoa argitu nahi eta, “klasiko” kontzeptuaren adiera zehazteak ematen dio lanik gaitzena. Orixek antzinateko poeta jatorrengandik ez zitzaiola ezer handirik itsatsi leporatu baitzion, arazo hori zuritzea du Lauaxetak lehen egitekoa. Azkenean, hizpidean dagoena “klasiko” kontzeptua da. Orixerentzat, esan genuen bezala, edukiaren eta itxuraren arteko harmonia zaintzen duena da poeta klasikoa eta lege hori, zentzu hertsian, Dabidek eta Luis Leongoak bakarrik betetzen dute poeta lirikoen artean. Lauaxetak poeta lirikoen zerrenda gehiago zabaltzen du, hor barruan autore moderno hauek sartuz: Frantziar, A. M. Chenier; Italian, Foscolo, Leopardi eta Carducci; Alemaniar, Goethe eta Hölderlin; Ingalaterran, John Keats; Kataluniar, Costa eta Llovera. Hauek guztiek lantzen dute, ezin bikainago landu ere, *sophrosyne* delakoa. Alderantziz, antzinatean gutxi izan ziren adimena eta bihotza era harmoniatsuan erabili zutenak. Virgilio, adibidez, klasikoa eta erromantikoa da, aldi berean; Sofokles, *Edipo Kolono'n*-en salbu, ez da klasikoa; Horazio, buru argia bada, bai, baina bihotz gabekoa; Platon ez da inor lirikan; Teokrito klasikoa duzu, baina itxuratia. Gertatzen dena da, zentzuz eta neurritz jokatzeko



honetan, bakoitzak bere modura ulertzen duela arau hori eta, ondorioz, *sophrosyne* delakoaren literatur irizpide nagusia zerbait erlatibo eta subjektibo bilakatzen dela historian zehar: “Zentzunak arau ta neurriak jarri bear deutsozala biotzari? Bai, baiña noragiño neurri orreek jarri bear deutsozan, ezin azaldu geinke. ‘Orixe’rentzat onaiño edo araiño; beste batentzat, barriz, urruntxoago”.

Funtsean, Orixe eta Lauaxeta bat datoz literatur piezaren ederra mugatzen duena harmonia dela baieztatzean; diferentziak, harmonia horren aplikazioa autore desberdinengan nola zehazten den interpretatzeko orduan sortzen dira. Hemen bakoitzak, literatur gustuen arabera, bere maiteak ditu. Lauaxetak, zentzu honetan, antzinateko klasikoak bezain gogoko, edo gogokoago, ditu klasiko modernoak: “Virgili begiko jat, baiña Goethe begikoago. Teokrito ez da neure lan etsaia, Maragall adiskideagoa. Horatius zeuretzat emongo deusut Keats, Novalis edo beste bategaitik”. Orixeri dagokionez, Valéry batek, adibidez, lehenago jasoko luke egurra bedeinkazioa baino, haren eskutik: “Valéry jaunari Nobel saria emongo deusoe. Orixek gura leunken moetakoa dugu Valéry? Iñondik bere ez! Euzkadin jaio balitz, Orixeren zigorkadea lepoan eroango eban, baiña Francen bere kritikoak sortuko ziran klasikoetan aziak ta Valéry jaunari saria emoten deusoe”. Lauaxetak, Orixeren literatur lege objektibo betikoari, aldian aldiko gustu subjektibo eta aldakorra kontrajartzen dio. Orixek baino ikuspegi eklektikoago eta zabalagoa erakusten du. Eta esan ere, zentzu horretan esaten dio zabal ditzala bere begiak literatur mota guztietara: “Ateak zabaldu egizuz ludia ikusteko, izadiari agur egiteko ta begiak joko dabez amaikatxo moetatako lurak eta edertasunak”. Literaturan, autore klasikoa ala moderno den galdetu gabe, edertasuna da lehenik bilatu behar den dohaina. Eta bilatu, inolako aurreiritzirik eduki gabe: “Klasikorik ez romantikorik

idaztietan ez dogu erabili bear. Moeta bitako olerkariak eta idazleak baiño ez dira: batzuk edertasuna azalera dakarrenak, barruan daroielako; beste batzuk, edertasunaren izpirik bere ikusi ez dabenak eta atxakia ezin dagienak”.

Bere erantzunean beste urrats bat areago emanda, Orixek egotzen dion “manierismo”az, Lauaxeta ez dator bat. Nolako poesia egin behar den puntuaren gainean, ez dago alde zuretik ezarritako prezeptibarik. Baudelaireren “Fleurs du Mal” poesiari, honek ez hanka eta buru zuela eta, kritikari batzuek harrira eraso zioten, beste batzuek, aupadaka. Batzuentzat itxurati dena, beste batzuentzat izan daiteke besterik izatea. Norberak barrutik dariona idazten du: “Itxura naia ez da, ba, askoren uste dan legez. Beredin idazleri jaiotzetik jatorke. Eta irizketek lana, adimen azterketa, indarra ta orio usaiña nabarrituten dauan olerkian, erreztasuna etorri bera baiño ez da. Askori lelokeriak neurtitzetan idaztea kostetan jakona, beste oneei itxura naiezkoak dirudien olerkiak egitea, ez jakoe kostetan”. “Itxura naiezkoa” izatea, beraz, ez da akatsa, horretarako dohainen jabe izatea baizik. Horrelakoak genituen, Lauaxetaren aburuz, Apuleyo, Petronio, Juvenal eta Agustin bera. Mistikoen artean, hainbat. Klasiko eta idazle onena izango da, bada, bere garaiko kezkak poesietan eta idazkietan ondoen azaltzen dakiena. Eta eginkizun hau belaunaldi bakoitzak bere erara adieraziko du literaturan: “Eundi bakoitzak bere klasikoak daukoz. Eta klasikorik onenak izan daitezke gaurkoan, itxura naiekoak diranak”. Lauaxetarentzat, bada, itxurakeria errealitatea adierazteko era bat besterik ez da.

Hemendik zer ondorio atera behar den? Klasikotasunaren eta modernotasunaren arteko eztabaidan Orixek lehen aukera eta Lauaxetak bigarrena ordezkatzeko dute? Lauaxetak, Orixek ez bezala, euskal literatura aurreiritzi klasizistatik askatzen duela? Hala pentsatzen duela dirudi Jon Kortazarrek dioenean Lauaxetak poetika berri

bati ateak irekitzen dizkiola, “klasiko” kontzeptuari objektibitatea eta normatibitatea ukatuz gero, poesiaren funtsa edertasun eta egiaren baitan ezartzen duenean. Nik ez dut uste Orixeren eta Lauaxetaren artean halako diferentziarik dagoenik, ez bederen klasikotasunaren eta modernotasunaren artean egon daitekeen adinakorik. Izan ditzaketen diferentzietan, nabariena hauxe duzu, nire aburuz: klasikoa nor den interpretatzeko orduan, Orixek Lauaxetak baino neurri estuagoa erabiltzen duela, alegia. Nik hala irakurtzen dut Lauaxetaren beraren esaldi esanguratsu hau: “Klasiko zer diran onetan, ‘Orixe’ eta ‘Lauaxeta’ mokoz moko ez dagoz. Gai ori sarri erabili dogu izketetan. Baiña arengandik aldenduten nau zerbaitek. Gogo zabalduagotxo? Kutsu aldetsuagoa? ... Batzuetan klasiko eskolara joaten naz, beste batzuetan Heine-ren eskolara. Noizbaiten Valéry jaunari agur egitera edo parnasianoai. Gogoia zelan kutsu alan. Gaur alai ta barre egiten dot, biar itun eta negar. Egunari berea”. Jakobidez, unean uneko egoera psikologikoari lotuago ageri da Lauaxeta Orixe baino. Bestela esanda: buruaren eta bihotzaren arteko harremanean, hura isuriago bihotzera, hau gogoari atxikiago. Modernotasunaren arriskurik behinenetakoa, literatur irizpideetan ikusi genuen bezala, bihotz-sentimendu itsuari gehiegi eragitean datza eta, hain zuzen ere, arrazoi moral horregatik hartzen ditu Orixek horrelako erreserbak autore modernoan aurrean. Aurreiritziak? Seguru asko, bai. Lauaxeta moralismoaren kateetatik askatuago kausitzen dut, eklektikoagoa. Honetan badago alderik bien artean. Bego.

Funtsean, ordea, biak ditugu klasikoak, biak eskola berean hezitako jesuita ohiak. Horregatik, Jon Kortazarrek uste duenaren kontra, arazoa ez da hainbeste Lauaxetak “klasiko” kontzeptuaren edukia garaiaren arabera erlatibizatzen duela eta, Orixeren ikuspegi sinkronikoa gaindituz, modernotasunari leihatilak irekitzen dizkiola:

“Al negar objetividad y normatividad al concepto clásico, al aceptar distintos niveles dentro del mismo concepto, al afirmar que el concepto ‘clásico’ no sólo atiende a una época, o una regla inmutable, Lauaxeta está abriendo la puerta a una nueva poética, a otra concepción de la poesía”.

Bere irakurketa hori baieztatzeko dakartzan arrazoiak ez zaizkit iruditzen baliozkoak.

Lehenengoa da Lauaxetak, bere hautaketan autore klasikoak nahiz modernoak sartzean, klasikotasunaren ikuspegi diakronikoaz baliatzen dela. Lauaxetaren kasuan hala bada, Orixeren zerrendan autore modernoak ez direla kabitzen eta, ezin zaio ukatu kategoria hori, besterik gabe. Dakigunez, autore klasikotzat dauzka, ez bakarrik lehen aipatutakoak, baita geroagoko hauek ere: Krisostomo, Agustin, Ambrosio, Zipriano, Jeronimo, Fr. Luis Leóngoia, Dante, Quevedo, Antxieta, etab. Euskal garai-kideen artean, baita Lizardi eta Lauaxeta bera ere. Zentzu honetan, Orixe, alde handirik gabe, Lauaxeta bezain diakronikoa da bere ikuspegian.

Bigarrena da Lauaxetak literaturaren balio unibertsala edertasunean eta egian oinarritzen duela. Orixek ez ala? Esanik utzi dugu literaturak, ederra izateko, edukia- ren aldetik egiarekin eta moralarekin zerikusirik baduena izan behar duela. Literaturaren helburua, azken batean, gazteria heztea baita. Haren ustez, jakina. Lauaxetari egiten dion kritikan, hain zuzen, irizpide horiek aplikatzen ditu eta, ondorioz, haren zenbait poesian modernismoari darizkion akatsok atzematen ditu: bihotz-belaxkakeria eta kontzeptismoa. Frantses eskolako autore modernoak multzoan onartzen ez baditu, egiatik eta moraletik urruntzen direlako da. Azken kontzeptu hauen adiera ez dela berbera Orixe eta Lauaxetaren baitan? Honentzat, objektiboaz gain, subjektiboa ere badela? Nik ez dakit hainbeste. Ziurrago dakidana da batak zein besteak, biek Platonengandik hartzen dituztela ederrari eta egitari

buruzko kontzeptuak. Hau hala bada, ez da ikusten zer-gatik bereizi behar diren, batetik, Orixeren egia eta ederra eta, bestetik, Lauaxetarena.

Hirugarrena da Orixek “klasiko” eta “amanerado” edo itxuratiren kontzeptuak kontrajartzen dituela, azken honek hondoaren eta itxuraren arteko oreka apurtzen duelako. Ez da aski obrak berak bere baitan oreka hori edukitzea; horretaz gain, beharrezkoa du inguruko gizartearekin ere harreman orekatuan egotea. Lauaxetaren eskeman, idazle batek bere garaiko gizarteari erantzun behar dio. Ez dut uste Orixe eskema horren kontra doanik, luma bizitzatik eta gizarteko arazoetatik apartatzen dituela baieztatzeari gehiegi baieztatzea baiteritzot. Gehenez ere esango duena da idazle batek, edozein garaitakoa delarik ere, arrangura guztiak egiaren eta moralaren balkoitik begiratuta adierazi behar dituela, gehiegikeriatan jautsi gabe. Noski, aldatuz doan gizartean egoera berriak sortzen dira eta hor murgiltzen da idazlea. Garaian garaiko aldaketa horiek, ordea, egiazkoak bai baina azalekoak bakarrik dituzu Orixerentzat, gizakiak, funtsean, lehen eta orain, berbera izanez segitzen baitu. Nik ez dut uste aristotelismoan eta eskolastika osoan zehar oinarrizko tesia izan den ikuspuntu hori inoiz zalantzan jarri zuenik Lauaxetak ere. Horregatik, hori horrela balitz, ñabardura kontua bakarrik izango litzateke hemen ezbaian legokeena. Orixerentzat azaleko gauza horiek sobera puztea da, hain zuzen ere, itxura-nahiz jokatzeari; Lauaxetarentzat, aldiz, gizartean aldakor diren fenomenoak kontuan hartzea. Harentzat helburu idealak du garrantzia; honentzat, aldiz, barruko nahiz kanpoko egoera zehatzek sorturiko errealitateak.

Goian azaldutako arrazoi horiengatik, bada, ez zait iruditzen Orixek eta Lauaxetak izandako eztabaida hau klasikotasunaren eta modernismoaren arteko konfrontazio-moduan ulertu behar denik. Horretarako elementu

posible batzuk hautematen badira ere, bi autore horien arteko lotura klasikoak oraindik hertsiegiak dira etenduraz mintzatu ahal izateko. Goizegi da. Familia berean seme-alabak oro berdinak ez diren bezala, Orixe eta Lauaxeta ez ditugu pentsagai guztietan gogaide, nahiz eta eskola berean hazi eta hezitakoak izan. Desberdintasunak, hala ere, familiartekoak dira, barrukoak, pedagogia jesuitikoaren barrutian sartzen diren horietakoak. Korrante modernoarekiko Orixe Lauaxeta baino fidagaitzago bada, estetika arautzen duten arrazoi morala eta intelektuala betikotasunaren argitan begiratzen dituelako da. Oso posible da Lauaxeta, puntu horretan, eszeptikoago eta kritikikoago izatea. Bestalde, Lauaxetak hain maite zituen autore modernoak hurbilegi zitzaizkion erabateko iritzirik eman ahal izateko. Kritika klasikoan, arrazoizko denbora-urruntasuna eskatzen da obra jakin bat klasikoen zerrendan sartu ahal izateko. Elementu hau ere ez da ahaztu behar tertulia honetan.

## V. Aitzolen gerizpekoak: *Euzko Olerkiak* (1930-1936)

“Orain arte euskerak izan ditun olerkari garaienak eta bikañenak Aitzol'en baranoan loratu ziran, nonbait. Alegia, 1930 g. urtetik 1936 g. urterarte. Zazpi urteok, benetan, arrigarriak izan zenitun euskal-olerkarien onerako. Nik uste, zazpi urteok betirako goragarri izango dirala Eusko-Olertiaren edestian. Ori dala-ta, nolabait sailkatu ta izendatu bear-eta, aldi ori 'Aitzol'en gizaldia' izendatu dezakegu. Aitzol izan baigenun guziok eragille ta zirikatzaile, nolarebait” (Zaitegi).

Egina dut lehen zatian Euskaltzaleak-ek antolatutako poesi lehiaketan kronika laburra. Lan kolektibo baten hausnarketan barneratzeko atea irekita daukagu. Baina horrelako lan batean sartzeak ez ote du ezker-eskuin zantzekoak eman eta hartzeko arriskua? Burura datozkidan galderak, berriz, asko dira. Nork kontrolatzen ditu poesi txapelketa hauek eta nork finkatzen ditu literatur irizpideak? Galdera zuzenak, agian zuzenegiak, baina ezinbestekoak ikerketak aurrera egingo badu. Izan ere, orduan plazaratzen dira euskal kritika literarioaren zimentarria osatzen duten lehen osagaiak, hala nola, iritzi-artikuluak,

eztabaida jarraituak, balorazio kritikoak, eta gisakoak, nahiz eta kritika-lan horiek ez diren era sistematiko batez landuak izango, ezbaiaren harian baizik.

Ebanjelioan “hasieran Hitza zen...” irakurtzen den bezala, euskal literaturari buruzko kritikaren kronologian ere “Poesi lehiaketak izan ziren” esan beharko da. Eta horietan durundatsuena, ezbairik gabe, Errenterian ospatutako lehenengoa da. Orixek berak kronika luze eta biribila eskaintzen du *Euzkadi*-n argitaratutako “Las fiestas de Errenderi” artikuluan, jaialdiaren berri zehatza emanaz. Arrakastaren handia Euskaltzaleak-i zor zaio. Euskaltzaleek elkarre honetan ezarriak dauzkate beren kultur esperantzak. Orixek badaki, ondotxo jakin ere, elkarre horrek Aitzol zuzendaria duela eragilerik bizkorrena: “A la inquietud de Aitzol, si mi memoria no falla, se debe la primera idea de la celebración de esta fiesta de la poesía vasca, con motivo del triunfo de Jauregi, cuyo libro elogió la crítica con entusiasmo. Esta fue la ocasión nada más. La idea se generalizó y se ha llevado a cabo, sin dar motivo fundado a resentimientos de amor propio. El mismo ‘Aitzol’, nuevo directivo de la Sociedad, es el que desde este periódico ha hecho campaña orientadora, organizadora y alentadora. La gente ha respondido al llamamiento, y puede decirse que el éxito ha superado a las esperanzas que la mayoría, y aun los mismos organizadores, concibieran”.

Testu horretan, bi gauza bederen azpimarratu nahi nituzke. Bata da Aitzoli aitortzen dion itzala. Badaki, jakin, Euskaltzaleak-en haren aburura dantzatzen direla bertako bazkideak. Kultur ekintzak antolatzeko trebetasuna erakutsi du, indarra eta zaina ere bai, eta haren inguruko kudeatzaileek errespetua diote. Orixeren ustea da literaturari buruzko iritzietan ere baduela haren hitzak bere eragin ez nolana hikoia. Bestea da Luis Jauregi poeta sagaratuaren ohorea dela euskal poesiaren tradizioan



herri-euskararen joera markatzen duena. Egin ere, honen omenez egiten da lehen lehiaketa hau. Horregatik esaten nuen Luis Jauregiren liburuak bazuela zerikusirik antolaketa guzti honekin eta ondoren sortuko den eztabaida luzearekin. Orixek berretsi besterik ez du egiten lotura hori.

Epaimahaikoez erabakitakoaren berri, Antonio Maria Labaien jaunak eman zuen, ondoko testu hau irakurritz: “Epai-maiak, batzaldira etorri diran olerkiak zeatz aztertu ondoren erabakitzen du: Guzietatik bi gallendu dirala. Bata sakon, eder, euskeraz aberats ta oldozpen goitarrez betea da, bestea ere eder, olerki azalez apain, samur ta gaiez atsegiñagoa dala. Bietatik ohea zein denik esan gabe, saria azkenengo orri ematea erabaki degu, egokiagoa deritzaigularik. ‘Maitale kutuna’ deritza, ta egillea Esteban Urkiaga jauna da. Bestearengatik ‘Iru-tasuna’ izenpean etorri zaigunagatik, sarigarria dala aitortuaz, omenezko aipamena ematea erabakitzen degu, bere egillea Nikolas Ormaetxea izanik”.

Erreterian hasitako poesi lehiaketaren emaitzak ditugu Euskaltzaleak-ek, Aitzol zuzendariaren eskutik, bi tomotan argitaratutako *Eusko Olerkiak*, lehiaketara bidalitako poesiez osatuak. Esango nuke, halaber, poesia sarituen eztenik gabe nekezago argitaratu ahal izango zirela Lauaxeta nahiz Lizardiren poesi liburu ezagunak. Azkenik, argitalpen hauek gabe, pentsaezinezkoa da une honetan euskal poesiaz egindako kritika-lan serio hau, euskal literaturaren historian lehen saio kolektibotzat daukadana.

Kritikaren zati bat *Bide Barrijak* liburuaren inguruan egin berri dugu, gehienbat Orixe eta Lauaxeta biko-teak pertsonalizatzen dutena. Eztabaidaren gunea, funtsean, klasizismo eta modernismoaren arteko dikotomiak osatzen zuen. Jon Kortazarrek Lauaxetaren aldeko balantze honekin laburbiltzen du poetika berriari buruzko

polemika: “Lauaxetaren ‘Erantzuna’ (32-X-14/20), olerkarien mugimendua ezagutzeko dokumenturik garrantzitsuenetakoa dugu. Estetika modernoaren oinarriak jartzen dira hor. Edozein idazle eredutzat onartu, lirika-ren nagusitasuna aitortu, sentsibilitatea klasikotasunaren arauen gainetik jarri. Momentuan momentuko klasikoak aipatzen ditu Lauaxetak. Eta inori ezer ukatu eta kendu gaberik, berak modernitatearen jarraitzailetzat dauka bere burua: ‘Eundi bakoitzean nor klasiko?’ itaundu ostean, honela jarraitzen du: mende horren ezaugarriak hobekien sinbolizatzen dituena; eta mende bakoitzak bere literatura behar du”.

Kritikari mundakarrak ateratzen duen azken ondorioa da Lauaxeta dela poesia modernoaren oinarri teorioak ezartzen dituena. Bere lekuan esanik daukat oso zalantzan jartzen dudala baieztapen hain kategoriko hori, Lauaxetaren literatur joerari modernistaren kalifikatiboa baino neoklasizistarena egokiago dagokiolakoan bainago. Dena den, ez baitut inor konbentzitzeko ez asmorik ez gogorik, gera bedi bertan behera nire iritzi hau.

Epealdi bertuan, paraleloki, beste eztabaida bat ere plazaratzen da, hau aurrekoa baino zabalagoa dena. Nik, eztabaidaren eremua areagotu egiten dela adierazteko, *Eusko Olerkiak* emaitza kolektiboaren sinbologia jarri dut izenburuan. Hemen sartu behar dira lehiaketara aurkeztutako poesiak, Lauaxetaren *Bide Barrijak* eta Lizar-diren *Biotz Begietan*. Baita, nahiz eta zertxobait lehenagokoa den, Luis Jauregiren *Biozkadak* ere, honen erreferentziarik gabe ezin baita ulertu eztabaidaren nondik norakoa. Bigarren eztabaida hori nondik nora bideratzen den jakiteko, lehen arrastoak Jon Kortazarrek berak emango dizkigu: “Planteamendu honen azpian, nik uste, hiru-lau arazo nahasten dira. 1932-1933 urteetan argitaraturiko hainbat artikuluk tratatuko du gaia. Hasieran, poesia zail/errazak kontrajartzen ziren. Dirudienez,

gazte/zahar konponentearekin loturik eta, Lizardik aipatzen zuenez, liriko/epiko edo, hobe, liriko/narratibo tratamenduak nahaspilatuz”.

Eztabaida honetan Orixek bere iritzia, ez hasieran, bukaeran agertuko du. Bestalde, auzian ez da zuzenean sartzen, zeharka baizik, *Eusko Olerkiak* bilduma bikoitza orotara hartuta kritikatzeko baitu. Orixeren arrazoibidea zuzen ulertua izan dadin, ahaleginduko naiz eztabaidaren hari kronologikoan bidegabeko etenik ez tartekatzen. Hariak behar bezala lotzeak badakar, besterik gabe, argibide ez gutxi.

Oraindik behar bezala argitzeke dagoen epealdi honetan gauzak areago nahas ez ditzagun, hasteko esan behar da, beren joera berrizaleagatik, Lauaxeta eta Lizardi izan zirela kritikatuak, lehen bi sari-irabazleak. Egia esan, kritikaren aldeko eta kontrako erasoaldia Lizardik Tolosako bigarren poesi lehiaketa irabazi eta Lauaxetak *Bide Barrijak* argitaratu ondoren hasi zen. Bi gertakariok, dakigunez, 1931n eman ziren.

Berrizaleen kontrako lehen tiroa Larreko idazle nafarrak bota zuen, 1932ko urtarrilaren 17an idatzitako “Bide Berriak” izeneko artikulua bidez. Esaldi zirikatzaile hauen bidez, kritikariei euskara ulergarriaren defentsan luma hartzera deitzen die: “Neure burua euskal letraduntzat naukalarik, una non, ezin aditu ditudala orai berriki agertu diren eta agertzen diren euskal lan apañenak... Euskal idazti zaarretan eta euskaldun utsengatik uste nuen euskara garbiena ikasiko nula, baña ori ez bide da aski; bide berriak egiten ari dire eta guk ez jakinki bide berri orietan barna ibiltzen. ¡Nor baninde ni; otoiztuko nituen, aspalditik euskal idazle sailan ditugunak, arazo untarik mintza daizten!”.

Eta kritikak etorri ziren, etorri, udazkeneko uso hegariaren antzera, arrapaladan. “Euskaldun bat” izenpean mozorrotzen den batek Donostiatik erantzuten dio 1932ko

otsailaren 7an, *Argia* astekarian, berrizaleen kondena suposatzen duen esaldi honekin: “Lauaxetaren bide berriak ez det ikusi. Bizkaieraz egon bear du eta nik ez dakit gipuzkeraz baizik”.. Bide berri honi hiru akats ikusten dizkio: bat, berrizaleak ulergaitzak direla eta, halaxe izanik ere, horiexek jasotzen dituztela sariak; bi, jokabide honek euskara galtzeko bidea dakarrela; ondorioz, hiru, poeta batzuk idazteko gogaituta geratu direla. Handik bi egunera, Bilboko *Euzkerea* aldizkarian, Lauaxetaren *Bide Barrijak* iruzkintzean, poeten eta bertsolarien arteko desberdintasunak aipatzen dira.

Berrizaleen defentsa ez da luzatzen. Lizardik “Bide berriak?... Bide guziak?...” artikuluekin ihardesten dio “Euskaldun bat” kritikari ezezagunarengandik datorkion erauntsiari, 1932ko azaroaren 21eko *Argia*-n bertan, ironi aire dezenterekin baina serio ihardetsi ere, jokoan dauden aukerentzat tolerantziaren eskea eginez. Euskal literaturaren aberastasunerako, inor zapuztu gabe, erraz-zaleentzat bezala berrizaleentzat ere bere lekua errebindikatzen du: “‘Berrizaleok’ (?) irabazi-sariengatik, idazle-olerkari, dio-zenbait, zapuztu egin omen dira. Gaizki egiña. Zuek, errez-zaleok, aspaldi darabiltzuten zirikabi-deaz mindu-ta, berrizaleok zapuztuko ba’giña ordun ere zeresana izango litzake. Nik uste, mordollozaleak, erdi-merdi-zaleak, eta aurrera-zaleak, guziok bizi gaitezkelak pakean. Zuk darakusazuna baño irizmen zabaltxeagoa bear, ‘solamente’. Nik idazle errez-zale bakar bat ere ez det bere bidetik okertu nai izan. Bestalde, bere artan jarraitu dezaten alegiñak egin izan dizkiet. Legezkoa alda gurekin, berrizaleokin, beste era batera jokatzea?... Guk badakigu idazle errezak, olerkari errezak, gure aldean ‘publico’ aundia dutena... Baña, lenbait-len aitor dezadan, errez-zale aserrekoioek ere bear-bearreko ta nai-ta-naiezko zaitutegula”. Literatur bide desberdinen antzera, euskalkiak oro ere aintzakotzat hartu beharrekoak dira:

“Lauaxeta’ren *Bide Barrijak* ez omen dezu irakurri, bizkaierazkoa ote-dalako, ta zuk gipuzkera baizik ez dakizula ta. Bizkaiera, gipuzkera, lapurdiera, guziak dira euskera, ta euskera eder. Guziak bear ditugu mami-mamiko”. Bide guziak –euskalkiak barne–, euskara indartzeko beharrezkotzat jotzen baditu ere, ikusten du berrizaleen bidea gutxiengo batentzat bakarrik egiten dela: “... aitortzen det eta nai det errezero idazten dutenak berrizaleak baño askoz geiago bear ditugula, oreka legamia baño ugariago bear dan bezala. Poema eder bat errezantzean norbaitek idatzi nai, ta âl-dedantxoaz laguntzen diot”. Eta lehiaketetan bereizkeriarik gerta ez dadin, bientzat sari desberdinak jartzea ere proposatzen du: “Bai-ta ere, ‘Euskaltzaleak’i eskatzen (diot) olerki-batzaldia erdibitzeko, sari bat erritar-antzeko lanentzako ipiñiaz, bestea liriko zoro berrizaleentzako”. Lizardiren erantzuna aski bake-tsua eta hotza izan arren, nabari zaio auziaren garratzak mindurik utzi ziola sentimendua. Minduraren ispilu duzu esaldi hau: “Ementxe daukat, aurrean, nere (?) aritzabarra. Oker-irabazia dedala ziñez uste badezu, zere eskuetan uzten det: itz-erditxo bat esatea aski dezu”.

Barrenso, “Bide berrietatik eta... zaarretatik ere bai” artikuluan, Lizardiren luman ezartzen duen nahasketa hau garbitzera dator: “Berrizale ez-tiren guziak mordollozale omen dire. Beraz zaartzaleak berrizaleak baino malla batzuek beeraxego legokez ‘Lizardi’ren iritiz”. Planteamendu hau, ordea, okerra da, zeren, batetik, zahartzalea/mordoilozalea eta, bestetik, berrizalea/garbizalea paralelismoak ez baitu praxian oinarriarik. Larrekoren kasua aipatuz gero, hauxe dio: “Beraz, idazle zaar-zale askoengan ez-tire senide leen-naia ta mordollokeria. Eztira ere beti bixki berrizaleengan orain-zaletasuna ta euzkel idaztera jatorra. Itz garbiak alkarri josiki, erdel-era narratza erabilli ditek”. Alderdi bakoitzari bere alde onak ikusten dizkio eta, Lizardik bezala, bi aukeren arteko besarkada

eskatzen du. Horretarako, hala esango du, “etzegok txapelketak banandu eta erdibitu bearrik”. Norbait olerkigintzan berrizalea delako, ezin da esan derrigorrez euskara gaiztoa darabilenik. Lizardiren euskara dakar adibidez: “Aor ‘Lizardi’ euzkera askatuan maixu. Ar dezadan txapela eskuan. Emen naiz zure aurrian auspezturik makur eta apal. *A tout seigneur tout honneur*. Garbi, yaukal; adierraz, orraati. Olerkietan –aitortu bear– ez du beronelan jokutzen. Ua duk guk iretsi ezin dugun era berria. ¿Euzkararik ez ete-dakigu? Itz neurtuen azal-azpian, azkenengo tantoa jario arteo, estutu dik oldozkuna. ¿Gure adimenerako sakonegi al-duk? Etzekiat zer dukan. Alboan daraman erderazko argiontzia bideak urratzeko ezpa’genu, gure oi-urratsak legartza-tartean barna zaurika ituzke. Argibide (*clave*) ori ez genukelarik bizitza osoan jarduki ere, ezin ulertu. Alere etzegok an erdel-usairik. Arrobi jatorretik ateria, Lizardi’k erabilli oi dun euzkara. Nunbait oldozkunak argiratzeko olerki-learri giar-giarrren baten billa zebillek. Olerki berrizale purrukatuen artean eztuk-ordea dana arrobi bizitik joa. Erdel-kedatsa daritelarik oartu ditigu iñoiz. Ori zearo alderatu bear”. Beraz, Lizardi berrizalearen euskara ulerterraza egiten zaio prosan, baina ez poesian, honen ulerpenerako gaztelaniazko itzulpena jo behar izan duela aitortzen baitu. Hala ere, epaimahaikoek Lizardi bezalako berrizaleak saritu badituzte, inork ez dauka zergatik zapuztu, ona denak, berrizale izan ala ez, gerora ere ona izanez segituko baitu. Azken batean, hauxe esatera dator: Larrekoren euskara, erraz-zale eta zaharzalea izanik, jatorra, goxoa eta garbia bada, ez da kamutsagoa Lizardi berrizalearena, nahiz eta ulergaitzagoa izan. Bere berritasunean, “idazle onen luma nagusi duk, danean”.

Barrensororen artikulu horrek zapore mikatza uzten dio aho-sabaian Lizardiri eta honek, “Bide ta bide-ondo” artikuluan kontuak zorrotz bezain motz eskatzen dizkio.

Zergatik? Batez ere, bera eta Larreko aurrez aurre eta haserre-bidean jartzen dituelako. Baina, bide batez, beste gauza batzuk garbitzeko paradaz baliatzen da. Hor doaz, zerrendan, Lizardiren zertzeladak: a) “Euskaldun bat” izan zen, ez bera, “bide berri” zaleak eta ulerkaizkeria” elkartu zituena eta, beraz, nahasketa sortu zuena; b) ez da egia, Barresorok eta “Euskaldun bat”ek auzo-lanean asmatua baizik, berak berrizaleztat jotzen ez diren lanak gutxietsi egiten dituela; c) “Mordoiloizaleekikoa”, oso osorik, Barresorok bere zakutik aterea du. Azken puntua, mingarriena, bera Larrekorekin konparatu izana da, horretarako berak bide eman ez zuelarik. Nafarrantzat, aldiz, errespetuzko hitzak ditu: “Larreko’ren iritziak maiz txorrotxegiak iruditzen zaizkidan arren, gizonez maite det; idazlez, ederresten; abertzalez, goratzarre dagoiot. Bikaintasun oiez nere eskuek ez ukitzeko diñan goitua ez ba’lego ere, ille urdiñarenganako itzal samurra bear nuke aski”. Ohar hauek egin eta gero, gatzelaniazko hurrengo artikulua txiki baten bidez bukatutzat ematen du auzi honekikoa.

Lauaxeta ere, “Euskaldun bat”ek beronen liburua espresuki aipatzen duenez gero, erantzun beharrean aurkitzen da. “Eztabaida” eta “Barrizaleak” izeneko artikuluen bidez burutzen du hori. Honek, antza, usmatzen du nor izan daitekeen kritikari mozorroto hori, “igarriko neuke bere jaubea” baitio. Lauaxetak ez dakar jadanik esan ez den ideia berririk eztabaida honen plazara. Argumentu gehienak *ad hominem* jitekoak dira. Harentzat, berrizale ala zaharziale izan, garrantzitsuena euskara mintzatzea eta, ahal duenak, idaztea da. Aberria da hori eskatzen duena: “Izkuntzeari lagunduteko bide guziak dira onak. Euskera ondo ez dakigunok aal dogun eran idazten dogu. Baiña beti, aberriaren izkuntza dalako ta maite dogulako geure erriaren ezaupide ederra. Nik ez dakit gipuzkeraz edo bizkairaz edo lapurteraz ibili barik

aal doguzan mota guztiak ikasi. Euskeraz beti mintzatu. Batzuk txarto egiten dogu, beste batzuk obeto, banakak ederki. Gorengo maillara igon gura dogu guztiok, baiña ezin...”.

Orixe “La crítica menuda” artikulua erekin sartu zen eztabaidaren zurrunbiloan, 1932ko otsailaren 23an hain zuzen ere, Lizardik bezala, berak ere inplikaturik sentitu baitzuen bere burua berrizaleen kontrako kanpainen. Hemen, *ad hominem* argumentua erabiliz, “Euskaldun bat”i eta Barrensorori erantzuten die. Lehenengoari esaten dio, Lizardik gai arruntean nahiz zailean idatzia idatz dezala, gauza bada, hark baino euskara erraz eta argiagoan. Bigarrenari, berriz, erantzuteko eskubidea ukatzen dio, haren “¿zerk narama gero, ni, zozo, idazle txukun gorenak darabilkien auzira?” esaldian halako trufa-aire maliziosoa usmatzen baitu. Barrensorok, “Por los nuevos caminos y también por los antiguos” artikuluan, berriro ironiara jotzen du Orixeri erantzuteko orduan, bere burua guztien gainetik jartzen duen epailea deitzen diolarik: “Sale ahora Orixe a la palestra con gesto de perdonavidas”.

Idazle eta euskaltzaleen errekan urak nahastuak zebiltzan garai hartan eta komeni da eztabaida hau zein tesuingurutan eman zen hurbilagotik ezagutzea. Orixatik Tolosara jaitsi zen batean, Nikolasek Lizardi kezkatuta aurkitu omen zuen polemikak hartutako neurri eta itxura desagokiagatik. Hari erantzukizunaren pisua arintzeko asmoak eraginda erantzuten die Orixek “Euskaldun bat”i eta Barrensorori. Azken honengana zuzenduta, gaztelaniaz zergatik idazten duen esaten dion une berean azaltzen du zergatik datorren Lizardiren defentsan: “Ante todo, respondo a una objeción que seguramente me ha de hacer, como me la hizo cuando juzgué a ‘Lauaxeta’. Escribí en castellano, porque así se me solicitó y porque todavía, por desgracia nuestra, el erdera tiene entre nosotros



más radio de acción para propaganda. Escribo en castellano porque me veo envuelto en la misma causa que los berrizales, y quizá muchos no me entiendan por esta endemoniada escuela. Y porque estimo que el (contrario) correctivo ha de tener más eficacia”. Denboraren joanak polemikaren garra pixka bat hoztu zuenean, urte bereko irailaren 9an, Lizardiren defentsa egunkarietan egitea nola ukatu zaion salatzen du: “Zeren obena du ‘Lizardi’k saritua izan izatea? Zilegi bekit, ‘Luzear’ jauna, beste nonbait kendu zidaten itza. Oker ulertuz edo, idazleen aurka ieki ginela entzun izan bear gendun, idazlerik inon aipatu gabe. Beren buruak errez zaletzat zeuzkatenak aipatu genduzen. Biziro mintzeko bidea eman zitzaion ‘Lizardi’ri, esan etzuna egotziz; gero berriz, ‘ahora se reconoce’ edo olakoren bat esanda eman zigun azken itza au irakurtzen dakin batek. Okerrago. ‘Apezak azken itza bere’ da esana, ta nonbait, gure aldean *Euzkadi*’n Urli ua zan apaiz ori. ‘Euskal-idazleak ez beza esan euskeraz esatea ausartuko ez litzaken gauzarik’, nion nik oar labur batean, eta ua ere debekatu egin zidaten. Gauzak garbi esatea etzaie ongi iruditzen, baina neri ‘perdonavidas’ esateko etzan debekurik izan. Aski da”. Horregatik esaten du geroago Lizardiz bere azken hitza esateko daukala.

Eztabaida, azkenean, ireki zuenak –Larrekoak, alegia–, ixten du 1932ko martxoaren 10ean. Eztabaidan parte hartu dutenak eskertuz hasten da. Zaharrak eta gazteak anaitu nahi dituen Larreko beneragarriaren tesia, ondoenik nire ustez, esaldi honetan jasotzen da: “... nik uste dut, euskaraz idazteko bide berriak egin bearko direla. Baño; ¿Nork eta nola? Ez dakit; euskaraz ederki dakienek batek: euskar izkeltzietan nagusi den batek: euskar izpidearen erroak ezagutzen dituen batek”. Bide berriak urratu behar dira, baina horretarako baldintza batzuk bete behar ditu idazleak. Lehenengoa, eta beharrezkoena, euskara ondo ezagutzea. Iparraldeko Etxepare jauna, adi-

bidez, berrizale izanik, hemengo berrizaleak baino errazago egiten zaio.

Batzuen eta besteen arteko ikuspuntu kontrajarri hauetan sakonean planteatzen zen arazoa zein da: literarioa ala linguistikoa, ala biak batera? Hau da egin behar den galdera, eta jadanik egina dena. Barrensorontzat, ondoko aipu honetan irakur daitekeenez, idazle klasiko-zaleen eta berrizaleen arteko talka ematen da: “Es transcendental la cuestión. Se trata de orientar la incipiente literatura vasca. Se han dibujado dos tendencias. La de los escritores que quieren seguir discurrendo por los cauces clásicos, y la de los innovadores que pretenden explorar nuevas, desconocidas rutas”. Tesi honen arabera, arazoaren funtsa, linguistikoa baino gehiago, literarioa da. Bi eskola daude jokoan, hots, klasikoa eta modernoa. Aita Estefaniarentzat, aldiz, arazoa linguistikoa da soilki: “Aunque ‘Lauaxeta’ haya dado más ocasión a este reproche que su amigo el admirable y personalísimo J. M. Agirre (‘Lizardi’ tar Xabier), los que se lo hacen, se olvidan, tal vez de lo que afirmaba Escalante —el cual fue siempre clásico refinadísimo y nunca un insurrecto literario—, de que lo mejor de la poesía, sus toques más felices, consisten no pocas veces en puras infracciones de la sintaxis”.

Jon Kortazarren ustez, Barrensorero da, eta ez aita Estefania, eztabaidaren gunea zuzen interpretatzen duena. Lehenengoaren iritzian oinarrituta, ondorio hau ateratzen du mundakarrak: “... poetika bi daude hemen borrokan: —Euskaldun batek’ proposaturikoa: erraza, narratiboa, euskara jatorrean; eta agian, aranismotik urrun zeuden jokabide linguistikoak proposatzen ziren, inoiz mordoilo ere deitu den jokabidea—. Lizardik eta Lauaxetak proposaturikoa: zaila, berria, kontzeptismoz osatua eta ‘garbia’, purismoaren aldetik, jakina. Lehenengoa, azken batean, betiko poesia erromantikoa zen, nahiz eta Barrensorok ‘klasiko’ deitu. Bigarrena, iraultzailea eta

gutxiengoarentzat egina”. Jarraiko testu honetan, arras eskematikoki bada ere, oraindik areago zehazten ditu eskola horietako bakoitzaren ezaugarriak: “Polemika honek erakusten duenez, gaia bukatzeko, esparru bi ikusten dira euskal poesian: bata tradizionala, edo klasiko deitua, bertsogintzatik hurbila, narratiboa eta, sumatzen dugunez, joera erromantiko batek ukitua; euskararen aldetik, herri-euskararen oinarritua. Bigarrena, iraultzailea, barrokoa, berria, Europarekin elkartu nahian dabilena, poesia kontzeptista (askotan sinbolista), gutxiengo batentzat idatzia; eta, horregatik, aranismoa onartzen zuen hizkuntza poetiko bat bilatzen zuena”.

Hala ote da? Nahiago dut interpretazioaren mingainetik tira baino, gauden lekutik abiatuz Orixeren bidean barneratu. Agian, bide-bukaeran, elementu gehiago izango dugu iritzia luzatu ahal izateko. Joanean, jaso ditza-gun beste iritzi orokorrago batzuk.

Ez zen Orixe izan *Eusko Olerkiak* bildumako poeten lan saritu nahiz ez-sarituak, oro har, kritikatzeko bakarra. Bazen beste kritikari bat ere, ageritik adina itzaletik ari-tuz, kritika literarioaren zereginean egiazko gidaritza zeramana, gaur egun, nolabait esateko, “ofiziala” deituko geniokeena. Aitzol zen hura, bi bilduma ospetsu haiei hitzaurreak jarri zizkien huraxe bera. Honek, esan genuenez, zimentarritzat jotzen zuen olerkigintza euskal berpizkunderako plangintza nazionalaren barruan eta helburu horretara heltzeko asmoak eraginda antolatu zituen, hain zuzen, olerki-txapelketa horiek.

Zer iritzi merezi izan dioten Errenteriarira aurkeztutako poesiek? Lauaxeta poeta sarituak Frantziako haize berriak dakartza, Aitzolek eskola parnasiarrean sartzen dituenak. Lamartine, Musset eta Victor Hugo erromantikoaren asmo patetiko, ilun, triste eta antzua baino egokia goa iruditzen zaio Francis Jammes, Baudelaire, Verlaine, Sully-Prudhome, Guido Mazzoni, Coppée eta Heredia

baten sentimentalismo fin, atsegin eta aristokratikoa. Ezaugarri hauek dira, hain zuzen, Lauaxetaren “Maitale kutuna”ri darizkionak. Darabilen gaia, amodioarena, jadanik Félix Arverskoak eta Verlaineek erabilitakoa da, Aitzolen ustez, horiek baino dotoreago lantzen duena. Lauaxeta da euskal poesia atzerriko beste kidekoekin konparatzeko bidean jartzen duena. Baina eskola hone-tako autoreak bereganatzean, gera bedi garbiki esana, hauengandik forma poetikoa bakarrik hartzen du, ez pentsamendua. Antzeko ildotik joanki, beti ere euskal poesia berritzeko asmoarekin, dohain bikainez hornituak ikusten ditu Lizardi eta Alexandro Tapia. Bestalde, Loidi, Txomin Jaka-Kortajarena, Zugasti, Imanol Enbeita eta Arozena, “itxaropen ugaritsuak” eskaintzen dituzten poeta gazteak dira. Poeta sagaratuen artean, Orixe baka-rrik aurkezten da eta honek, ez saria, baizik ohorezko aipua irabaziko du “Jainkoagan bat” gai mistikoarekin. Aitzolek, batez ere, sakontasuna eta inspirazioa aitortzen dizkio. Aitzolen hitzaurre honetan, bada, espresuki esa-ten zaigu nor doazen modernotasunaren bidetik: Laua-xeta, Lizardi eta Alexandro Tapia. Beste guztiak, Orixe ospetsua eta gaztetxoak, ez. Noski, Aitzol gidariaren aukerak ere hortik doaz, hots, berrikuntzarenetik.

Tolosako olerki-lehiaketan, Lizardi sarituak, “Urte giroak ene begian” izadi-gaiarekin, euskara zaharra arro-pa modernoaz janzen du. Inorengan inspiratu gabe, argumentua nahiz adierazpen estetikoa barru-barrutik sortzen zaizkio. Zehaztasuna eta sintetikotasuna ditu ezaugarri haren bertsoak. Oro da poema horretan berez-kotasun eta modernotasun: “Este bien cribado argumen-to embellece las estrofas. Los versos son sobrios. Ni en el asunto, ni en los versos hay nada superfluo. El laconismo del argumento y de la forma dan sensación del genio sin-tético del euskera. Tan magnífico y escogido como el argumento es el estilo. Es peculiar y característico, como

cuadra a la manera de ser de la raza. Pero no se confunda la sobriedad con la pobreza. Hay riqueza de imaginación e ingenio. Nada de metáforas y símiles manidos. Todo es originalidad y modernidad". Ez da ezer falta, ez dago ezer sobera. Hizkuntzari dagokionez, ordea, esanetan labur eta ideietan luze delako, ulergaitz egiten zaio irakurleari. Baina akats hori ez da gertatzen Lizardi esanetan labur eta ideietan luze delako bakarrik, funtsean eta bereziki, euskara behar bezala ezagutzen ez delako baizik. Horregatik, euskarari, baldin berau aberastu eta eraberrituko bada, hortik pasa beste biderik ez zaio gertzen. Aitzolek, bada, ezinbestekotzat dauka euskarak ulergaitzasunaren zailtasun hori onartu beharra. Bestalde, Lizardirekin kontrakarrean, Txomin Jaka-Kortajarena poeta jartzen du, gaien aukeran nahiz hizkuntzaren erabileran erabat herritarra dena. Bera da, Zalduby eta Zerbitzari poeta herritarren eta Xenpelar eta Bilintx bertsolarien tradizio bukoliko eta satirikoa osatuz, eskola klasikoa ondoen errepresentatzen duena. Gero datoz, hirugarren sailean, Tapia-Perurena eta Jauregi poetak, Aitzolek erromantikoak deitzen dituenak eta, azkenik, Tomas Agirre, Manuel Lekuona, Bedoña eta Zubimendi non eta nola sailkatu ez dakienak. Inon kokatzekotan, ordea, azkenekoen artean kokatuko lituzke.

Laburtuz, Tolosako Olerki-Txapelketan, hiru joera bezala ikusi bide ditu: bata Lizardi irabazlearena da, modernoa, atzerrikoen eraginik gabe bere harrobitik nortasun handiz ari dena eta hizkuntza biziki lantzen duena; bestea Jaka-Kortajarenarena, klasikoa, mezuaren nahiz adierazpen estetikoaren aldetik guztiz herritarra dena; hirugarrena Tapia-Perurena eta Jauregirena, erromantikoa, sentimentalismo eta irudimenaren ukituak ezaugarritzen duena.

Aitzolen bi hitzaurre horiek irakurri eta gero, oro har, zer esan dezakegu? Ez du sailkapen zehatzik egiteko

asmorik, baina ohartzen da joera desberdin nabariak ematen direla. Gauza garbia da, batetik, Lauaxeta eta Lizardi direla modernotasunaren aukera egiten dutenak, hura amodio-kantaria eta hau izadiarekiko sentibera; bestetik, Orixe eta Jaka-Kortajarena ditugula klasikotasunari eusten diotenak, hura mistiko eta folklorzalea eta hau bukoliko-satirikoa; azkenik, Jauregi maisua eta beronen segitzaileak dira hirugarren joera erromantikoa lantzen dutenak, bereziki lirismoari lehentasuna emategatik nabarmentzen direnak. Zaku ipurtandi honetan sartzen ditu poeta gehienak. Azterketa honetan ez da egiten traeta hertsiki literarioaren eta hertsiki linguistikoaren arteko bereizketarik. Hala ere, antitesi moduko zerbait ikusi ezinik ez dago, adibidez, Lizardiren eta Jaka-Kortajarenaren artean: hark euskara landua baina ulergaitza darabilen bitartean, honena herritarra eta erraza da. Komeni zaigu bi hizkuntz mota hauek gerorako oso ondo bereizita gordetzea.

Barrensorok, 1933ko “Gure olerkariak” artikuluan, bitan sailkatzen ditu *Eusko Olerkiak*-eko bigarren tomoan datozen poetak: “Lizardi’tar Jabier esi batean bakarki. Tinkotasunaren billa larrian dabillena. Mamitsu, giar, labur. Gero buruzkatuko ditugu olerki oetako zenbait banaka. Gañontzekoak alboko barrutian muetatu bearrekoak ditugu. Laburtasunaren axola larririk ez dutenak. Goi-arnasa itz-ugolketa ixurtzen digutenak. Yori, ganzdun, ugari”. Hemen egiten den sailkapena, errotikoa da: Lizardi eta besteak. Bi hauetatik nor nagusitzen den erabakitzen izerdi alferrik bota gabe, joera biak landu beharrekoak iruditzen zaizkiola esatera mugatzen da: “Jaso beza nork xinta biotzak aizatzen dion eran. Guzietakoak bear ditugu elertian, nareak eta biziak. Paketsuak eta biurriak. Burutiak eta bioztiak. Euskararen arrobi-muinera jo bezate guziak, orra atik. Mueta askotako izarrak edertu bezate gure elerti-zerua”. Aukerak oro izan daitezke

era berean bidezkoak, baldin *sophrosine* aipatuaren legea ahalik eta ondoen betetzen bada, batere erraza ez dena. Dena den, lirika lantzeko, beharrezkoagoa ikusten ditu laburtasuna eta tinkotasuna hitz-jarioa baino. Bost poetok aipatzen ditu bakarka: Lizardi, Loramendi, Alexandro Tapia-Perurena, Txomin Jaka-Kortajarena eta Luis Jauregi. Lehenengoa zaio “irakasle jaun”; baina, lehen esana errepikatuz, gogoraziko du idazleak, norberarentzat ez ezik, irakurlearentzat ere idatzi behar duela. Orixeren euskara, hain zuzen, horixe da: adigarria bai, baina ez adieraza.

Orixen Tolosako olerki-lehiaketan epaimahaiko izan genuenez gero, ezagunak eta ondo aztertutako zituen hara bidalitako lanak. *Eusko Olerkiak* bilduma osoari buruzko bere iritzia 1932ko abuztuan agertzen du, hirugarren norgehiagokan Loramendik Hernanin lehen saria irabazi eta gero, 1932ko udatik aurrera lau artikulu argitaratuz. Ikus dezagun zer pentsatzen duen txapelketa hauetaz eta zer, orobat, horiei buruz argitaratuak izan diren kritikez. Noan zatika, puntu asko ukitzen baititu, berak ohi duen bezala, era aski anarkikoan, gainera.

Lehenik, hastapeneko “¿Bide onetik al goaz?” artikuluan dakarrenez, lehiaketa hauek, orotara hartuta, ondorio bikoitza ekarri dute: batetik, epaimahaikoen erabakiek haserreak sortu dituztela idazleen artean, Orixek dioenez, “ez baita bakoitza baino oberik”; bestetik, ordea, emaitza ederrik ere ekarri dutela, kasurako Lizardiren poesi liburua. Orixen alderdi positibo honekin gertzen da, batez ere.

Bigarrenik, kritika alderdi hertsiki linguistikora bidegabeki mugatu delakoan dago: “Gure orain arteko irizketa edo kritika, euskera ona, txarra, argia, illuna, ta beti bat izan da. Izkuntzaz bestetaz ez al du iritzirik eman bear artara asten danak? Ori azken azkeneko gauza da”. Orixek zehazten duenez, auzitan dagoena euskara landua

da, zenbaitek euskara “landuegia, zailegia, ilunegia” omen darabilela salatzen baitu. Judizio honi gehiegizko sinplismoa deritzo Orixek: a) ez du uste euskara landua- ren aukera ez bakarra eta ez hegemonikoa denik, zeren, hizkuntza igoagoa darabilten Lauaxeta, Lizardi eta Bedoñaren alboan, hor baitaude, besteak beste, euskara erraza egiten duten Jauregi eta Jaka-Kortajarena ere eta, zentzu honetan, ez du uste poeten herriarekiko harreman guztiak etenda daudenik; b) euskara erraza zer den ondo mugatu beharra dago, zeren, segun eta zer-nolako gaiak –arruntak ala igoak– iraultzen diren, halakoak izango baitira erraz, argi eta zehatz idazteko zailtasunak ere; zentzu honetan, euskara zailagatik salatua izan den Lizardik berak ere, gaiaren arabera, gauza errazak idatzi ditu prosan nahiz poesian eta, bere ustez, “inork ez errezagorik ere, ta bai zailagoak ere”; e) euskara landuan zein euskara herritarrean idazten dutenak behar dira, biak, “errez-zaleak eta zail-zaleak, obeki esan gai zailak, al bait, errez adierazten dituztenak”, alegia. Irizpide garbia, zehatza eta argia erakutsi zuen. Kritika hau, bigarren puntuari dago- kionez zehazki, zuzenean Aitzol, Barrenso eta konpai- niaren kontra doala iruditzen zait, horiek izan baitziren Lizardi hegi horretatik salatu zutenak. Orixek, nik uste, nahita dakar Lizardiren adibidea.

Hirugarrenik, jadanik aipatuak eta aztertuak ditu- gun literatur irizpideak azaltzen ditu, betikoak. Adime- na, bihotza eta irudimenaren arteko oreka eskatzen du, poesian agintaritzan lehen ahalmenari aitortuz: “Gizonak beuka beti adimena zuzendari ta nagusi. Iduripena ta naimena (edo biotza) bi gurgil bezela izan bitza. Elka- rrekin ioan bear dute. Ez aurrena edo alde batetik bat, eta gero atzetik bestea, oin-aldaka edo oin-baldarka beze- la. Bide-makoren batean edo bestean ba liteke gurgil ba- tek bide luzexagoa egin bearra, baina batean bioz eskuarki”. Lirikan, alabaina, ez du oker handirik bihotza



nagusitzeak. Orixek akats bi ikusten ditu aztertzen ari deneko poesia horietan, aipaturiko oreka harmoniatsua haustetik datozenak, hain zuzen. Bata da hiru ahalmen horiek ez direla batera ari, gurdiaren bi gurpilak bezala, neurritz, alegia. Hemendik dator desoreka, Orixek errapearen konparazioarekin esplikatzeko duena: “Poeta deritzaien orien biotzak alde-ia dauka: erro batetik eraia edo esne-kolpea dularik, besteetatik antzu agertzen da”. Bestea sentimendua oker ulertzetik datorrena da, zentzu negatiboan bakarrik erabiltzeko ohitura baitago. Bihotzeraginak, izan, nahigabezkoak zein pozezkoak izan daitezke: “Ba dirudi, ‘sentimiento’ diotenean beti ‘sentimientopena’ aditzen dutela: naigabe-aldia. Ez; biotzari aldi askok eragiten dio; naigabeak bezela pozak eta itxaropenak ere. Ta poza ere lirikarako gai da. Erderazko itz orrek nasi ditu asko”. Tapia-Perurena, esaterako, sentimendua zentzu malenkoniatsuan erabiltzen duen horietakoa da, negartia. Eta sentimendu beraren adiera positiboaren adibidea, aldiz, Lizardiren “Oia” poesian aurkitzen du.

Laugarrenik, sarrerako iritzi orokor horiek abiapuntzat ezarri ondoren, poeta batzuk banan-banan pasatzen ditu kritikaren galbahetik. Batez ere, bi ditu begiz ederretsiak: Lizardi eta Jaka-Kortajarena. Lehenengoa lan luzeago batean aparte lantzeko utzi eta, honi artikulu monografikoak eskainiko baitizkio, berastegiarraren poesia satirikoa aztertzen du “Bide zarretik” artikuluan. Tolosako lehiaketara bi bidali zituen, “Gure astoak” eta “Amandrearen ollo aldra” izenekoak, Orixeren gusturako bikainak zirenak: “Biak dira bikainak, erriko arrobatik atereak. Gatz-ozpina ugari du bietan, eta oraindik argitarra ez ditun zenbait olakotan. Bertso ornituak ditu eskuarki, esaera ta izkuntza errian bildua; irria ezpainetan, zipoa mingainean”. Sarirako ere, haren “Gure astoak” proposatu zuen beste epaimahaikideen kontra, horregatik Lizardiren “Urte giroak ene begian” gutxietsi gabe,

noski. Orixek berak inolako espanturik gabe esaten du Tolosako poesi lehiaketan Txomin Jaka-Kortajarenaren aldeko botoa eman zuela. Non esango eta, Lizardi defendatuz egiten duen “Crítica menuda” artikuluan, hain zuzen: “Me dirá que quién me llama a este pleito. Sencillamente le he de responder que fuí del Jurado, y-pásmese usted- que aunque salgo a la defensa de la persona y de su manera poética, fuí el único que le dió su voto en contra, como verá usted en el artículo siguiente. Haciendo notar, sin embargo, que eliminando, eliminando, juzgué premiabiles la otra y la de Lizardi”. Beste kritikariak ez ziren geratu Orixeren aukera hori azpimarratu gabe. Aitzolek badakar hori “Las estaciones son floraciones de poesía” hitzurrean, izenik eman gabe, noski: “Alguien del jurado calificador del Certamen designó a la poesía ‘Gure Astoak’ como la más digna de ser premiada. Lauaxetak izen eta guzti jakinarazten du ezkutukoa: “Epai-maiko izan nintzan... nire ustez, onenak ziran Lizardirenak eta Jaka-Kortajarena jaunarenak. Baiña lenengo maillan zan Lizardirena. Au uste izan eban Mourlane Mitxelena jaunak ere. Orixek oster, Jaka-Kortajarenari bere baietza egin eutson”.

Orixeren erabaki hori zela bide, idazle batzuek uste izan zuten Lizardiren kontrako jarrerari eutsi ziola Lauaxetaren *Bide Barrijak* liburuaren inguruan sortutako eztabaida famatu hartan. Baina ez da egia, zeren, Luzear jaunari ihardetsiz, gogo onez onartzen baitu Lizardirena saritua izatea, 1932ko aipu honetan datorren bezala: “Or daude olerki guziak liburu batean, edozeinek ikusteko moduan. Ederrena geroak agertuko du, maiekoak utsegin ba lute ere. Neronek eman ez ba nion ere, nik ez uste bidegabe aundirik egin zanik”.

Lehen epealdi honetan ere, Orixe Lizardi-zalea da. Eta hala bada, bidezkoa da galdetzea zergatik lehenesten duen Txomin Jaka-Kortajarenaren poesia Tolosako lehia-

ketan. Ez, nik uste, berastegiarra zarautztarra baino poeta garaiagoa delako, seguru asko darabilen edergaiaren alde-  
tik –eta, agian, hizkuntzaren aldetik–, harena egokiagoa  
iruditzen zaiolako baizik. Badirudi Orixek maiteago  
duela gai bukolikoak berekin daraman zipoa –Jaka-Kor-  
tajarenak maisuki lantzen duen alorra, hain zuzen–, Li-  
zardiren izadi-gai lirikoa baino. Zergatik? Funtsean, ba-  
tetik, sekula modatik pasatzen ez den generoa delako,  
eta, bestetik, genero honek euskal literaturan zehar tradi-  
zio aberatsa duelako. Ipar Euskal Herrian, bereziki, Eli-  
zanburu, Zalduby, Otxalde, Ibararte, Barbier, Otxobi,  
Zerbitzari eta beste hainbatek asko landu dutena da.  
Euskaldunaren izaerari poesi mota hauxe doakio ondoen:  
“Bai, noski, euskalduna zipolari betikoa ta asper eziña  
da. Gure baserritarrik motelenak ere, zearka, saieska-  
maieska, ta itz egoki batez esateko, zipoka ari bear du nai  
ta nai ez”. Proposatu ere, horregatik proposatzen du Jaka-  
Kortajarenaren bidea, aukera honek irakurlearen interesa  
errazago pizten duelakoan, hain zuzen: “Astoak asto di-  
ran arte, olloak ollo diran arte, ta amandreak amandre  
diran arte, bertso oriek iraungo dute. Or ez dago moda-  
rik; betiko moda asmatu du Jaka’k eta ori egin bear luke  
edo ortara io bear luke olerkari ta antzelari danak”. Ori-  
xeren ustea zen –geroko historia hurbilak ezetsiko duena  
*a priori* merke samar hori–, euskal herritarraren senti-  
mendua gehiago kilimatzen zuela gai bukolikoak paisaia-  
renak baino: “Lur-inguruak, erderaz esan, ‘el paisaje’ ez  
du erakartzen gure herritarra, ez dio kilika eragiten beste  
erriei edo gizon ikasiei bezela, beintzat”.

Gaiaren aukeran, beraz, Orixe erabat klasikoa da,  
tradizionala. Horregatik, Jaka-Kortajarenaren antzera,  
bestek ere bide zaharretik joatea nahi zuen. Orixeren  
logikan, poesi gaiak erabakitzen du zer den egokiena eta,  
ondorioz, zer onena. Edertasunaren piramidean, ederta-  
sun absolutuak jotzen du gaina, bera da azkena eta ezin

goragokoa. lkuspegi honen arabera, gogoeta mistikoaren xedea profanoarena baino igoagoa baita, izan, horregatik ederresten du hura. Era berean, gai profanoaren barruan, irakurle euskaldunak gai bukolikoa bereago baitu izadia-rena baino, arrazoi horrexek berak darama hura lehenes-tera. Lizardi baino harago, lirikan ere bera zela onena aitortu zuenean, aita Santi Onaindiak Orixeren aitortza horri harrokeri puntua edo horrelako zerbait hartu zion. Jose Maria Aranalderen interpretazioan, ordea, esaldi horrekin adierazi nahi zuena ez zen izan bera Lizardi baino liriko hobea zela, baizik eta zerabilen gai mistikoak ematen ziola bere lirika garaiagoa eta, ondorioz, hobea izateko bidea. Era berean, Jaka-Kortajarenaren “Gure Astoak” lehenesten badu eta ez Lizardiren “Urte giroak ene begian”, gaiarengatik da, batez ere. Eta gai bukoliko honetan, Lizardik zartako pixka bat erakusten badu ere, gaitasun satirikoan talentu zorrotzagoa aitortzen dio Jaka-Kortajarenari, nahiz eta honek ere zertan hobeturik balu-keen: “Norbaitek egiz esan dio zarpil xamarra dala zen-bait aldiz. Egia ez da txukun-zale, ez ta bear ere, lirika deritzaion ortarako bezanbat. Biotz-olertian ondo dago alik txukunena izatea. Baina irri-olerti edo zipoketa ortan, zarpiltxagoa ere ontzat eman diteke. Baldar ager-tzeko ez diot nik aginduko. Saia ditela, aldiz, txukunago agertzen, al ba du”. Bestalde, gai bukoliko-satirikoak ondo taxutzeko, nahitaez nekazal gizartekoa izan behar du poetak, hiritarrari arrotz egiten baitzaio bizimodu hori: “Olerkari uritarrak ez dezake olako gauzarik asmatu, ez baitu bizimodu ori erri-sumeak bezela ikusi”. Honetan baduke abantailarik Jaka-Kortajarenak, zeren, Lizardi hiritarrari ez bezala, hari baserri-girotik baitatorkio bere inguruan arnasten duen oro.

Luis Jauregik, zilegi bazait maila konparatiboan min-tzatzea, oraindik Orixek baino gorago jartzen du Jaka-Kortajarenaren poesia herritar, bukoliko eta jostalaria.

Genero gaitz hori lantzeko ezohiko dohainez jantzia kausitzen du “Poesías vascas” izeneko artikuluan: “Le creíamos, y hoy le creemos con mayor razón, dotado de cualidades poco comunes para el cultivo de esa poesía bucólica de fino humorismo, eminentemente popular, pero de gran sentido artístico”. Orixe bera baino urrutiago doa Jauregi, dioenean trebetasun-mota horretan ez dela inor hura hautsiko duenik: “Creemos sinceramente que no hay entre nuestros poetas contemporáneos quien en este género de poesía bucólico-humorística le aventaje”. Orixeren aholku bera luzatzen dio: euskararen idiosinkrasiari hain ondo datorkion poesi mota hori onduz segi dezala. Bestalde, Zubimendiren *Aberrri Oyuak* poesi liburuaz diharduela, bi joera bereizten ditu euskal literaturan, hots, mezua tinko-tinko ematen dutenak eta hitzugaritasunari lotuago daudenak: “La de aquellos poetas que rinden fervoroso culto a la densidad vasca de las ideas en el verso, y la de aquellos otros que tienen por norte de sus composiciones el encuadrar sus sentimientos e imágenes en el marco de la más luminosa claridad aun a trueque de verse motejados con el estigma de ampulosos y amplificadores a estilo de la mayor parte de los poetas de lenguas románicas”. Gutxi-gorabehera, Aitzolek zioena dio. Lirikan, halaber, hiru maila bezala ikusten ditu: bertsolariena, poeta ikasiena eta, azkenik, bien artean kokatzen direnena. Bietatik zerbait hartu eta erdibidetik dabilen horietakoa da, hain zuzen, Zubimendi.

Orixek, aipatu berriak ditudan Lizardi eta Jaka-Kortajarenari buruzkoak at utzita, beste poeta guztiak “Euskal *Eusko Olerkiak*. Azkena” izeneko artikuluan jorratzen ditu. Baina lanaren erdia eta gehiago Luis Jauregiren lumatik egina hartzen du, honen kritika bere egiten baitu, ondoko aipu honetan zehazten denaren arabera: “Bigarren Eusko Olerki”etako beste olerkarietaz eman du bere iritzia erderaz Jauregi jaunak, eta neri lana kendu dit

ortan, arekin batera bainago Zubimendi'z, Lekuona'z, Muxika'z eta Tapia'z esaten ditun gauzetan. Tapiari dago-kionez, nere aldetik argibide bat eman bearrean nago, ta Agirre'tar Toma'z diotenik (sic) zertan okertzen naizen eta zergatik okertzen naizen adierazi bear det". Aipuan datorrena osatzeko, esan dezadan Luis Jauregik hiru artikululu idatzi zituela *El Día* egunkarian, orduko sorkuntza poetikoaz ikuspegi orokorra azalduz. Baina hemen, goiko aipuari atxikiz, Tapia-Perurenaz eta Tomas Agirrez zertan eta zergatik okertzen den adieraztea dagokigu. Luis Jauregik dioenez, Tapia-Perurenaren "Olerkariaren gaua" Musseten "La nuit de mal" en imitazio nabaria dela dioen kritikaria ez dabil zuzen, bien artean leize handia tartekatzen baita. Hau esatean, noski, Orixek bere liburuari egindako kritika du gogoan.

Orixerentzat arazoa, goian aipatutako "Euskal *Eusko Olerkiak*. Azkena" artikuluan dioen bezala, besteen antzera egite hori ulertzeko eran datza imitazioaren muina. Kontzeptu hau ez da mugatzen bakarrik halako gaietan, halako ideietan eta halako bertsoetan, beste autore baten antza edukitzeraz. Gizakiak gizakiaren antza gorputzean bezala izan dezake gogoan ere. Hain zuzen ere, poesiarion barne-giro horretaz dihardu Orixek imitazioaz ari denean: "Zunda edo itxi-usaia luzaro artu dutenak, margoan edo kolorean elkarren antza izan oi dute. Ori gertatzen zaie zenbait olerkariri, ta orren aurka ari naiz ni, bestelako antzaz axolik izan gabe. Au ez da batere ohea. Itxi-usaia eta ilen eguneko iluna beti maite dutenak ere izaten dira". Ia sistemaz tristezia azpimarratzean legoke, beraz, imitazioa Tapia-Perurenaren nahiz Luis Jauregiren kasuan. Lehen esan bezala, oraingoan Lizardiren eradura etorritz, bizitzaren zoko ilunak ez, baizik eta alaiak deskribatu behar dira. Inorena imitatzean, bitez erakusle poeta osasuntsuak: "Negarrezko ibar edo zoko oriek utzi bitzate gure olerkariak, eta besteren batengandik zantzua

artu nai dutenean, bila bitzate osasun oneko gizonak”. Eta gure olerkariak esatean, ez Zubimendi bakarrrik, kasu honetan Luis Jauregi ere luman dauka, berak lehen hainbeste goratu zuen huraxe bera, honetaz haxe idazten baitu: “Nere ustez, eta zirikatze orde esaten diot, egin dun lana baino ohea ere egin dezake”. Bistan da, sentimenduaren zelai oparoan, Orixek ez du maite poesia elegiakoa, ez erotikoa baino gehiago. Azken batean, berriro, orekaren legea aplikatzen du.

Bestalde, Tomas Agirrerri dagokionez, Luis Jauregiren ustez, hura estilo erraz, garbi eta gardenean idazten duena da, bertso harmoniatsuak osatzen dituen, heziketaren aldetik klasikoa eta, inspirazio handikoa ez den arren, euskal literaturari emaitza onik ekar diezaiokeena. Orixerentzat, euskara ederra duen arren, ez du hain erraza eta hain txukuna; inspirazioan, ordea, ez dio liburuko inori ezer zor. Gramatika, beharrik gabe, gehiegitxo zapuzten duelako kritikatzten du Orixek Barrenso poeta: “Etzait iduri, itz askatueta euskera ain errexu dunik; ez beintzat ugari bezain errexu. Bertsoak ere txukunak eta utsik gabeak omen ditu. Ez ta. Askotarako makarrak ez ba ditu ere, bat askotan du beintzat: adarrean orde ‘adarran’, negarrean orde ‘negarran’, eta olakoz beterik dago. Bestela euskera ederra du. Bearrenik dana, olerkariz alegia, liburu ontako geienak ainbat edo geiago ere ba du. ‘Sin grandes arrestos de inspiración’, besteekin berdinduz, beintzat, etzait iduri ondo esana dagonik”. Barrenso kritikariaz, berriz, lehen esana aski bedi.

Kritika-saio honen barruan, Emeterio Arresek duela hogeitun urte argitaratutako *Nere bidean* liburuaz ere agertzen du bere iritzia. *Eusko Olerkiak* bildumako bigarren liburuan badator tolosarraren poesia bat, “Nere gogozko baitan” izenekoa, baina nahiago du liburu hori kritikatu, duen interesagatik. Haren poesia goiz-ihintzaren parekoa iruditzen zaio, goxoa eta leguna: “Bai olerkari goi-ku-

tsuzkoa, etorriduna ta etorrizkoa edo naturala. Bai euskera garbia, ugaria, egokia, aukeratua egun aietarako, ta gure otarako ere. Lan-nekerik ere ez du gainera agertzen”. Euskara aberatsaren jabe izateaz aparte, badu beste meriturik ere, Zubimendi eta Jauregiren urri aurkitu duena, hain zuzen. Usmatu duzu honez gero zein: negarrezko ibar honetan, bihotzaren isuria alde bietara, poza-ren itsasora bezala zoritxarrenera, berdin banatzen ohar-tuki saiatzen dela. Errazago da negarrari kantatzea, barrearri baino. Zailean neurtzen da trebetasuna. Akatsik aipatzekotan, gain-orrazketa baten premia aipatu beharko litzateke, heziketa handirik ez dutenengan ohikoa izaten dena: “Guzia esan, iñausi apur bat palta zaio... oian edo baso batean, botatzeko zuritzen diran ondoak aukera oi dituzten arren, txaraka gazteak ez dute itsusi ematen. Obe litzake guzia aukerakoa izatea; baina ba dira zenbait baso, erabat xautu-bearrekoak ere, berriz ieki ditezten. Itzez bilduxegoa izateak ez lioke kalterik egingo, biotza ixuritzen baita gutxixegoz ere, ta irakurriz ta irakurriz, zirrara aundiagoa ematen baitu”. Poeta tolosarra, azaleko akats hauen gainetik, beti agertzen da poesi gurina dariola. Gai atseginetan ere kantari bizkor dena biziki estimatzen du Orixek, kasu honetan Emeterio Arrese bezala. Honen poesi liburuaz lehen artikulua hori argitaratzean, segidan beste poeten lanak kritikatu zezaten asmatzen zen Orixek. *El Día*-koek, ordea, alto bota zioten eta, haren orde, egunkarirako beste kritikari bat izendatu zuten.

Luis Jauregi poetak, aipatutako bere kritikan, esaldi labur hau eskaintzen dio Loramendi sari-irabazleari: “El joven capuchino Joaquín de Bedoña, consagrado ya como poeta de primera fila en el certamen último de Hernani, nos presenta en este tomo un pequeño poema de brillante inspiración, rica en imágenes y en sentimientos, caldeado en un simpático entusiasmo juvenil”. Bedoña auzoko poeta leniztarra 1933ko martxoaren 24an



zendu eta gero hurbiltzen da Aitzol berarengana, “El poeta Juan de Arana” artikulua bidez. Joan-etorri biografiko interesgarria egin ondoren, kaputxino gaztearen poesia zuhurki baloratzen du, poesiagintzan zehar izandako eboluzioaren ñabardurak azpimarratuz. Loramendiren poesiak, inoren antzik izatekotan, Jauregirena duke gehien-gehienik. Eta poesia onenen artean, “Arrantzalien arrats otoitza” eta “Barruntza leyoan” aukeratzen ditu, biak poesi sariketetara aurkeztu zituenak. Kritikariak, oro har, honela juzgatzen ditu: “Es esta poesía premiada, esencialmente mística, así como la anterior era totalmente lírica. ‘Arrantzalien arrats otoitza’, es lo que brota en el alma de ‘Loramendi’ al conjuro del paisaje y del misterio del mar, donde a brazo partido lucha el ‘arrantzale’ vasco. Y ‘Barruntza leyoan’, es el canto interior del alma al conocer al Amado. Todo lo que esta poesía refleja es interior, atañe a los más recónditos y ocultos senos de su conciencia. Todo es espiritual. Pero lo espiritual está concentrado dentro del alma del poeta que sólo piensa en sí al verse querido por Aquel a quien él ama”. Bigarren poesia sarituari lehenengoari baino askozoz hobea deritzo. Poesia horrek ere, irudietan nahiz ideietan aberatsa den arren, ez du batasunik aski bere osotasunean. Euskararen erraiak Lizardik bezain sakon eta ongi ezagutzen ez dituen arren, maisuki erabiltzen du, naturaltasunez eta freskotasunez, aditz sintetikoa dotore tartekatuz eta hiztegi ugari-ugaria ereinez. Orixek oso berandu aztertzen du Loramendiren poesia, honen *Olerki ta idatzi guziak* bilduma argitaratzeko hitzaurrea eskatzen diotenean, 1960an, hain zuzen. Hitzaurre honek, egia esan, ez du ezer galtzekorik, orain bezala bizialdiaren azkenaldian ere, haren literatur irizpideek ezertan aldatzeke segitzen baitute. Ask duzu irakurtzea nola ematen dion hasiera azterketari: “Iru doai bear ditu olerkariak ona izatekotan: adimena, irudimena, biotza. Lenengo ortaz azturik dabil aspaldion gaztedia

eta ortatik oinbeste eketx edo aur gaizki jaiok. Olerkariaren doai bereziak edo berekiak idurimena ta biotza esan oi ditute, ta ez noa orren buruzki; baiñan oraiñ-aldiko olerkietan burua dabil eskas geienez”. Betiko leloa errepikatzen du hemen ere: irudimen handi baten jabe izateak ez duela balio, baldin neurritz erabiltzen ez bada, bihotzaren jarioa ere tamainaz isuri behar dela, irakurlearengan osoki hustu gabe, etab. Loramendik, Orixeren ustez, baditu hiru dohain horiek: “Ba-du Loramendik adimena, ba-du idurimena, ba du biotzean sua”. Poesietan hautemangarrienak, batez ere, “Barruntza leyoan” eta “Gure Arrantzaleak” zaizkio, azken hau hobea lehenengoa baino. Honi, ahapaldi ederrak badituen arren, poesia mistikoetan beharrenik den elementua ikusten dio eskas antzean: batasuna. Azken balorazio honetan, elkarren berri jakin gabe seguru asko, Aitzolekin bat datorkigu Orixe. Poesia onenetsiak ere baditu bere maketsak, hots, dozenerdi bat pasarte ilun, bi edo hiru eratarata uler daitezkeenak. Haren euskarak txundituta uzten du: “Ugaria ta ederra. Arrigarri da, gaxte gaxte komenturra sartu, ta andik irten ez, eta oinbeste euskera nola irakurri zuun, eta buruan eduki”. Ez handi-txikian, ez ezeretan, Orixek ez du inorekin konparatzen Loramendi.

## VI. Lizardiren *Biotz begietan* (1933)

Lizardiren liburu honi aparteko trataera ematen diot, jauzi kualitatiboa suposatzen duen saio estetiko berri baten abiapuntutzat hartua izan baita. Hemen aparte aztertzen bada ere, duen garrantziagatik noski, honi egiten zaion kritika *Eusko Olerkiak* bildumako beste taldekideei egiten zaienaren barruan kokatu behar da.

*Biotz Begietan* argitaratzean, “Un gran poeta vasco” deituz agurtzen du Luis Jauregik haren egilea *El Día* egunkarian, 1932ko ekainean. Liburu hau, artikulugilearen aburuz, ez da edonorentzat egina, ez jende arruntarentzat, ez poesiaren barne-zirrarak dastatzeko gai ez direnentzat, nahiz hauek ikasiak izan beren gaietan, ezta literatur gustu edo hizkuntz ikuspuntu hertsiegietan murgilduta dabilzantentzat ere. Liburu hori bide-urratzaile da adierazpen poetikoaren baranoan, gutxiengo baten-tzat egiten dena. Euskal literaturara dakarren berritasunagatik, horrexegatik bereziki, txaloka onartzen du abangoardiako liburu hau: “Es libro de vanguardia, grito de un corazón de juvenil empuje, nacido entre ansias de superación y vivos anhelos de abrir nuevos horizontes a nuestra balbuciente poesía. Por esto, y por los numerosos aciertos que el libro contiene, sólo plácemes merece su

autor. Porque entiendo que, las audacias innovadoras en la poesía, como en el arte en general, lejos de perjudicar, benefician grandemente, por lo mismo que al romper antiguas rutinas y crear nuevos moldes artísticos, dejan sedimentos de bellas iniciativas, que, más tarde o más temprano, llegan a florecer en el campo del arte con general aplauso”. Hala ere, eta ohar hau jaso beza irakurleak oso gogoan, ez da egoki poeta guztiek bide horretatik jo dezaten. Ez da egoki, usmatuko zenuen bezala, horrelako poesi mota, hain igoa, irakurle-multzo handiarentzat ulergaitza gertatzen delako. Luis Jauregik ez du etenik nahi herri xehearekin: “No es de creer, que todos nuestros poetas se decidan a lanzarse sin reserva, por la ruta abierta por Lizardi, ni me parece conveniente. Sería divorciarse de una gran masa de lectores aficionados a la poesía de fácil comprensión, hoy por hoy imposibilitada a seguir los altos vuelos de tan encumbrada dicción poética. Desgraciadamente hay muy pocos lectores entre nosotros capaces de extraer el néctar delicioso que en estos versos se encierra, sin verse precisados a acudir casi de continuo al diccionario o la traducción castellana que les acompaña”. Ez bakarrik irakurle xehearentzat, idazlearentzat ere neke egiten da liburu horretako kontzeptu poetikoak ulertzea. Eta hori hala gertatzen da, batzuetan, hitz gutxitan ideia asko estutu beharraren beharrez, esaldia gehiegi laburtzen duelako; beste batzuetan, orduko literaturan alboratuta eta, beraz, ahaztuta zeuden hainbat euskal hitz eta esaera maiz erabiltzen dituelako; beste askotan, berriz, darabiltzan ideia poetikoak eta gogoetak euskara zaharrean sekula usatu gabekoak direlako. Zailtasun hauek, ordea, ez diote meriturik kentzen liburuari, eransten baizik. Jenuari mirespena zor zaio: “Salir de los caminos trillados hasta el presente por nuestros más o menos afortunados poetas para adentrarse con ánimo esforzado en las vías laberínticas de arte poético y

conseguir iluminarlas con la antorcha de la originalidad artística, es mérito reservado a los grandes ingenios poéticos. Tal se nos muestra el autor de este áureo florilegio poético. Poeta de altos vuelos y de marcada originalidad”.

Luis Jauregik ere garbi adierazten du Lizardirekin poetika berria hasten dela. Berria, eta urrezkoa gainera. Autore honen pasarte horiek irakurri ondoren, iruditzen zait, berritasunaren zeruan hain zuzen, Lizardiren txapelak erraz estaltzen duela bere aitzindari Lauaxetarena. Baina Luis Jauregik, ohartuko zinenez, mugarri bat jarzen dio gutxiengo batentzat den poesi mota horri. Betoz saiakera berriak poetikan, betoz baina neurritz; beude lehengo molde klasikoak. Irakurleria da literatur irizpidea markatzen duena.

Jose Ariztimuñok izenpetuta, *Yakintza* aldizkarian, “El poeta José María de Agirre” artikulua mamitsu eta sendoa agertzen da 1933an, Lizardi hil eta gero, hain zuzen, adiskide bihotzeko zuenaren oroitzapenetan. Artikulu-bukaeran, haren beste idazlanak laster argitaratuko direla agintzen du: “La Sociedad ‘Euskaltzaleak’ editará en breve, en un tomo, la selección de los trabajos euskéricos y erdéricos de Xabier de Lizardi”. Iragarri bezala, 1934an kaleratuko ditu zendu berriaren *Itz-Lauz* eta *Umezurtz-Olerkiak* izeneko bildumak. Artikulua mantso-mantso irakurriz zoazela, jabetzen zara Aitzolek hurbiletik ezagutzen zuela Lizardi, honen artxiboko paperak eta karpetak arretaz miatuak zeuzkala, bazekiela nor zen eta, bizi izan balitz, nor izan zitekeen. Oso erretratu fina egiten du Lizardi euskaltzale eta idazlearena, kolore erdi-biografiko eta erdi-literarioan burutua. Garaikideen artean inor aipatzen badu goraki, Lizardi da hura. Euskal literaturan berpizkundea orotara hartuta, hor hiru aro jarri behar izanez gero, Aitzolek ez du inolako zalantzarik, Bernardo Etxepare eta Sabino Aranaren ondoren, Xabier Lizardi errenazentista hautatzeko. Artikulua baieztapen

irmo horrekin hasten du. Izendapen horretarako aitortzen dizkion arrazoiak osorik aldatzen dizkizut bertara, aipuaeren luzea interesaren gantzua gozatuko dizulakoan: “Aunque no ha podido perfilar en todos los detalles un nuevo período literario, sí lo ha planteado y esbozado con trazos suficientemente destacados para advertir, por mediano observador que se sea de las letras vascas, que la poderosa inteligencia y el gusto estético depuradísimo de Xabier de Lizardi ha abierto un cauce novísimo al porvenir del idioma racial. Por ello debe ser considerado Lizardi como el renovador y más afortunado adaptador del euskera a la corriente del pensamiento moderno. Esta ha sido su suprema aspiración... Así, pues, para nosotros Xabier de Lizardi ha sido el euskeltzale infatigable fomentador de nuestro idioma en el terreno de la acción, el poeta cumbre de la literatura vasca y el renovador audaz e inteligente del euskera”.

Beraz, hiru titulu bederen ematen dizkio hirugarren errenazentista izateko eskubidea izan dezan: euskaltzale nekaezina, poeta garaia eta euskararen berritzailea. Lizardi modernoa, kontuan har, zentzu linguistikoan ulertzen da, “Eusko bidaztiarena” poesiako ahapaldi batean iradokitzen duen eran, alegia, euskara zaharrari gai modernoak adierazteko gauza izan dadila opa baitio:

“Baña nik, izkuntza larrekoa,  
nai aunat ere noranaikoa:  
yakite egoak igoa;  
soña zar, berri gogoa:  
azal orizta, muin betirakoa”.

Lizardi zergatik eta zertan zen euskararen berritzailea? Aitzoli lau arrazoi hauek bederen irakurtzen dizkiot nik. Lehenengoa da Lizardik laburtasuna eta zehaztasuna landu zituela ideien azalpenean zein esaldien erabileran; bigarrena, literaturan euskalkietatik bat indartzearen al-

dekoa agertu zela, gipuzkera lapurterara hurbiltzearen aldekoa, zehazki; hirugarrena, hizkuntza bera poesi gai bihurtu zuela; laugarrena, euskal poesian, bikaintasunaren bila joanki, gailurra jo zuela. Haren poesian irudimena eta gogoeta nagusitzen dira sentimenduaren gainetik. Eta haiek ere neurritz erabiltzen ditu, euskal izaerari dagokion eran: “Parco ha sido también el vasco en sus palabras. Por lo mismo el genio del euskera tiende de por sí al laconismo en la expresión; densidad en el pensamiento, sobriedad en la forma. De esta faceta psicológica del alma vasca hizo Lizardi norma de su poesía. Usa el poeta las palabras precisas, pero hace que ellas sean las más apropiadas, las más adecuadas”. Meritu hauen jabe izaki, nork Lizardik adinako eraginik euskal literaturan? Aitzolen ustez, horrela biribil esanda, beste inork ez: “Ningún escritor, ni antiguo ni contemporáneo, ejercerá la influencia que Lizardi, sobre los futuros literatos y poetas”.

Hori eta gehiago zen Aitzolentzat Lizardi, honen gorpu hilotza lurrak estali zuen ingurugiro bero hartan. Ken dezadan gogotik tolosar kritikariaren iritzia ezertan juzgatzea, hemen beste arazo batek ekarri bainau iturri honetara. Agerian jarri dudan gauza bakarra da Aitzol, artean 1933an, lizardizale amorratua dugula. Nekez beste bat hura baino aldeztaileagorik! Hitz handiak dira, uhin haserreak bezain ausartak, hari zuzentzen dizkionak.

Luis Jauregi mintzatu eta gero dator Orixe. Lehengo ere aritua zen hari buruz, liburuari egin zion hitzaurrean, hain zuzen, Lizardik Orixeren eskutik agertu nahi izan baitzuen jendartera. Antonio Maria Labaienek esana zigun Orixe bultzatu zuela *Biotz Begietan* argitaratzera. Eta Orixe, berak xaloki aitortzen duenez, pozaren poez sentitu zen Jainkoak bera hautatu omen zuelako liburu zoragarri hori argitaratzeko eragile izan zedin. Berari utziko diot prestaketa-lanak nola izan ziren kontatzen, orduko bizipenen berritzeak lagun min zirenen harrema-

nak hobeto ezagutzeko aukera eman baitigu: “Egia esan, ni izan ez ba nintza, Yainkoak besteren bat sortuko zun; baina ni izan naizelako ez al daukat pozbiderik? ‘Etxeak bear ta bideak ekarri’, dio esan zarrak. Arentzat ontan ni ekarri nindun, eta neretzat ua ekarri zun, gero agertuko diran gauzetarako. ‘Ikusi ezak bertso-mordoxka au, argitarako gauza ote liteken’, esan zidan. Eraman nitun base-rrira, ark ekarriazita naukan baserri artara, eta astiro, goxo goxo irakurriz, ‘au diagu gizona’ esan nion nere buruari. Berela itzaurrea egin nion, eta aren andreak irakurri zun. Lenago, ‘zeron bertsoakin txoratu egingo zaizue’, esaten zunak, orain etzedukan egonarririk liburua argitara arte. Alabearrez, noizean bein Bilbaora yoan oi nintzan, andik ez baininduten oso nere eskuko utzi. Liburua artaraño ekartzea gusta zitzaidan, neronek dakidan ainbat; baiña aurrera ere enûn ondotik utzi. Gezurrik izpirik ez diot, berreun aldiz baino geiago Verdes’en lantegietan sartu nintzala ba diot. Lan asko zeukan beti bezela, ta eragin-bearra nedukan. Aurreneko irartokerrak neronek zuzendu eta bigarrenak Tolosara bialtzen nizkion. Ez al det pozbiderik aski?”. Orexako “Gogortzane” baserrian bizi, noizik behin Bilbora joan eta han, Verdes-enean, berrehunen bat aldiz agertu zirikatzailearena egiten? Bietatik bat: Orixeren pazientzia zerupearan kabituezinezkoa zen, ala Lizardirenganako lehiak ez zuen harentzat nekerik. Seguruenik, ez bat eta ez beste, bietatik beharko zuen, eta ez gutxi.

Hitzaurreaz aparte, Orixek lau artikulu eskaintzen dizkio liburuari, *El Día* egunkarian, 1932ko uztailean eta abuztuan. Egilea hil ondoan, berriz, beste bi 1933an: bata lehengo egunkari berean, bestea *Yakintza*-n.

“Lo clásico y lo moderno” izeneko lehen artikuluan, sarrera gisa, bi arazo dakartza mahai gainera. Lehenik, Lauaxetarekin izandako eztabaidara itzuli eta han erdi-eskegita utzitako mataza hariltzeari ekiten dio berriro.



“Moderno” eta “klasiko” kontzeptuak zehazkiago mugatu nahi ditu, Lizardi non kokatu erabaki ahal izateko. Klasikoa izatea zer den? Zizeronentzat zena duzu Orixerentzat ere: obra batek berez duen balioagatik, mendez mende irauten duena. Beraz, produkzio modernoari gagozkiola, klasikoa da, Antzinateko literatura klasikoaren antzera, iraunkortasunez horniturik dagoelako, modaren haizeak eramaten ez duena: “... es la escuela del *dominio* de la materia y de las facultades del escritor, administradas por una gran dosis de buen sentido. Es la escuela eterna”. Zentzu honetan, bada, klasikotasuna ez da garai bateko eskola jakin bati datxekiona, ezta neoklasikotasuna ere. Kontzeptu diakronikoa da. Zer da orduan moderno izatea? Orixek adiera negatiboan formulatzen du galdera hau. Hala ulertuta, ezin da esan literatur pieza bat moderno denik ideia edo joera batzuk lehen aldiz bertan agertzen direlako. Era berean, norbait gai jakin baten ikerketan lehena izan dela eta, ezin da horregatik moderno deitu. Ez bederen horregatik bakarrik. Berritasunak ez du mugatzen modernotasuna, berritasunak lekarkeen iraunkortasunak baizik. Hor da aldea. Honela, baldin modernoaren kontzeptua adiera positiboan ulertzen bada, klasikoa nahiz moderno esanahi bereko kontzeptuak direla ondorioztatzen da: “Lo moderno duradero, lo que resiste una crítica seria, es, como hemos dicho, lo clásico”. Orixeren hiztegi honetan, klasikotasunaren eta modernotasunaren arteko aurkakotasuna gaintitu egiten da, sinonimo bihurtzeraino. Lizardi autore klasiko ala moderno den auziak ez du jadanik zentzurik, zeren, izan, klasikoa den heinean baita moderno. Eta hala da, Loramendiren kasuan esan bezala, ohiko literatur arauak bikainki betetzen dituelako: “No por haberse educado en tal escuela, sino por coincidir con los grandes escritores de todos los tiempos en un sobresaliente ingenio, moderado por el buen juicio que preside la

acción de las facultades intelectuales y afectivas en la obra artística”. Lizardi ez genuen izan, Lauaxeta baten antzera, adibidez, irakurle amorratu horietakoa. Ikasketa-garaian irakurri zituen zati hautatuekin geratu omen zen ozta-ozta. Baina besteenetik aberastuz joateko iturriari –irakurketari– sistemaz uko egiteak lekarkiokeen hutsunea, hein batean, berezkoa duen zentzu handiak osatuko du, bere originaltasunari ezer kendu gabe: “La cuestión de la originalidad de su poesía no nos puede dar ninguna preocupación. Podrá, quizá, coincidir con otro en alguna metáfora, quizá en una alegoría, quizá hasta en una concepción, pero estamos seguros de poder decir en todo caso, es coincidencia de dos grandes escritores”. Geroztik, ordea, atzerriko iturrien eragina ikusi bide dute Lizardiren poesian. Andu Lertxundik, adibidez, Baudelaire eta Verlaineekin maila estetikoan zein tematikoan dituen antzekotasunaz hitz egiten du. Xabier Lete, era berean, frantses eta espainiar autore sinbolista batzuen eragin posibleaz ari da, zehazki Verlaine eta Juan Ramón Jiménezen izenak aipatuz.

Lizardik darabilen euskaraz ere badu zerbait esateko. Zer deritzon? Bi gauza. Batetik, batasunari buruz, Aitzolek lehen esandakoa dakar: hots, konposaketa gramatikalean lapurterara jotzen duela. Bestetik, zailtasunari dagokionez, Luis Jauregik gogorarazi duena: hots, lapurtarren antzera ideiak labur agertu beharrez, esanahia ilun geratzen dela. Baina honetan erruduna ez da Lizardi, irakurle ez-jakituna baizik: “Relaciones de composición gramatical que a un vasco oriental son familiares, tardará en entender el occidental que no conozca los dialectos. Aquí la culpa no es del escritor”.

Oro har, eta hauxe da Orixek xehetasunetan sartu aitzin ateratzen duen azken ondorioa, Lizardi literato eta idazle gisa, bietan da markakoa. Orixek intsentsuaren lurrinari dion izua edukita, ez da motz geratzen Lizar-

direnganako mirespenean: “A un mismo tiempo ha sido cultivador constante y cariñoso de nuestra lengua y de la literatura. En ésta ha sido autodidacta, y en aquella se ha aprovechado hasta de las últimas migajas que escapaban a escritores modestos o ilustrados”. Saiatuz lortzen du hain estilo gihartsu eta indartsuaren jabe izatea.

Atarikoa txukunduta, artikuluko poesia bana aztertzera pasatzen da, gaztelaniaz, hauetan liburu-hitzaurrean baino arretatsuago eta sakonago arituz. Liburuko batzuk aukeratzen ditu, ustez onentsuenak: “Oia”, “Biotzean min dut”, “Urte-giroak ene begian”, hauek egilea bizi zela argitaratuak; “Arrats gorri”, “Asaba zarren baratza” eta “Eusko-bidaztiarena”, hauek hura hil ondoren. Artikulu barruan, ohiki, bakoitzari buruzko judizio baloratzailerak ematen du. Honela, azkenerako, Orixek Lizardiren poesia horiei buruz duen iritziaz ikuspegi orokorra izatera iritsiko gara.

“Oia” poesiako ideiak ia ahapaldiz ahapaldi deskribatzen ditu “La cama” artikuluan eta, beste nonbait ere esana diguna errepikatuz, arras umoretsua, espirituala eta egiazalea atzematen du 23 urteko Lizardi gazteak egindako pieza hau. Batez ere, egi zirrara barruraino sartzen duen horietakoa da: “Cierto que ‘Lizardi’ no es aún (1919) el poeta de ‘Biotzean min dut’, ni de ‘Urte-giroak’, pero nos revela desde luego la madurez de juicio que siempre le acompaña, y una cualidad sobresaliente en él: la perfecta adecuación entre lo que piensa y lo que de la pluma le brota. Señal evidente no sólo de su gran dominio del lenguaje, sino también de su rara veracidad, atributo raro en los poetas, que aun involuntariamente exageran su estado de ánimo, o falsean, sin quererlo, su pensamiento”. Beste pasarte batean ere, Lizardiren azken olerkiez ari dela, antzeko ideia jaulkitzen du, dioenean hura, egiazale ez ezik, maitatzaile ere badela: “Beti egizale ta maitazale, maita-gaia gorde-antzean landu ba du ere. Egia ta maitasuna olerkariengandik alde samar dabilta

geienez”. Poeta ez dabil gezurra esateko asmo gaiztoz. Gertatzen dena da, sorkuntza poetikoa mugagabeko asmakizunean datzalakoan, irudimenari eta bihotzari lizentzia gehiegi ematen diela eta, ondorioz, zentzugabeko gauzak esaten dituela. Okerra ez datza intentzioan, ondorioetan baizik. Orixerekin batera esateko, horretan bereizten dira, halaber, gizon ernea eta zozoa, poeta ona eta txarra: “Gaiztoak asmaketa gaiztoak egin egiten ditu; onak gauza gaizto asko asmatu arren, egin gabe uzten ditu. Olerkari onak ere ori du: buruak iduritu asko ta gezur asko iraultzen dizkio txarrari bezela, baiña lekutu egiten ditu”. Lizardiri, hala da Orixeren ustea, gogoeta-gaiak gauzetatik beretatik hartu eta horiek hausnartzetik datorkio egiazaletasuna. Gauzetan, hots, edertasun korporalean dago poesiaren abiapuntua. Ondoren datoz, estetikari buruzko bere saioan lantzen dituen beste bi mailok —edertasun moralari eta intelektualari dagozkienak, alegia—, kategoria absolutuan urtzen direnak. Poetengan hain urri kausitzen diren ezaugarri horiek —egia eta maitasuna— ondo presente daude Lizardiren poesi sortan. Urritasuna estimatzen den arrazoi beragatik estimatzen du Orixek Lizardi egiazalea eta Lizardi maitatzailea.

Amonaren heriotzaren oroitzapenetan egindako “Biotzean min dut” poesia genero elegiakoan sailkatzen dena da eta hor agertzen ditu, *Biotz Begietan*-eko hitzaurrean dakarrenez, “doairik garaienak batean”. Gauza jakina da genero hau zaila dela benetan eta poeta on asko izan direla, klasikoak bezala errenazentistak, horretan porrot egin dutenak. Lizardik airoso gainditzen du aproba: “El nuestro sale victorioso, sobreponiéndose a sí mismo, a toda artificiosa frialdad, a todo estudiado lamento. Ha sabido ser clásico en lo más difícil de serlo”. Eta, azkenean, judizio hau luzatzen du “Una elegía” artikuluan: “Sin ser la mejor del libro, es a mi juicio, la más acabada”. Ez onena, bai bukatuena.

“Urte giroak ene begian” poesia harrigarri ona iruditzen zaio originaltasunaren aldetik begiratuta, inolako ahaidetasunik ez duena inongo literaturan. Izadiaren aurrez aurre jarrita, hari so eta so, behaketarik xehe eta ez-deusenak jasotzen ditu, guztiak oso bereak. Poesia honek, urtaroen egutegiari jarraiki, lau zati ditu: 1) Bizia lo (negua); 2) Sagar-lore (udaberria); 3) Baso itzal (uda); 4) Ondar-gorri (udazkena). Lehenengoan eta hirugarrenean deskribapena da gailentzen dena; bigarrenean eta laugarrenean, berriz, lirikotasuna. Eta lirika esatean, Orixe sentimenaren alderdi afektiboa du ulertzen edota, zehatzago nahi bada, alderdi horri dio garrantzia ematen. Lau zati hauetatik, kritikariek hirugarrena goretzi zuten aho batez Tolosako lehiaketan. Orixerentzat, eta honetan bat dator egilearekin berarekin, azkenekoa du onena: “El cuarto fragmento es lo mejor, vuelvo a repetir, sin ‘tal vez’ como en el prólogo... Coincido con su propio autor en que es el mejor de los cuatro”.

Lehenengo argitalpenean sartu gabe geratu zen “Arrats gorri” poesia hilondokoa izan bide daiteke, irudimenaren ikuspegitik begiratuta, Lizardiren poesiarik onena. Hala dio “Posthuma. El día y la noche” artikuluan: “No extrañaría yo que llegase a ser tenida por la mejor poesía de ‘Lizardi’ (q. e. p. d.) desde este aspecto de la concepción imaginativa; como he insinuado alguna vez, en que se repara más que en la parte afectiva, tan importante en la lírica”. Iritzi honi sendo eusten dio, poesia hau bera iruzkintzen duen beste pasarte batean ere “zenbaitek ‘Lizardi’ren olerkirik ederrena etsiko duela”, baieztatzen baitu. Eguna zer den eta gaua zer, irudimenak harrigarriro sortutako ipuin baten bidez adierazten du eta hor, batik bat, asmakizunari ematen dion aterabideak txunditzen du Orixe: “Estimo por mi parte, y sobre esto llamo principalmente la atención del lector, que lo sorprendente en la poesía inédita titulada ‘Arrats gorri’ es

el *exitus*, la solución, por decirlo así, del serio problema crepuscular vespertino...”. Aterabidea “gutziz berria ta alaiá” aurkitzen dio. Bestalde, gai honetan morbositatea usu loratzen dela kontuan hartuz gero, bitxi gertatzen da hain poesia osasuntsu eta atseginarekin topo egitea. Alderdi hau ere azpimarratzekoa da pieza honetan: “Esto es para mí lo más nuevo, lo más meritorio de la composición”. Laburki esanda: “Urte-giroak ene begian”en bezala, izadiaren poeta da Lizardi “Arrats gorri”n ere. Bosteko ederra osatzen dute. Orixek, poesia ulergarriago eta osoagoa egin nahirik, aldaketa batzuk egitea eta bertso batzuk kentzea proposatu zuen, baina haren oharrak ez ziren aintzakotzat hartuak izan bigarren argitalpenean.

“Asaba zarren baratza” du Lizardik, Orixeren aburuz, “olerkirik ederrena izkuntza goxoz beintzat, gogorapenez ez ba litza ere”. Esaldi bero bezain biziak aurkitzen ditu han-hemenka, hala nola: “Bizi ote dut gaxoa!”, “Nor zaitut?”... Leizarraga eta honen eskolakoak irakurrita ikasiak zituen esaldi apain horiek. Beraz, berriro derragun, hizkuntzaz ederrena, gogoetaz ez. Hala ere, aberri-poesia espezifikoki dagokion gaian bederen, bera duzu haren eta, ausaz, beste inoren kanturik abertzaleena: “Ez itzaldirik, ez libururik, ez esanik, ez kantarik, guziak elkar yota ere, Euskal-errian ez da olako gauza garairik eta ximenik esan, ez esango ere bear ba da”.

Azkenik, “Eusko-bidaztiarena” dakar, hitzaurrean idatzia daukanez, “izkuntza pinpirina, aundikitarra, zarpazu esan dioten andere aberats batek aterako luken yantziz yantzia”. “Zarpazu” esatean, Unamunoren esana du gogoan, hark horrela deitu baitzion euskarari, Bilboko Diputazioan euskarazko oposizioetarako egindako deialdian Azkuek aurrea hartu zionean. Lizardik poesia honetan aldarrikatzen du laster sortuko dela Euskal Herriaren poema mamituko duen olerkaria. Hau, dakigunez, Orixe izango da. *Euskaldunak* poemaren erdia-edo irakurria

zeukala itxi zitzaizkion begiak. Ametsaren erdia bakarrik ikusi zuen kunplitu: “Berak uste zun olerki garai ori, erditsuraino irakurrita yoan zan mundu ontatik. Ametsa egi biurtzen ikusita, erditik eten zitzaion”. Eta, Aitzolen antzera, euskara modernizatzeko agertzen duen desira ere nabarmentzen du Orixek, honen adierazgarri harenetik honako ahapaldi hau hautatzen duelarik:

“Ortzi oro ta egute oro  
yaso, ikus-ala, ta abes gozoro...  
Apaindu zernahitarako:  
Adi gai adirazteko  
Gizadi guzien alderdi ta asmo”.

Lizardi handi da Orixeren begietan. Hain erraldoi, ezen oraindik bizi zela, Lizardiz hauxe idatzi baitzuen: “No es fácil que se supere ‘Lizardi’ ni que otros le superen; pero si desea producir nuevos frutos líricos para nuestra lírica, aquí debe insistir”. Izaditik hurbil, lirika lantzeko aholkua ematen dio. Hortik doaz haren poesiarako dohainak. Bizi izan balitz, oraindik harago iritsiko ote zen, ala ez? Geroago erantzungo diot galdera honi.

Baina Lizardirentzat oro laudorio al du Orixek? Ez, noski. Handi da, baina ez Jainko. Lizardi irudimenaz eta gogoetaz gehiegi baliatzen da sentimenduari datxekion alderdi afektiboaren kaltetan eta hortxe ibili beharko luke kontuzago: “Ello que, a mi juicio, debe moderarse ‘Lizardi’ es en cierto predominio que le noto de la imaginación y del discurso. Las facultades intelectivas y afectivas en su ejercicio, las concibo como dos paralelas contiguas, casi tocándose, y que al trazarse, no se adelanten la una sobre la otra”. Adimenak eta bihotzak batera jo behar dute. Baterak, uztarturik doan idi-parea bezala, ez bata bestea baino aurreago.

Ororen buru, poesia berriaren inguruan egindako txangoa bukatu eta gero, zer ondorio atera dezakegu

garbian? Nik, 1931-1933 epealdian, hiru aro ikusten ditut, bakoitza bere ezaugarriekin.

Lehena: Lauaxetaren *Bide Barriak* kaleratzean (1931), atzerriko literatur forma berriak dakartzala euskal poesiara eta, eztabaida literatura klasikoa ala moderno alternatibaren inguruan planteatzen dela. Orixek, ikusi duzunez, uzkur agertzen da jarrera modernoarekiko. Hemen batere argi ez dagoena da zer ulertzen den “moderno” kontzeptuaz. Eztabaida, hertsiki, literaturari buruzkoa da, ez ideologikoa, gure ustez, maila honetan ez baita etenik ematen.

Bigarrena: Funtsean Lauaxeta eta Lizardiren hizkuntz jokabide berritzailea dela kausa, kritikariak, bate-tik, euskara erraza eta, bestetik, zaila aldeztu dutenen artean banatzen direla. Egiazki, ordea, euskara landua, ikasia, berritua, bai ala ez planteatzen da, horregatik ohiko herri-euskara xumea zapuztu gabe. Eztabaida, *Eusko Olerkiak* bildumako poesiak kritikatzeko diren bigarren une honetan (1932), hertsiki literarioa izatetik hertsiki linguistikoa izatera pasatzen da. Eta hemen Orixeren aukera euskara landuaren aldetik doa.

Hirugarrena: Lizardiren *Biotz Begietan* argitaratzen denean (1932), susmagarrienak izan zitezkeen kritikari itzaldunek erreparatu handirik gabe onartu eta miresten dutela haren hizkuntz nahiz literatur ekarpena. Hark dakarren berritasunari inork ez dio kritika negatiborik egingen. Ez Jautarkolek, ez Aitzolek. Ezago, noski, Orixek. Honek ezagutarazten du, batik bat, haren poesiaren bikaintasuna gaztelaniazko nahiz euskarazko artikuluen bidez. Orokorrean, ohar kritiko bat edo beste baizik ez dizkiote egingo: Jautarkolek euskara zail samarra darabilkie-la esango du, Orixek, berriz, bihotza eta adimena ez dituela neurri berean erabiltzen, eta horrelakoak. Nolanahi ere, ohar kritiko horiek lainotxo mehar dira poetari eskaintzen zaizkion laudorioen zeru urdinean. Hau guztia Lizardiren *Biotz Begietan* liburuari dagokionez.



Hori horrela, bazirudien Lauaxetarekin hasi eta Lizardirekin sendotutako poetika berriak, 1933tik aurrera, itzulezinezko bidea hartuko zuela. Ondoko epealdiak frogatuko duenez, ordea, ez da horrela gertatuko. Ezkutuan baina, hasierako alternatibek indarrean segituko dute, bi ezpainezko ezpatak bezain zorrotz eta tente.

## VII. Populismoaren garaipena (1934-36)

Hirugarren aro honetan Luis Jauregiren lehen aroko joerara –herri-literatura errazera alegia–, itzultzen da euskal literatura. Hori da nik “populismo” hitzarekin adierazi nahi dudana. Itzulera hori nola eta zergatik ematen den azaltzeko, zuzeneko protagonista intelektualen lanak hurbiletik segitzea baino bide hobeagorik ez zaigu bururatzeko, joera desberdinen arteko teke-mekean horiek baitira lema gidatzen dutenak. Kultismotik populismorako jauzian, besteak beste, lehen joera ondoen sinbolizatzen dutenak Lizardi eta Orixe ditugu, eta bigarrena, berriz, Aitzol eta Altube. Hauen konpainian ibiliko natzaizu, batez ere.

Molde berriko poesiatik molde zaharreko poesiarako biraketa, eman, 1934an ematen da. Nik, ordea, urtebete lehenagotik hartuko dut haria, poesia berriaren uhina goraka egiten hasia zen unetik, alegia, ondorengo aldaketa argiago gera dadin.

Besteak 1932. urtean zehar kritika gogorrean ktramilatuta egon ziren bitartean, Aitzolen ahoa mutu egon zen. Datu bitxia. Nik ez dakit zergatik: edo artean nondik jo ez zekielako, edo joeren arteko indar-neurketa nondik

zihoan jakiteko aski denbora behar zuelako, edo nik al dakit zergatik. Dena den, 1933ko otsailean “Antziñako oituren piztutzea” artikuluekin plazara ateratzen denean, berrizaleak majotxo jipoituz altxatzen du ahotsa, idazleak euskara erraza erabiltzera deituz. Nolatan dator, bada, orain Aitzol iritzi-plazara? Beraren ustez, garrantzizko literatur gertakari batek begiak argitzen dizkiolako, norabidea markatzeraino argitzen ere. Tolosan, Santa Ana egunez ospatutako kopla-lehiaketa batean, bertso zaharren antzera taxututako Luis Jauregiren kopla suertatu zen irabazle. Hain ulerterraza, hain herritarra iruditu zitzaion, ezen guztientzat eredu hori proposatzen baitu: “Eta onelako olerkiak eta onelako idaz-lanak bear ditugu. Irakurleak eta euskaltzaleak gure bertso zail eta idazlan eta artikulo ezin entenditzeko azpertu ditugu. Geok ere, idazleak, aizkenaz naskatzen ari gera. Inor mintzeagatik ez diot. Neroni naiz erruduna. Baña guztiok bide txarrak utzi eta bide onera dezagun. Bide txarra daramakigu olerkari eta idazle geienok. Oso bide txarra. Ongarri baño txarkeri geiago euskerari egiten diogu. Guztiok euskera maite degu. Gure elburua euskera piztutzea. Gure baitan sar gaitean eta erabaki egokiena gureganatu dezagun”. Gupidarik gabeko testua da, estilo kategorikoan egina. Bando bat bezala da. Idazle gehienak dira euskara ulergaitzean ari direnak. Horregatik, bide txarretik onera pasa daitezen, guztiei deitzen die herri-euskara egitera.

Lizardik, ez zeukan hain urrun eta, berehala entzun zuen Aitzolek barreatutako kisketa-hotsa. Baita hurrengo astean erantzun ere “Gure bideko mugarriak” artikuluekin, berak idatzitako azkenekoarekin, hain zuzen. Oso ondo eta zuzen jasotzen du Aitzolen funtsezko mezua, dioenean: “... eskribatzalle guziori muga bat erakusten digu”. Hor “guziori” hitza da giltza. Ez zaio iruditzen Lizardiri euskal literaturaren arazoa hain erraz erabaki daitekeenik. Horregatik, mugarriaren irudiarekin jokatzu,

ez bide bat, baizik hiru edo gehiago direla posible erantzuten dio. Posible ez ezik, beharrezko ere bai euskararen osasunerako. Eredu bat Txirrita bertsolariarena izan daiteke; bestea, Muxika idazle herritarrarena; beste hirugarrena, Luis Jauregi poeta klasikoarena; eta laugarren bat ere bai, euskara landua egiten dutenena. Bere burua hemen kokatzen du: “Ta gerta ere litekena da, banaka batzuk eserleku geiago bear lirakela esatea: ipurmamiak zenbaitek bezin beratxak ez dituela-ta, naiz arri landuberria izan, ez diela axolik”. Ohar zaitetz “banaka batzuk” dioela, ez guztiak, gogoz ikusten baitu idazle errazak zailak baino erruzago sortzea. Ulertzen da Lizardik zorrotz ihardestea, zeren, Lurdes Otaegik Lizardiren *Kazetari-lanak* bildumari egiten dion Sarreran egokiro oharrarazten duen bezala, ondo baitzekien pizkunde-mugimenduaren gidaritzza zeramanaren hitzak bazuela bazterretan itzalik aski, hark esana –aginte morala zuelako, ez beste ezergatik–, onartua izan zedin. Eta haren iritzia, Lizardik usaindu bezala, erabaki bihurtu zen. Honela, 1933. urtetik aurrera, bi poesi lehiaketa antolatu ziren: bata herri-poesia egiten zutenentzat, bestea landuan zihardutenentzat. Lizardik lehiaketa bikoitza antolatzeko proposamena 1932an egin zion Euskaltzaleak elkarteari. Eske hau hurrengo urtean gauzatuko da, uste denez, Aitzolen erabakiz edo, bederen, oneritiz.

Aitzolek, Lizardi hil ondoan, lehen iruzkindu dudan artikulu maitekor eta aupagarri hura eskaini zion. Hor ez du ezertarako berritzen arazoa, hurbilegi baitzegoen haren heriotza. Hurrengo urtean, ordea, “Eusko olerti-kera berezia (estetika)” artikulu argitaratzen du *Yakintza* aldizkarian, funtsera joan eta, tesi hau sostengatzera datorrena: batetik, Euskal Herriak estetika berezia duela, berezia, batez ere, literaturan; bestetik, berezitasun hori euskal kutsuko irudiak, ereduak eta gaiak erabiltzetik datorkiola. Ehunka herri-poesia irudien arabera bost sailetan

zaitu eta gero, ondorioz ateratzen du izaditik eta nekal mundutik jasotakoak direla. Euskal literaturaren berezitasun hori herri-poesian nabaritzen da, ez ikasian. Dikotomia antzeko zerbait ezartzen du ikasiek eta herri-poetek egindako poesien artean: haienak, gehienetan, erdal kutsuak ukituak dira, argalak eta kaskarrak; haue-nak, aldiz, euskal kutsu garbikoak, ederrak eta aberatsak. Haren ondoko aipu honek asko argitzen du dikotomia hori ikusten: “Euskalerrriari dagokioten olerti-errikoiak sabelean daramaten edertasun orreri begira zaiogun. Ez yakitunen olerkiei: oiek, oraindaiñoakoan, argalegi eta kaskarregiak izan zaizkigu. Geienetan, gaiñera, erdel kutsuak ikutuak dira. Eusko gogoari dagokion edertasun gutxi sortu digute sasi-yakitun izan diran sasi-olerkari oiek. Ez diot, noski, gaurko olerkari yaiogengatik, dasadana. Errikoi olerkiak beste dira. Oiek, sakonkiro euskeldun begiak ikusi eta biotz errikoiak maita dituzten gaiak, edertasunez aberastuta erakutsi dizkigute. Maiteminduen antziak, guraso-senideen ar-eman etxekoia, eztaiyaiak, ezkontza-arazoak, aurren azitzea, adizkidetasuna, gorrotoa, maitasuna, bertsoetan erriak kanta-gaia artu ditua-nean alako dotoretasun bikain batekin yantzita aurkeztu dizkigu”. Nahiz eta espreski esaten duen bere garaiko poeta ikasiak ez direla hor sartzen, ezin da ez igerri haren ikuspuntuaren intentzio gordea nondik doan.

Hor goian agertutako irizpide horren arabera, 1933ko Urretxuko Poesi lehiaketan saritutako Patxi Etxeberriaren “Bost Lore”, adibidez, euskal estetikan oinarrituta dagoen horietakoa da. Orduko epaimahaikoen literatur irizpideen nolakoaz asko ikasten dugu, Aitzoli irakurtzen diogunean, bere ustez, euskal kutsua zeramalako izan zela saritua: “Bost lore’k etzuan goiko mailik iritziko, nere aburuz derizkiot, ez bost zatien olduzkun-batasunarengatik, ez gai-araztasunagatik, ez-ta ere olermenaren eraite biziagatik, gure olerkariak, goi-arnasak ats-eginik,

ain egoki bere bertsoetan eusko-kutsua daramaten irudiok irauli ez bazituan”. Ez du gutxi estimatzen, noski, aita Etxeberria irudien bila bertsolarien iturrira joan izana: “Gaurko olerkari onek kanta zarrak zorrotz ausnartu dituala agertzen digu”. Azkenean, euskal poesia jatorra herri-literatura klasikoan aurkitzen dela frogatutzat eman ondoren, “Antziñako oituren piztutzea” artikuluan bezala, bertsolari zaharren moldeak lantzerantz deitzen ditu poetak: “Aiek, antziñakoak noski, kera berezi oneri iraunkorrago eutsitzen zioten ez beste gaurko olerkari onek. Bertsolari zarrak euskelgun biziagoa txertatzen zien iduriei eta bertso giarragoak taiutzen zituzten. Ez giartasun ori, ez eusko-kutsu yatorrena duten irudiak ezin beti eska genezazkie gure olerkariei... Alaz ere, adizkide zaizkidan Lauaxeta, Jauregi, Tapia-Perurena, Jakakortajarena, Iturralde, Oxobi, Loidi, Zaitegi, Enbeita anaiak, Erkiaga'tar Eusebi, Gaztelu kaputxinoa, eta Onaindia karmeldarra iztxo bat bederen zuzendu nai diotet. Idatzi dedana idatziaz zuek biotz-barruan izan zaituztet... Olerri errikoia igartzera dator. Zuaitez zar ori eusko-edertasunaren gordeilu izan da. Idazleak eta olerkari apainduak erakutsi ez digutena erriko kanta zarrak irakasten digute eusko gogoaren edertiari buruz yakin dezakeguna. Irakaspen ori biltzea besterik ez det egin”. Poeten zerrenda honetan, izen baten ausentzia nabarmenez ohartzen gara: Orixerenez. Seguru faltako direla beste batzuk ere; honena, ordea, handiegia da ez ikusteko. Zergatik ote? Agian, etsita zegoen orexarra arrain potzologia zela bere saretara biltzeko. *Yakintza*-ko artikulua guztiz garrantzitsua da, bertan teorizatzen baitu, eta justifikatzen, euskal literaturan bertsolari-moldeko herri-literaturara itzultzearen gainean.

Prediku horren ondotik, 1934ko literatur emaitzak aztertzen ditu eta ondorio guztiz negatiboa ateratzen du “Balance literario euskeldun de 1934” izeneko artikuluan:

“Creo que la enumeración es de bastante aterradora elocuencia para quien medianamente sepa deletrear”. Urte hark zer eman zuen literaturan? Ez asko: berralgitalpenetan, Bernardo Detxepareren poesiak eta Mateo Zabalen ipuinak; itzulpenetan, Iturralde Suiten *El Ruiseñor de Errotazuri*, Truebaren *El Judas de la casa* eta Tagoreren *Amal*, hurrenez hurren, Altunak, Mikel Arrutza eta Sabiagak itzuliak; berezko obretan, Areztiaren *Amonaren Uzta* ipuin-bilduma eta aita Agirrerren *Luistarren Eliz Liburua*. Literaturara pasatzen bagara, hiru lan aipatzen ditu hertsiki horrelakotzat dauzkanak: Lizardiren *Itz-Lauz* eta *Umezurtz-Olerkiak*, eta *Eusko Olerkiak* bildumako laugarren tomoa. Hauek ez diote merezi balorazio handirik, ez bederen euskara bizkortzeko xedeari dagokionez. Lehen 1933an hain gora jarri zuen Lizardiren izena apal ikusten da orain, 1935. urte-hasieran: “Sin embargo, estos tres tomos, a pesar de su indiscutible valor literario, no llegarán, casi podemos asegurarlo, a robustecer y vigorizar el euskera. Fáltales lo esencial: la frescura, la naturalidad de un euskera fluido, fácil, inteligible. Están escritos con fórmulas lingüísticas la mayor parte de las poesías y artículos y nótase en ellos la ausencia del sentimiento de lo sencillo y natural, propio de un idioma vivo y palpitante. Hay en estas poesías y escritos gran caudal de estudio, de trabajo, de decisión y hasta de ingenio; pero en ellos domina el artificio sobre el arte, lo rebuscado sobre lo natural, lo retorcido sobre lo espontáneo. Y es ya hora de que todos lo advirtamos”. Poesi mota hori ez onartzearen arrazoia, betikoa errepikatuz, euskara landuari atxikitzen dion artifizialtasun eta ulergaitasunean datza. Hortxe datza, beraz, euskara areago ez indartzearen arrazoia, arrazoi bakarra hori balitz bezala. Bestalde, Orixeren *Barne-Muinetan* poesi liburutxoari dagokionez, esan behar da hori daukala, inolako zalan-tzarik gabe, gainera, urte horretako poesi sorkuntzarik

onena bezala: “Ni dispuesto a halagar ni a encubrir la verdad, porque la amarga experiencia nos ha enseñado cuán funestos resultados nos trae para la misma existencia del euskera, sin embargo, debemos paladinamente manifestar que *Barne-Muinetan* nos agrada. Hemos leído y releído sus poesías. Hay en ellas aciertos de lenguaje y expresión insuperables. En ellas ha sabido expresar conceptos teológicos nada vulgares y, antes al contrario, muy sutiles”.

Hala ere, Orixe bera ez da libratzen kritikatik. Bi akats aurpegiatzen dizkio. Bata da literarioa, hots, sentimenduari baino gehiago eragiten diola adimenari: “No participamos, con todo, de la opinión de quienes creen dotado a ‘Orixe’ de un equilibrio de facultades intelectuales y sentimentales. Domina lo intelectual sobre el sentimiento, a nuestro entender, con exceso. En esas poesías falta a veces el corazón y sobra el discurso. Sin embargo, sus poesías son una obra excelente, aun teniendo este desequilibrio, que en la poesía en general y en la religiosa es siempre un defecto”. Orixe kritikariak beste poetei hainbeste bider egotzi izan dien akatsa —ahalmenen arteko desoreka, alegia—, orain Aitzolek berari egotzen dio. Ez du hori akats bakarra, linguistikoa ez baita literarioa baino barkagarriagoa: “Hubiéramos deseado nosotros que también en la producción de ‘Orixe’ hubiera dominado más acentuada aun su tendencia, siempre sana, de lo fluido, de lo inteligible, de lo natural. Lo confesamos sinceramente: hemos tenido que recurrir al erdera para apreciar en más de una ocasión las bellezas encerradas en las estrofas de *Barne-Muinetan*. Y esto es, sencillamente, un desconsuelo desgarrador”.

Egiten duen balantzea, oro har, beltza da. Beltza, ikuspegi kuantitatibo nahiz kualitatiboaren aldetik. Lizardiren nahiz Orixeren lanak merituzkoak zaizkion arren, kritika negatiboan askozoz gehiago luzatzen da positiboan baino. *Barne-Muinetan*-en aurrean, laudorioak oso tan-



toka jausten dira harenetik, egilearenganako errespetuagatik ezinbestean bezala. Hitz batez esateko, poesia landuaren errotiko deskalifikazioa aldarrikatzen du. Hemen Lauaxetaren *Arrats Beran* poesi liburuarekin (1936) salbuespen nabaria egiten du, nabariegia kontura ez gaitezzen, haren argitalpenari eskainitako “Poeta, entre luchas y crisis” eta “El heraldo de la poesía bizkaína” artikuluetan loreak bakarrik usaintzen baitira. Azken aroko Lauaxeta inpresionista herri-poesiara itzuli izanak ematen dio gorespenerako txartela. Aitzolen aipu honetan argi asko esaten da zergatik makurtzen den Lauaxetaren alde: “Y, ya que enumeramos aciertos no silenciemos el que tan grato nos es: el retorno a la poesía popular. ‘Lauaxeta’ ha ensayado la tarea de labrar poesías de subidísimo sabor popular. Composiciones como ‘Mutxurdiña’ y ‘Ardua ta Atsua’ demuestran que el poeta sabe descender hasta las entrañas del pueblo, para de él extraer filones de ironía y de gracia burlesca”. Lauaxetaren irudimena hain da sortzailea eta hain aberatsa, herria ezin baita geratu harena irakurri eta ezagutu gabe. Aitzolek Lauaxetaren poesia herritartu nahi du. Merezi duelako.

Honek zer esan nahi duen Aitzolentzat? Inoiz poema nazionalean, poesi sariketetan eta horrelako literatur ekintzetan ezarrita zeuzkan pizkunde-esperantzak etsipenaren eguratsean lurrundu zitzaizkiola. Erruduna, norbait izan behar eta, poesia landuan bilatzen du. Eta joera hori salatzen. Poeta kultistak alde batera utzi eta, horregatik hasten da ondoko urteetan herri-poetak bultzatzen eta bertsolari-txapelketak antolatzen, hauengandik erantzun emankorragoa jasoko duelakoan.

Ez bide beretik, baina antzeko ondorioetara iristen da Sebero Altube jauna ere, Aitzolek pizkunde-mugimenduan bezala, euskaralaritzan autoritate gaitza zeukana. Honek, 1933an, Eusko Ikaskuntzak Donostian antolatutako Udako Ikastaroetan “La vida del euskera” gaiaz

hitzaldi arras sakona eman zuen, gero 1934an argitaratu zena Bilboko Editorial Vasca-n. Puntu asko arakutzen ditu, jakituriaz eta zentzuz arakutzen, 21 atalez osaturiko azterbidean zehar, hala nola: euskararen aho bidezko transmisioa, mintzaira tekniko eta literarioaren arteko desberdintasuna, garbizalekeriaren kaltea, herri-literaturaren oinarria literatur hizkuntzan, euskara literarioaren batasuna, azken 40 urteetako euskal produkziogintzaren diagnosis... Gai bizia bezain gaitza, noski. Altubek sarrean egiten duen galdera, berak kaletik kazetari bidez jasota formulatzen duena, hauxe da: zergatik egiten du euskarak atzera? Eusko pizkundek optimismorako deia zabaldu behar lukeela dirudien unean galdera pesimista hori entzutea, lehen kolpe hotzean, bitxi egiten da. Baina planteatzen dena, ez kazetarien inpresio hutsa, baizik eta datu konstatagarria dela ohartzen zarenean, orduan galdera uste baino konplikatuago bihurtzen da: euskarazko irakurgaiak sekula ez bezala ugarituz doazen unean, zergatik mintzatzen da sekula baino gutxiago? Nola esplikatzen da kontraste hori?

Sebero Altubek ondo daki, jakin, euskararen atzera egiteak sustrai asko dituela, ia gehienak soziopolitikoak, hari aspalditik azpia janez datozkionak. Zergatik horiek oso garrantzitsuak izanik ere, euskaltzaleen errua ez da garrantzi txikiagokoa izan. Altuberen ustez, eta hau da honen funtsezko tesia, azken 40 urteetan eraman den hizkuntz politika desegokiak hartaratu du euskara. Zehazki esanda, herri-hizkuntzatik gehiegi urrundutako literatura egitean datza errua, IV. atalean formulatzen duen bezala: “Los daños acarreados al euskera en los últimos 40 años por una literatura impopular”. Eusko pizkundera hasi zenean 1893an Bizkaia eta Gipuzkoan, bi herrialde hauetan, Bilbon eta Enkarterrietan salbu, euskaraz mintzatzen zen. Baldin euskaraz irakurtzeko zaletasuna sortu zen une hartan, literatura erraza, atsegina,

bizia, herritarra eman izan balitzaio orduko euskal irakurleriari, ez zen gertatuko irakurleen eta idazleen arteko dibortzio hori, Ipar Euskal Herrian –*Eskualduna* astekariari esker, batik bat–, gertatu ez zen bezala. Zoritxarrez, Bizkaian batez ere, purismoak agindu zuen eta hortik etorri zen Eusko pizkundeko idazleen hondamendia, herri-literatura baztertzetik, alegia: “Pero no se han seguido esas normas prácticas, a la vez que razonables, en esta parte del País Vasco (especialmente en Bizcaya); aquí se iniciaron los trabajos encaminados al susodicho ‘renacimiento euskerista’, persiguiendo como finalidad principal (con un optimismo sin límites) la total extirpación de los elementos alienígenas importados al euskera, incluso los más extendidos y arraigados desde tiempo inmemorial. Aquel plan, tan sugestivo al parecer, pero en realidad absurdo y anticientífico, tuvo y ha tenido aquí la virtud de arrastrar consigo a toda una generación de escritores euskéricos...”.

Baina garbizalekeriak kutsatutako idazleen belau-naldi horretan bada joera horri ihes egiten dionik. Horrietako bat, Kirikiño duzu, Sebero Altubek salbuespen gisa izendatzen duena: “... pero es necesario hacer constar el caso excepcional de un publicista bizkaíno que tuvo la intuición clara del problema y supo sustraerse a las sugerencias de una literatura falsamente brillantada por el oropel del purismo: nos referimos al malogrado escritor don Evaristo de Bustintza (Kirikiño). Este euskalidazle no tuvo a menos el valerse, en sus producciones literarias, del léxico popular, de las voces y expresiones que, sea cualquiera su origen, viven arraigadas en el pueblo...”. Segidan, *Abarrak* liburutik hustuta, herri-hitz jator baztuk jartzen ditu adibidetzat.

Aitzol eta Altuberekin, hauen hitzak euskaltzaleen artean zuen itzalaren poderioz, sendotatua geratzen da populismoaren aldeko aukera.

**BIGARREN ZATIA:**  
**ZENTSURAK, APOLOGIAK, ETA...**

## VIII. Idazle baztertu baten kronika

Lizardi 1933an hil zen, eta geroztik akabo harenak. Hurrengo urtean argitaratutako haren lanen prosazko nahiz hitz neurtuzko bilduma hautatuek ez zuten irabazi Aitzolen oniritzia. Orixek, orobat, oso erdizka pasa zuen errebalidaren atea *Barne-Muinetan*-ekin epaile beraren aurrean. Lizardismoa gainditua zegoen. Orixe ere bai. Euskal literaturan populismoak kultismoari erabat gain hartzen dio: prosan, Kirikiñoren euskara ezarriko da eredutzat; poesian berriz, Luis Jauregiren eskola sagaratuko da, azken Lauaxeta, Patxi Etxeberria, Otamendi eta Sukiarekin batera.

Eta 1933-1936ko epealdian, zer egiten du Orixek?, galdetuko duzu. Lizardiren poetika auzitan jartzen deneko epealdi luze honetan isilik egon al zen, baserri-zuloan sartuta? Eta hala egon bazen, zerk behartu zuen hartara? Galdera guztiok interesgarri bezain ezinbestekoak dituzu euskal literaturaren historia sozialerako.

Orixek, 1950ean *Euzko-Gogoa*-n egindako “Lizardi Ameriketan” artikuluan irekitzen du misterioaren oihala, urte-mordo bat mutu egon eta gero, El Salvadorreko Zaragozan jauntxo-mota guztiengandik urrun eta hitzaren jabe sentitzen denean. Hemen esaten digu gerraurreko auzi-mauzi hartan hitza galarazi egin ziotela: “Orain ez

daukat Jauntxo, nagusitxo, nagusitzar edo ditadore'rik. Yaun eta yabe ez izanik ere, nere esku nago. Agoa nere, esan dut; ez len aña zorrotz, ortzak erauzi baitizkidate. Ez ote zait ala ere basurdearen letagiñen bat gelditu? Dana dala, auzi ontan zer derizkiodan jakin naiko dute zenbait irakurlek. Zenbat urte ote dira onezkero? Amabosten bat? Auzi ori garbitu naiean asi nintzan ni ere, baña galara-zi egin zidaten”.

Testu horretan bere bizitzako bidean tokatu zaizkion jauntxoez eta diktadoreez mintzatzen baita, hortik hasiko naiz, jasan dituen zentsurak eta oztopoak hasieratik zehazten. Jadanik ezaguna dugu jesuiten lagundian nozitutako umilazioa, Orixerentzat bere bizitzako itzalik handiena izan zena. Izan ere, harentzat askozok okerrago da arrazoi erlijiosoengatik Konpainiatik ohildua izatea, literatur ideiegatik baztertua izatea baino. Baina utz dezagun kontu hori, beste nonbait mintzatzen nauzu horretaz eta. Aski zaigu hemen bizitza laikoko bere bizibide profesionalean ezagutu zituen estakuruen berri ematearekin, ez baitira gutxi.

Hasteko, ezinegon minbera dakarkion zailtasunik ezagutzen du Bilboko *Euzkadi* egunkarian “Euzkel atala” zuzentzen duen garaian. Aita Justo Maria Mokoroari 1929ko abuztuaren 22ko gutunean jakinarazten dionez, jauntxo batzuen menpeko dela aitortzen du: “Ni hemen ari naiz denbora alperrik galtzen, egiten dedan guzia saskira botatzen baitidate censura-ko oiek. Mingarri da, besterik egin lezaken gizona euskeratik erderaratzen aritzea, iñon azaldu bear ez dun lana egiten. Ez dakigu noiz aldegitekoak diren orain lepotik gauzkaten oiek”. Urte bereko lehen hilean, horko handikiek ez diotela eskubiderik aski uzten kexatuz idazten dio Lizardiri. Lehen esana daukagu nola behartu zuten gramatika-lanak egitera.

Donostiako *El Día* egunkarian, bere artikulua argitaratzeko ahalbidea kentzen edo murrizten diote. Datu

dezente pilatzen dira Orixeren kasuan. Altube jaunak *La vida del Euskera* lanean, biribil bezain bipil, baieztatu zuenean azken berrogei urte haietan egindakoa huts eman zitekeela, Orixek, hari eta, bide batez, Aitzol eta beste kritikari batzuei erantzunez, zortzi artikulu igorri zituen *El Día*-ra 1934an, batez ere, *Itz Lauz*-eko euskararen alde idatziak. Ordurako mintzatua baitzen Aitzol aipaturiko literatur balantze hartan euskal literaturaren nolakoaz eta norakoaz, Orixeren artikuluak oro saskira joan ziren. Agian zortzi baino gehiago zentzuratu zizkio-ten, “estos y otros artículos míos –hasta once consecuti- vos– echó al cesto el Sr. Aizol”, irakurtzen baita “De mi vida externa” dokumentuan. Dena den, beste hiru arti- kulu horien berririk ez dugu.

Jauntxoak, hala izendatzen du Aitzol jauna, “ya es mucho Joxe Mari” esan omen zuen. Ezta itzuli ere! Eske- rrak aita Mokoroaren (Ibar) arrastoa ematen duela Ori- xek artikulu horretan eta hari esker eskuratu ahal izan direla betiko galdutzat geneuzkanak. Areago oraindik: urte berean, euskaraz ganorazko zerbait argitaratu egin nahi eta, estetikari buruzko saiakera lantzen hasi zen. *El Día* egunkariko zuzendaritzak euskarazko lanak gaztela- niazko adina ordainduko zizkiola agindu zionez gero, “On eta eder” lehen artikulua hara bidali zuen, geroago beste gehiago idazteko asmoarekin. Hamaika hilabete zokoan eduki ondoren, ez *El Día*-n, *Yakintza*-n baizik argitaratu zioten, baimenik eskatu gabe eta trukean ezer jaso gabe. Lan hauek ez zizkietela argitaratzen eta, pena- tuta idazten dio Jokin Zaitegiri 1934ko uztailearen 7an: “‘On eta Eder’ Estetika’ren zazpi kapituluetatik bat dut: ba da besteren bat itsusiagoa ez dana, baina argitaratzeko biderik ez. Osoa argitaratuko didatela agindu didate, baina oraingoz ezin amaitu dezaket, luzetxoa aterako baita. Buruz egiña daukat, baiña tartetik beste liburu bat eman nai nuke, poema baiño lenago albait. Eske dauzkat

apaizak eta". Argitaratzeaz daukan lan hori, seguru asko, *Barne-Muiñetan* izango zen, 1934an kaleratu baitzuten.

Kontu honetan gauzarik bitxiena da, *El Día*-k hainbeste denbora bahituta edukitako artikulua hori oso ondo hartu zuela kritikak, gaiaren nahiz herri-euskararen alde-tik aurkitzen zioten aberastasunagatik, batez ere. Herri-literaturaren oso aldekoa zen Larreko jaunak, adibidez, sekulako laudorioak bota zizkion *Eskualdunak*-etik. Antonio Maria Labaienek nobela bat bezain gustura irakurri zuela jakinarazten dio. Hala ere, Orixe isiltasunera kondentzen dute. *El Día*-k jadanik 1932rako baztertua zeukan Orixeren luma, berak espreski dakarrenez: "Gure olerkarietaz iritziak ematen asi nintzan *El Día*'n Arrese'tar Emeteri'z aurrera. Zer gutun goxoa egin zidan adiskide xar orrek, eskerrak emanez! Berriz ere laister gelditu bearra. Nagusi oiek etzuten nai nere iritzirik, eta beste kritiku bat sartu zuten. Igaz, il baño lentsago esan zidan 'Luzear' zanak (G. B.) an gertatu zana, Euskal-saillaren buru baitzan. Onek ez zun atzeratu nere artikulurik, ez, gizagajoak!". Halaxe da, lehen ikusi dugunez. *Eusko Olerkiak* bildumako olerkarien kritika orokorra egin ondoren, Emeterio Arreseren *Nere bidean* liburuarekin hasi zen 1932ko urrian. Baina segidarik ez zuen izan, Orixek esan bezala, bere iritzia onartua ez zelako. Nor ote zen haren orde z izendatutako kritikari berria? Agian Jaurtakol? Gogora dezadan Lizardiren prosa defenditu baino bi urte lehenago baztertua zegoela Orixe *El Día* egunkaririk.

Gero *Euskaldunak* poemaren bi urteko loaldia dator: "*Euskaldunak* ere bi urte lo egin zuten nik bukatu ondoan, matxinada baño len. Amasei urtez gero agertu dira (sic)". Poemaren azken kantua 1934ko azaroaren 16an bukatu zuen. Berehala, orraztu eta garbira aldatu ahala, Justo Maria Mokoroari bidaliko dio bera ari zen lanerako. Handik hiru hilabete barru, Euskaltzaleak-en esku utzia zuen, 1935eko otsailaren 20ko *El Día*-k albiste hau



baitzekarren: “el eximio poeta euskaldun Don Nicolas de Ormaetxea acaba de entregar a la Sociedad ‘Euskaltzaleak’ un magnífico poema, en catorce cantos”. Poema entregatzerakoan, egun batzuk lehenago, Aitzoli gutun bat igortzen dio esanez hari, ez Euskalerrria, baizik *Euskaldunak* deituko diola eta ezergatik ez duela amore emango puntu horretan. Agindua da Aitzoli ematen diona 1935eko otsailaren 9ko gutunean: “Me han escrito dos individuos, alarmados del título del poema, que, dicen, será mal visto en buena parte del público. Antes de que ellos me escribiesen, en previsión de ello, se lo había cambiado por ‘Euskaldunak’, y así tendrá que salir en la primera edición. Ahí ya no cedo porque, a imitación de *Os Lusíadas* de Camoens, es lo que mejor resume su contenido. He dado muchas vueltas y revueltas, y he consultado mucho. *Euzkadi* y *Euskotarrak* no se vería libre del mismo inconveniente, aun entre nacionalistas sensatos, además de que esas palabras no están refrendadas por siglos, ni aun hoy las aceptan todos los vascos. Para lo sucesivo, pues, cuando haya de hacer Vd. alguna convocatoria o propaganda, evite Vd. la palabra Euskalerrria (es el colmo!), sustituyéndola por ‘Euskaldunak’. Imprudencias como esa han causado al nacionalismo más retraimiento de otras gentes vascas que lo que Vdes. suponen. No renuncio, si llego a ver sucesivas ediciones, a poner al frente de la obra, la hermosa y santa palabra ‘Euskalerrria’”.

Argitalpen-zuzenketak egiteko, J. M. Mokoroa uzten du arduradun 1935eko martxoan. Urrian ordea, Jose Ariztimuñok, inprentako okerrak zuzentzeko J. M. Mokoroa urrutiegi dagoela eta, lan hori Jose Markiegi egi-tea proposatzen dio. Erabaki honen aurrean eskuak garbituz bezala zuzentzen zaio berak hasieran izendatutako lankideari: “Nik egiñalak egin nizkion beste aldera, baña nik baño geiago dezake. Asi ezkerro bota bear omen dute. Dibujantearen begira gaude”. J. M. Mokoroa (Iparralde)

poema noizko kalean?, galdezka datorrion batean, honela erantzuten dio 1935eko azaroaren 4an: “Ez goizegi, dibujantea lo baitago. Emen esaten dan bezala, aren baitean gaude. Edozein moduz, datorren urtea polikitxo asia ditekela dirudit aina agertzerako. Zure argi-egile, biderakusle, Precursore edo dalakoa garaiez agertuko da, naski”. Orixek ez du ageri optimismo handirik. Hala ere, Ibarren *Genio y Lengua* eta haren *Euskaldunak* bateratsu kalera-tuko diren esperantzarekin bizi da. Urte berria etorri eta, lehengo kexu bera urtarrilean ere: “poemaren dibujoak lo” daudela, alegia. Hurrengo hilean, Jokin Zaitegiri egiten dion gutunean, etsipena hartzen hasia dagoela nabari zaio. Hari eta honi utzi, originala eta kopiak nonbait dabilta, ondo barreiatuta. Orixek bere haurraren kontrola galdua du: “Mundu guzia galdezka ari zait noiz argitaratuko. Nik zer dakit? Melodiak, 60 melodi, Burdeos'en irarriak ditute aspaldi. Esan dudana, dibujantea lo. Gauza orren ardura erabat utzia daukat”.

Ibarren liburua gerraurrean kaleratu zen. Orixeren poema, ez. Nork errua? Dibujanteak? Zail egiten da sinestea arrazoi bakarra dibujantearen loa izan zela. Ez al zen argitalpenaren arduraduna Euskaltzaleak elkarteak? Aitzol gehiago saiatu izan balitz, agian ez zen hainbeste denbora lotan egongo.

Jartzen dizkioten oztupoak ez dira hemen bukatzen. Datu kronologiko batek sekulako kontrastea jartzen digu begien aurrean. Euskal-Esnaleak elkartearen babesean, batik bat, 1930. urtea arte antolatutako lehiaketa-mota desberdinetan, bere lekuan ikusi dugunez, Orixek sari-mordo polita eskuratu zuen: “Euskal-literatura'ren atze edo edesti laburra” (1927), “Iztueta'ren euskera” (1929), Larramendiren “El imposible vencido” (1929) eta “Kiri-kiño saria” (1929) prosan; “Aizkorri eta itsasoa” (1929), “Arrese eta Beitia” saria (1930), poesian. Baina Euskaltzaleak-ek poesi lehiaketa famatuak antolatzen dituenen,

Orixe sari baten ohorerik gabe geratu zen. Honen ustez, lehiaketa hauetan, epaimahaiko izan ala ez, beti Aitzol zen epaile: “En los certámenes poéticos él hacía y deshacía todo”. Errenteriako lehen lehiaketan (1930), hala kon-tatzen du, Lauaxetak lehiakiderik gabe irabazi zuen, epai-mahaikoek Orixeren poesiak aztertu ere, aztertu ez omen zituztelako: “Los tribunales no eran al principio muy competentes, pero los debiera haber respetado más. En el primer certamen –Rentería– salió premiado Lauaxeta sin contrincante, pues en la mía no se había fijado ninguno de los jueces, o mejor dicho, no les llamó la atención, como lo supe por el Secretario de Euskaltzaleak, que me dijo confidencialmente. Este les advirtió que había otra composición mejor que la de Lauaxeta, y se la señaló. Re-leyéndola y reflexionando, hasta se discutió si darle el primer premio. ¡Qué formalidad! Contra mi voluntad –tras consulta de Aitzol a mí– no quisieron eliminarla y la hicieron pública dándola un segundo premio”. Han barruan gertatukoaren berri ematen dion Euskaltzaleak-eko idaz-kari hori, zalantzarik gabe, Lizardi da. Honek esaten dio 1930eko maiatzaren 26ko gutunean “izketa luzea ta za-lantza larria” izan zutela. Ziur baino ziurrago dago epai-mahaikoetatik bat ere ez zela ohartu haren poesien ba-lioaz. Baina hori baino okerrago da, bidalitako hiru poe-sietatik bat, aurkezteke, baztertu egin ziotela. Hala kon-tatzen dio Aita Santi Onaindiari: “Iru sartu ebazan bat-zaldi aretan (Lizardik, noski): XX (ez dot gomutetan izena), ‘académica, brillante’ orreitakoa. Aitzol zanak baz-tertu eban sortatik. Saria etara legiken bildurrez? Artatik neurtitztxo bat kopiatuten eustan ebazleetako batek ne-rea zala asmauz. Ez zan agertu argitara”. Ohorezko aipua-rekin, argitaratu ere bi argitaratu zituen 1930eko bildu-man, “Jainkoagan bat” eta “Itzai zekena”, eta horiek bere borondatearen kontra, bere poesien aipamenik ez egiteko agindua emana baitzion Aitzoli. Hiru zirela bidaliak ziur-

tasunez dakigu, Lizardik Orixeri egiten dion kontsultan espreski esana baitator: “Igandean etxean izan nitun Ariztimuño ta Labaien, olerki oiekin (ontxoenakin, alegia) egin nai duten liburuaz ari izan ziralarik. Nere gain utzi zuten zurekikoa egitea. Beraz, ‘Orixe adiskidea, zerorrek erabaki ezazu iru olerki oietatik irurak ala soilki ‘Iru-tasun’ ta ‘Itzai zekena’ argitara ematea nai duzun”.

Bigarren lehiaketara (1931) ez zen aurkeztu, epaimahaikoa izan baitzen. Ezta Hernanin egin zenera ere. Baina bai Urretxun egindako laugarrenera (1933). Hara “Lizardi gurean”, “Beti lagun” eta “Maite-damu” poesiak bidali zituen. Jokin Zaitegiri honela kontatzen dio han gertatutakoa 1934ko uztailaren 14ko gutunean: “Dedusaria ‘Lizardi gurean’i eman zioten epaileak, baina ‘Aitzol’ek neri kendu. Oker ari naiz; epaile batek bestek ikusteko betarik etzuten izan eta ark (Lekuona’k) neri eman zidan, ‘Aitzol’ek Labaien’i ta emazteari esan zenez, eta Lekuona’k berak neri ‘Eskualzaleen Biltzarre’ egunean esan zidanez. Gainera, ‘Beti lagun’ bi estrofa gutxiagorekin atera dit, ez nik bialdu nun bezala. Nik ez dut gorde, ta eske ioan nintzaion. Galdu egin zala esan zidan. Gero, nere baimenik bage, Tolosako Eusko-Gaztedi’tik aldakia atera ta eman egin du. Ta tribunalean pasa gabe, ‘Maite-damu’ ere bezala. Orain arte iru sari garbi garbiak kendu dizkit. Gauza ok Estefaniak ba dakizki. ‘Maite-damu’ igazko batzaldian (1933koan, beraz) galdu egin zan (*El Día*’n ez baitzuten zerrendan zegokion lekuan agertu)”. Epaimahaikoak orduan Lekuona, Intzagarai eta Eme-terio Arrese izan ziren. Azken honi sari-eguna baino hiru egun lehenago eman zioten poesi sorta izugarria eta, “hau ez da formalidadea” esanez, ez zuen irakurri nahi izan. Berriro, hala dio Orixek, “Aitzol’ek saria P. Etxeberria’ri emon eutson”. Jadanik badakizu, irakurle, zenbat goretzi zuen honen “Bost lore”! Aita Estefaniak, ordea, Aitzolek ez bezala baloratzen du lehiaketa hartakoa, Orixeren biak

beste guztien gainetik jartzen baititu. Hala aitortzen dio berari isilean: “Beti lagun’ eta ‘Lizardi gurean’, gizona, polit politikak dira, eta 1936’ko Eusko-Olerkietan ziur politenak. Gure ondorengoak aitortuko dute ao batez. Itxaro daigun pakean!”. Prentsako kritikan idatzita, ordea, Aitzolek *Eusko Olerkiak* bildumako laugarren tomoko hitzaurrean (1933) dakarrena geratzen da: “Bost Lore’ ez da, orraitio berdin iritzia izan. Ba ditu aldekoak eta baita etsaiak ere. Epai maiekoen iritziko naiz, ni beintzat. Ezin arin yoka genezake eder-arazoa eskuartean darabilgunean. Eder-gaia aldeonetik eta alderantzetik begira bearrean gera. So-egiogun zorrozki gure epaia irauli baiño len”. Adierazten du bederen arazoa egon, egon dela. Orixe-rengana iristean, zerbait esan egin behar eta, ihes-bidetik jotzen du: “Orixe’reiak aitatu bearrik ez. Naiko bai-da norenak diran yakitea, aren olerkiak eder etsitzeko”. Konplimendu hutsa!

Hurrango urtean ere, 1934an alegia, aurkeztu zen Zarautzko lehiaketara. Ez balitz bezala, haren poesiak ez baitziren inon agertu. Zer gertatu zen? Aitzolek erretiratu egin zituela. Askotan baztertzen zizkion gutunazalak edota, poesia bat baino gehiago bidaltzen bazituen, onenak, lehen-saririk irabaz ez zezan. Hartze-ziurtagiria ba-zeukan, Eusko-Ikaskuntzan Estornes Lasari eskatuta. Baina alferrik. Zarautzko lehiaketan zehazki, lan bera berriro lehiaketara bidal ez zezan, argitaratu egin zion. Honela mintzatzen zaio urte hartan lehen saria irabazi zuen Jokin Zaitegiri: “Agertuko zun bildurrez, ez agertzeko esan nion kartaz, eta datorren urteko liburuxora baino len argitara eman dit. Ostera... Tapiaren eta Jauregi’reiak batzaldiz kanpora bezela iarri ditu. Zertako ez utzi besteen ondoan, sari gabekoen artean? *Amistades particulares!* ‘Aitzol’ ta Jauregi ta Barrensor, adiskide aundi izan dira Comillas ezkeru”.

Baina, azkenean, azeri azkarra zepoan harrapatu zuen: “*El Día*-k agertu eban, lelengoz, lan guztien zerrenda,

euren idazpuru, zenbatgarren eta guzti. Ori, batzaldirako epea bukatu zanean. An agertu da nire ori 'Imoz'ko apaizgaia' (eriotzea egin ebana), poemarako egiñik neukona. Sari-egun bezperakoan *El Día*-k emon dau bigarrenez zerrenda ori; baiña otarrera yaurtia, beti lez. Ioan nintzako bere etxera, ta: "Nererik ez dozu iason ala? 'Ez, onara ez da erdu'. 'Ba-da ordu", nik. Eta lelengo zerrenda erakutsi neutson". Sariak banatzeko bezperan egin zion ezustezko bisita hori, Nemesio anaiarekin etxean zegoela, hain zuzen.

Arrasateko lehiaketan (1935), poesi sailean, Luis Jauregiren "Maite opari" gaingitu zitzaion Orixeren "Angelus"i. Berotasun handirik gabe bidalia zuen: "Bedoñako norgeigokara igorria det, esperantza gutxirekin baino. Ortaz idatzi dit gaur Estefaniak: 'Angelus olerkia olerki yatorra ta bikain bikaiña deritzat. Baña zure usaiña dun ezkerro, bildur naiz...'". Poesian burua Luis Jauregiren aurrean makurrarazi eta gero, kontsola zedin, poema sailean eman zioten lehen saria "Arraunketa" rekin.

Aitzolen belaunaldia deituriko horretan (1930-1936), bada, Orixek ez du bereganatzen poesian saririk. Badirudi aurreiritziz baztertzen dutela. Hala uste du berederen berak.

Baina nork zentsuratu eta baztertzen du Orixe? Eta zergatik?

Bere barruko sentimenduak Amerikako bakardade-tik argitara ematen dituen "Lizardi Ameriketean" artikuluan aitortzen duenez, hiru bekaizti -Lizardiri eta berari inbidia zioten hiru bekaizti, alegia-, izan ziren *El Día*-tik zirika ari zitzaizkionak. Gero beste laugarren bat bildu zitzairen. Bakea nahi zuela eta, bere etxera ez gehiago bidaltzeko esanez idatzi zuen *El Día*-ra: "Yainkoagatik eta nere pakeagatik, ez dezaidazue geiago bialdu Egunkari ori". Hemen, ordea, bekaizti horien izenak gorde egiten ditu, zuhurtziak eraginda, noski, irakurleentzat idazten

baitu. Gutunak aztertuz gero, nik uste dut oker handirik gabe asma genezakeela nor izan zitezkeen lau horiek. Aipamenik zuzenena aita Santi Onaindiari egiten dion 1953ko gutun hartan aurkitzen da: “Ixillik eta bakarrik etxean nengola, ara be zirika ‘*El Día*’-tik, aren adiskide Tomas Garbizu, ‘Zubigar’ zanaren anaiak batez be –uno de los cuatro condiscípulos de Comillas: Aitzol, Jautarkol, Barrenoso, Garbizu”. Hara hor laukotea, Comillas-ko lagunartea, bere izen eta guzti. Baina lehenago ere esana zion Jokin Zaitegiri, aipaturiko 1934ko uztailaren 14ko gutunean, hain zuzen, Aitzol, Jautarkol eta Barrenoso adiskide handiak zirela Comillasko egonaldiaz geroztik. Geroago biltzen zaien laugarren hori, itxura guztien arabera, Garbizu dateke. Baina Lezoko Garbizu anaiaetik nor, Tomas musikaria ala Joan idazlea? Lehengoia, inolako zalantzarik gabe, testuan espreski esaten baita “Tomas Garbizu, ‘Zubigar’ zanaren anaia” dela. Gainera, ordurako hila zen “Zubigar” idazlea, 1930ean, hain zuzen.

Orixek begitan hartua daukana, batik bat, Aitzol da. Eta alderantziz, zerbaitegatik esan baitzion zozoak beleari ipurbeltz. Kontakizun honek adierazten du ondoenik zein gaiztotuak zeuden elkarren arteko harremanak: “Un mes escaso antes del alzamiento estuvimos en Lequeitio, en el homenaje a Azkue. El día de S. Pedro volvimos por mar hasta Deva y de allí en tren hasta S. Sebastián, el P. Alzo, Labayen, Aitzol y yo. Aitzol se colocó en popa junto a mí y en seguida empezó a pincharme, buscando pelea. Le dije que no la quería, pero tanto insistió, que diciéndolo tercera o cuarta vez ‘no quiero disputas’, pasé a proa. En Deva estuvimos viendo la Iglesia hasta la hora del tren. Una vez entrados en él, me volvió a hostigar; pero vine en silencio hasta cerca de Añorga, en donde ya no pude resistir y le dije que estaba (él) equivocado. En S. Sebastián, a la hora de comer, el P. Alzo suscitó una cues-

ción filosófica dirigiéndose a mí, no a Aitzol, y yo le dí la respuesta que me parecía. ‘¿También entiende Vd. de eso?’, me salta Aitzol. Mi respuesta fueron dos lágrimas como garbanzos, y no hablé más palabra. A él le gustaba llevar la batuta en la conversación, y en aquella materia estaba bastante ayuno”.

Bistan da testu horretan zirikatzailea nor den: Aitzol. Nonbait, asko gustatzen zitzaion maiseatzea. Toki guztietan eta guztiekin, Pio Montoiak kontatu zidanez 1988ko maiatzaren 25ean. Bidai taldean beste lagun batzuk ere han izanda, zergatik nahi zuen kalapita espreski Orixe-ekin? Kritika literarioaren esparruan orexarrak besteek baino itzal handiagoa egiten ziolako, agian? Uste honetako da bera: “Quería él sentar cátedra de crítico literario –no tenía ninguna formación para ello– y me mortificó todo lo que pudo a propósito del poeta Lizardi a quien yo elogiaba como merecía”. Alemanian literaturaren saillean espezializatu zen aita Estefaniak bazeukan, inork edukitzekotan, bere burua literatur kritikari aditutzat edukitzeko adina eskubide. Pastoralgintzatik literaturara azken orduan datorren Aitzol bezalako batek, ez. Horregatik, Orixek jesuita ikaskidearen iritzia arreta bereziz jasotzen du. Poesian “Mezenas” Lizardi izendatu zuen bezala, kritika literarioan aita Estefaniari ematen zion hitza. Elkarren arteko desakordioaren arrazoi nagusia, Pio Montoiaren ustez, bakoitzaren jarrera intelektualean zetzan. Aitzol modernozailea omen zen, gaurkotasunaren atzetik zebilena, atzerriko kultur korronteak eta arazoak ezagutzen zituena, mugimenduen antolaketa-lanetan trebea, baina, oro har, azaleko kultura zuena; Orixe, aldiz, klasikoa omen zen, jakintza greko-latinoan oso aditua, baina antolaketa-arazoetan Erdi Arokoa. Honen prestakuntza intelektuala harena baino askoz jantziagoa zen. “Kultura aldetik askozoz arinagoa zen”, zioen Aitzolez. Bien arteko konponezina, bada, pertsona-mailakoa baino gehiago



ikuspegi-mailakoa da. Hala bazen ez bazen, Orixek ez zion oroitzapen onik gorde izan, ezta hil eta gero ere. Hauxe idatzia utzi zuen 1943ko Saubiongo testamantuan: “Estas y otras pequeñeces humanas las pagó bien al fin de su vida”. El Salvadorreko Zaragozan, 1950ean, antzeko beste honako hau dakar: “Beste yauntxo ari ere Yainkoak zerua diola, abertzale on bezala illarazi baitzuten. Kaxkarkeri oiek garbitu zitun”.

Ez naiz ni nor Orixe eta Aitzolen artekoak zein neurritan ziren arazo pertsonalak ebazteko, horrelakoetan gizatasunaren eta arrazoiaren mugak finkatzea zaila izaten baita. Baina hau esanda, garbiago dagoela dirudi hikamika horien atzean kultur talde jakin batzuen arteko lehia ezkututzen dela hor. Diferentzia honekin, ordea: batzuk kultur plataforma jakin batzuen –kasu honetan egunkari eta aldizkarien– jabe direla beren ideiak eta asmoak aurrera ateratzeko eta bestek –Orixeren kasuan bezala–, berriz, ez. Lehen Orixek laukote baten berri eman digu. Lekeitioko pasadizoa kontatzerakoan, bitan zaitzen ditu orduko euskal idazleak, hots, Aitzolen maiteak zirenak eta besteak: “Lizardi ta Jaka-Kortajarena ta ni ez ginduzan bere deboziñokoak. Lauaxeta, Jauregi, Tapi-Perurena zituzan bere kutunenak”. Hemen, lehengo laukotearen zirkulua areagotu egiten da. Honek zer esan nahi duen? Euskal idazleek *tandem* intelektual gisa funtzionatzen dutela eta kultur plataformak beren irizpideak –kasu honetan literarioak– finkatzeko erabiltzen dituztela. Horixe zen, hain zuzen, Ibarrek salatzen zuena *Genio y Lengua* liburuan, Aitzoli batere gustatu ez zitzaiona. Euskal literaturari dagokionez, ikusi da *El Día*-koek nola bultzatzen duten eginahalean herri-literaturaren eredia.

Lagunarteko harremanetan harago sartuz, kontu eza-guna da Aitzol, Pio Montoia (hau ere Comillasko ikaslea) eta Jauregi adiskide minak zirela, elkarrekin sarri eta luze egoten zirenak. Pio Montoia Alegian bizi zen, Jauregi

Altzon. Alegiarrak esana errepikatzen dut hemen: Aitzol askotan joaten zela Altzora, eta bazkaldu, batzuetan Altzon eta bestetan Alegian bazkaltzen zutela elkarrekin. *El Día* egunkariaren ideia ere han izaten zituzten solasaldien harian sortu omen zen, Pio Montoiak kontatu zidanez: “Aitzol askotan etortzen zen gure etxera. Egun batean, San Jose egunean, esan genuen: egiazko euskal egunkari bat egin behar dugu, gipuzkoarra. Ez Alderdiarena. Gure planteamendua zen: nazionalistak izango gara, bai, baina ez dugu hala garela esango. PNVko jendea ere bazebilen asmo berarekin, hauen artean Barriola eta Migel Urreta. Asmo bakarraren inguruan elkartu ziren bai Alderdikoak eta bai apaiz taldea eta, honela, gauzatu ahal izan zen *El Día* egunkaria”.

Egunkariaren ametsa egia bihurtu zenean, haren zuzendaritzan hiru batzorde eratu ziren: administraziokoa, inspiraziokoa eta erredakziokoa. Lehenengoan Migel Urreta, Barriola eta Pio Montoia bera aurkitzen ziren; bigarrenengan, Aitzol zen lehendakari, Javier Landaburu zuzendari; hirugarrenengan, Jose Maria Benegas eta Lizardi, Jose Lekaroz buru zela. Aitzol genuen, bada, ideologi aparatuko buru nagusia. Zeukan kargua edukita, Aitzol zein mailatan zen nagusi galdetzen da. Batzuen ustea da, eta hauen artean Orixerena, *El Día* izan, Aitzol zela eta hark agintzen zuela. Pio Montoiak, ordea, leporatu izan zaion diktadore-fama kendu nahiko dio: “... nik ez dut esaten Aitzol ez zela sartzen pentsamenduan, nola jokatu behar zen eta, horrelakoetan. Baina ez pentsatu dena berak egiten zuenik, ez, ez... Besteek ere egiten zuten”. Beraz, Alegiako apaiz luzearen ustez, kulpa guztiak ez zaizkio Aitzoli bota behar.

Orixen eta Aitzolen arteko liskarra dela eta, soziologi gogoeta batzuk egin beharra sumatzen dut, literaturgintzan eta, maila orokorrago batean, kulturgintzan elementu hertsiki soziopolitikoak eta ideologikoak nola gurutzatzen

diren ikus dezagun. Elementu literarioen eta estraliterarioen gurutzamenduak aztertzea dagokio literaturaren soziologiari, hori eginez gero argiago agertzen baita literaturari buruzko balorazioetan elementu horietako bakoitzak duen eragin-indarra. Eginkizun honetan, jakina, gerraurreko testuinguru historikora mugatzen nauzu hemen.

Lehenik, arazoa ez da pertsonarteko harremanetan errua nork duen ezin erabakiz eztabaidatzen jardutea, baizik eta jakitea nork duen egiazko boterea, prentsan nahiz elkarte jakin batean eztabaida gauzatzen den unean. Maila honetan, ez dago dudarik, Aitzolek eragin berebizikoa du, izan, gune erabakigarrietan 1930etik aurrera: Euskaltzaleak-en eta *El Día* egunkarian. Erabaki, arazoiz edo gabe, asmatuz edo erdi-asmatuz, indarra duenak egiten du. Kasu honetan, Aitzolek. Ez berak bakarrik, baina, bai, nagusiki. Orixe sistemaz baztertua izatea ez da kasualitatez gertatzen, zitala edo izaera zailekoa zelako, haren iritzia interesatzen ez zirelako baizik. Aitzolek boterea zeukan, erlatiboa noski; Orixe, aldiz, deus ez. Honek luma erabil zezakeen –ez zen arma kaskarra–, baina besteek, lumaz gain, plataforma mediatikoen kontrolarekin ere beren alde jokatzeko zuten.

Bigarrenik, asko eztabaidatu izan da Orixe gerraurrean onartua izan zenentz arazoaren inguruan. Dudarik ez da aldekoak bazituela, dudarik ez kontrakoek ere ezin zutela ez miretsi. Pio Montoiak esan zidanez, Aitzolek Orixe miresten zuelako eman omen zion *Euskaldunak* poema idazteko enkargua. Bedi. Baina honek ez du esan nahi pentsamenduaren eta kritika literarioaren katedra beren eskuetan zeukaten kultur plataforma jakin batzuetan –jadanik aipatuetan– sistemaz baztertua izan ez zenik. Gauza bat da norbait mirestea, eta beste gauza bat onartzea. Askotan gehien miretsiak izaten dira gehien baztertzen direnak. Bi kontzeptu hauek, hots, mirespenarena eta onarpenarena ez doaz gizarte-harremanetan derrigorrez parean, eta bai sarritan kontrakarrean.

Hirugarrenik, aipatutako bi literatur taldeen arteko zatiketa joera berrizaleen eta klasikozaleen arabera egiteari ez deritzot egoki, sailkapen honek ez baitu nondik heldurik. Demagun Orixe hertsiki klasikoa dela. Bego. Baina zehaztu behar dena da, orain arterainokoan zehaztu izan den baino gehiago, horren kontrakarrean modernotzat aipatu izan direnak, adibidez Aitzol eta Lauaxetaren jarraitzaileak, zertan diren modernoak: hizkuntzaren berrikuntza? literatur baliabideetan? ideologian? Mailok oro ondo bereizi beharrekoak dira. Nire ustez, modernotasunaren kontzeptua ezin zaio aplikatu Aitzolen belaunaldiko ezein idazleri. Orduko euskaltzaleen ideologi osagarri nagusia, ANV alderdiaren joera liberala salbu, funtsean kontserbadorea da, JEL leinari hertsiki atxikia. Lauaxeta, poeta sinbolista eta inpresionista izanda ere, ideologia horretan kokatzen da, “euskaldun-fededun” eskemaren barruan. Modernitatearen ezaugarririk garrantzitsuenetako bat —ez bakarra, noski, baina bai oinarrizkoena durkheimiar zentzu klasikoan ulertuta bederen—, mundu-ikuskerari buruzko laikotasuna da. Kristauen Jainkoak ez du lekurik gizarte liberalean. Arrazoiak hartzen du fedearen lekua. Gaur egun adiera bera erabiliz mintzatzen gara gizarte sekularatuaz. Kasuren batean edo bestean modernisten zenbait literatur formaz baliatu izatea aski ote da horien erabiltzaileak autore modernistatzat jotzeko? Ez ote gabilta intxaur-azalarekin tximinoa engainatu nahita?

Laugarrenik, herri-poesia ala poesia landua, nork arrazoi? Funtsean, nik uste, horretara mugatu izan da 1930-1936ko epealdiko literaturzaleen arteko borroka guztia. Aitzolen 1934ko etsipenak ere, dirudienez, arrazoi linguistikoan du bere erroa. Haren hizkuntz egitasmo orokorrean, Ikastolen eraikuntzarekin batera, literaturari eman zion lehentasuna, pentsatzen baitzuen literatur mugimendua izango zela eragilerik bizkorrena euskal gizartearen bilakaera soziopolitikoan nahiz kulturalen.

Gizarte-faktore horien egokitzapena ez baitzen uste bezain optimista izan, Aitzolek poesia landuaren ereduari bota zion errua. Hortik letorke ezaguna zaigun tesia: herriari, beronek uler dezakeen literatura eman behar zaiola, alegia. Horregatik baztertzen ditu Lizardi eta Orixeren literatur estilo landua, hau gutxiengo bati zuzendua zegoelako, hain zuzen. Planteamendu honetan, berriro, bi maila daukagu bereizi beharrekoak. Gure ustez, Aitzolen hasierako planteamendu soziolinguistikoa da okerra dena, ez baita gauza frogatua gizarte-eragileen artean faktore kulturala dela garrantzitsuena eta, horren barruan, literatura. Honi ezin zaio eskatu bete ezin duen mirakulurik. Hauxe da erreformisten jokabide tipikoa, Aitzolena zen bezala. Eusko pizkundearen gorakadan desoreka gertatzen bada, horren zergatikoez galdegin behar zuen. Horretarako, arrazoiak bila literaturan geratu ordez, hasierako planteamenduaren zuztarretara jo behar zuen. Berak egin ez zuena, noski. Hortik dator nahasketa. Bada eztabaidatzeko beste bigarren puntu bat ere, eta da 1933az geroztik herri-poesiari ematen zaion garrantzia zein neurritan den onargarri. Nire ustez, gehiegizkoa da eta, hemen ere, bigarren makur hau Aitzoli egotzi behar zaio. Zeren alternatiba ez baitzen herri-poesia ala poesia landua, Aitzolek proposatu bezala, baizik eta lantzea, Lizardi batek zuhurki idatzi bezala, bai herri-poesia, bai poesia landua eta baita beste poesi motak ere, guztiak batera. Honez gero esan beharrik ez dagoela uste dut, luzarora –baita laburrera ere, baldin oreka gordetzen bada–, poesia landua dela errentagarriena eta herri baten literatura gehien aberasten duena. Ni bederen ez natzaizu hasiko, herri-poesiaren izenean, Lauaxeta, Patxi Etxeberria, Otamendi, Sukia eta beste hainbatena etxeratzen, horretarako Lizardi eta Orixe gutxietsi behar badira.

## IX. Orixe Lizardiren defentsan

Behin idatziak, bere garaian prentsatik desbideratuak izan arren, idatzita geratzen dira, eta betirako, iker-tzaileren bat noiz hurbilduko zain. Horixe gertatu da Orixe *El Día*-ra igorri eta hemen saskira botatako artikuluekin. Jendea “zer ari da Orixe, ezer idatzi gabe?” esaka zebilen. Bitartean, hura idatzi eta idatzi ari zen.

Eskuartean ditugun zazpi artikuluetatik, bi lehenek Altuberen *La vida del euskera* liburuaz dihardute; beste bostek, Lizardiren prosaz.

Lehen azaldua dut zerbait zein den Altuberen tesia liburu horretan: euskarak atzera egiten duela, besteak beste, euskara idatzia herriratzen ez delako. Arazoaren hondora joanda, Orixe bat dator Altuberekin. Funtsean arrazoi handia du, baina ez ematen dituen iritzi guztietan. Zertan ez? Hau da segidan argitzen ahaleginduko naizen galdera.

Orixe inplikatua sentitzen da Altubek eredutzat Kirikiñoren euskara proposatzen duenean eta, batik bat, honi buruz dioenean “que *él sólo* atrajo a *las letras euskéricas más lectores que todos los demás juntos*”. Orixe gogorarazten dio 40 urte horietan herri-euskara landu duen bakarra ez dela Kirikiño izan: “Volviendo a lo que más ha

herido por ahí, el Señor Altube es un excesivo admirador de ‘Kirikiño’, tanto que suprime a los demás escritores”. Bestalde, literatura jantzia eta euskara landua gutxiesteare ere gehiegikeria iruditzen zaio, herri xumearentzat gai arruntak ez ezik, jende ikasiarentzat gai igoak ere behar direla uste baitu: “Y en nuestro País hay buen número de gente ilustrada que desearía leer vasco, pero no lee, porque no va a buscar anécdotas, chascarrillos, relaciones de bodas, defunciones y cultos religiosos solamente, ni mucho menos kaikukeris, como diría ‘Irular’”.

Euskara zabaltzen, Kirikiñoz landa, beste asko ahalagindu dira. Hildakoen artean Txomin Agirrerren *Garoa* eta *Kresala*, Robustiano Ortuzarren *Oroigarriak*, Gregorio Mujikak *Argia*-n argitatutako kronikak eta *Pernando Amezketarra* ez aipatzearekin axolagabekeria negargarritz jokatu du Altubek. Bizien artean, euskara garbizalekeriatik eta gehiegizko neologismoetatik zaintze-ahaleginetan, Orixe ez da Kirikiñooren atzetik ibili *Santa Kruz apaiza*, *Tormes’ko itsu-mutilla* eta *Mireio* lanetan, ezta beste hainbat lanetan ere. Euskaraz inoiz landu gabeko lanetan ere, Orixe saiatzen da herri-iturritik ez urruntzen: “En otros trabajos que he procurado sean de avance para el idioma –en mi leal pensar–, trabajos de roturación de materias nuevas casi todas, por consiguiente no meramente populares, creo haber seguido un criterio bien moderado, introduciendo en ellos toda la popularidad de que yo era capaz”. Geroago, elkarrizketatu zuten batean, barkamena eskatu omen zion *Santa Krutz Apaiza* aipatu ez zuelako. *San Luis’en bizitza* obraren egilea, Markiegi zena, argitasun eta goxotasunean eredugarri dena eta neologismoak zuhurtasunez darabiltzana, hau ere ahaztu egiten du Altubek.

Gainera, gernikarrak uste duenaren kontra, idatzi, irakurle-mota guztientzat idatzi behar da, ikasientzat eta ez-ikasientzat. Arau hau beti gorde izan du Orixe.

Euskara hiltzen bada, ez da hilen ikasientzat idazten delako, erabiltzen ez delako baizik. Orain baino lehen esana zigun Orixek hau: “Hay que escribir para todos. Ni cien ‘Kirikiño’s, ni cincuenta Sénecas ni veinte Mistrales son capaces de salvar un idioma, sí de contener su caída, si éste no se salva por su uso en los labios, como muy bien pondera Altube”. Orixeri zerbait zor badiogu, eta asko, gai jasoetan hizkuntza landua erabili beharraren aldekoa izatea da, batez ere, garai hartan ez baitzegoen oso modan ikuspegi hori. Aldekoa izatea eta, oraindik esker-garriago dena, gai zailak erraz idaztea. Orixek orde, jesuiten eskolakoen antzera, kultura klasikoa euskaraz ematea zeukan helburutzat ezarria. Honek, gaurko hitzez esanda, euskara modernizatzea suposatzen du. Orixerengan badute aitzindariak *Euzko-Gogoa*, *Egan*, *Jakin*, *Zabal*, eta horien antzeko kultur aldizkariak eta UZEI erakundeak.

Arestian esan bezala, Altube Kirikiñoren miresle itsuegia da, bera ez beste idazle guztiak baztertzen baititu. Baina ez da ohartzen Kirikiñok ilun idazten ere baze kiela eta, ez gutxitan, akatsak ere egiten zituela. Haren esaldiak testuinguruaren laguntzari esker ulertzen dira, ez ideiak berez argi azalduta daudelako. Bizkaieraz badira, Orixeren ustez, hark baino hobeto idazten dutenak. Bat aipatzeko, haren ikasle izandako Arrugain bera. Gipuzkoan, *El Día* eta *Argia*-n adibidez, badira Altubek uste baino argiago idazten dutenak. Lizardiren “Gure bideko mugarriak” artikuluan datorren herri-euskara baino hoberik neke da Kirikiño baitan aurkitzea.

Altube, beste pasarte batean, puritanismoa dela eta, herriaren eta idazleen arteko dibortzioaz ari da. Egia da, herria alde batetik eta idazleak bestetik joatea, berez, jokabide arriskutsua da. Baina fenomeno hau ez zaigu euskaldunoi bakarrik gertatu, Alemanian ere antzeko zerbait gertatu izan baita. Urrutira joan gabe, Gaztelan bertan ere –Altubek uste duenaren kontra, hain zuzen–, nekazal



herri xeheak ez ditu ulertzen berari hizkuntza errazean zuzendutako idazkiak. Eta hau frogatzeko, Burgosko Pino de Bureba herrian gertatua dakar: Aita Santu Pio XI.a hautatu zutenean, batek “Pio once” baitzioen eta besteak “Pío undécimo”, babel hartatik herri xeheak ez zuen ezer garbirik atera ahal izan. Euskal nekazariak, aldiz, oso ederki ulertzen du kristau-dotrina berria. Nahiz eta euskarazko dotrina hau gaztelaniazko aita Asteteren testutik itzulia izan, euskarazko itzulpena gaztelaniazkoa baino askozoz ulergarriago da herri xehearentzat. Kristau-ikasbideetik hamar ikasgaitako zortzi izenburuak aztergaitzat hartuta, gaztelaniazkoan hogeita hiru hitz eta euskarazkoan hamahiru kontatzen ditu Orixek herriari ulergaitz zaizkionak. Kristau-ikasbidean, adibidez, hitzok jotzen ditu herriarentzako ezezagunak direnak: *kristau-ikasbidea* (Orixek “kristauak ikastekoa” proposatzen zuen), *done*, *gurari* (bizkaieraz), *nekaldi*, *birrerosi*, *nekaldu*, *siniskai*, *goi-maitasun*, *notin*, *adimendun*, *gogo-izaki*, *gogo* (“espiritu”) eta *almen*. Hala ere, oro har, txalogarria iruditzen zaio euskal apaizek, Manuel Lekuona buru dutela, egingdako lan hori. Hori horrela, Kirikiñoren *Abarrak* liburua baino askozoz garrantzitsuagozat jotzen du euskal apaizek buruturiko *Kristau-ikasbidea*, honek eragin zuzena baitu haurrengan. Hauek, herrietako apaizek diotenez, lehena go ikasten dute dotrina berri hau lehengo Astete zaharra baino. Neologismoaren nahiz purismoaren kontuan, Orixek, gehiegikeriak oro bazter utziz, erdiko bidea hartzen du. Honela, baldin hizkuntza aberastuko bada, neologismoak onartu beste erremediorik ez dago beharrezkoak gertatzen direnean: “No quiero autorizar con esto los neologismos, sobre todo para cuando se escriba para la masa popular; pero no se puede proscribir ni en este caso el uso moderado de ellos, testigo otras lenguas, so pena de contribuir a la falta de riqueza de la lengua. Si quiera en el caso extremo de no entenderse ni la palabra

neológica ni su correspondiente castellana, no es pecado hacer opción de la palabra que acaso llegue a cuajar”. Ez al da zentzuzkoa iritzi hau? Sabindarren garbizalekeria aspaldi kondenatu zuen, Altubek baino zorrotzago, gainera. Neologismoetan, berriz, ikusi duzu zein den irizpidea: neologismo ulergaitzak ez, sartuko direnak bai.

Aurre-ohar horiek egin eta gero, Lizardiren prosa aztertzeari ekiten dio 4. artikulutik aurrera, hizpidetzat haren *Itz-Lauz* hartuta. Zer frogatzeko? Prosan ere, Lizardi maisu dela, eredu. Kirikiño baino harago doa. Poesian hala dela, jadanik frogatutzat ematen du: “El hecho innegable es, que hoy, el libro *Biotz Begietan*, el abstruso e ininteligible libro de versos, es mucho más leído que *Abarrak*, a pesar de los pesares. Y no creo tener de ello la más mínima culpa; pues habrá muy pocos entre ellos que hayan leído mis artículos de crítica”.

Zein da, bada, Lizardi prosistaren ezaugarri nagusia? Markiegi eta Orixeren aburuz, hauxe: kontzeptuak, zeharka ibili gabe, zuzen adieraztea, argi eta zehatz, hitz baliokideen bidez. Lizardi izan genuen aztergaiak —hauek zailak zirenean, bereziki—, zuzen eta argi azaltzen saiatu zen ia prosista bakarra, idazle gehienek, esaldietan sekulako itzuli-mitzuliak eginez, ihes egiten baitzuten zailtasun horretatik: “Anotar, subrayar, apuntar, recordar, asimilar, era su constante práctica, puesta la mira en extenderla a todos los usos de un idioma cultivado, y no contentándose con decir vaciedades, aglomerar lamentaciones, o, lo que todavía sigue haciendo la casi totalidad de los escritores vascos, huir de las ideas de dificultosa exposición, alargándose cuando más, a la tarea cómoda de empedrar su redacción con insorpotables neologismos”. Hor dago meritua: gai zailean, ideiak erraz eta argi adieraztean. Irizpide honetatik abiatu behar du eztabaidak. Orixek, bere tesia egiaztatzeko, *Itz-Lauz* bildumako artikulua batzuk iruzkintzen ditu, metodo hau erabiliz: edukiaren

azalpena eginez hasi eta, bukaeran, bere iritzia azaldu laburkiro. Honela, maila deskriptiboan, Espainiako Diputatu-Parlamentuan egindako bilera baten estampa pintatzen deneko “Etxe-barne bizia” artikulua hautatzen du. Honen muina azaldu ostean, irakurleari gogoeta honekin zuzentzen zaio: “Lector amigo o enemigo de ‘Lizardi’. Lee todo el artículo y díme si en él hay claridad, popularidad (dentro de la materia), gracia personal (no la propia del asunto, sino la que el escritor le arranca), corrección, garbo, finura satírica”. Idaztankera honetan, lan hori baino oraindik hobea iruditzen zaio “Donapaleu’ra yoan-etorria”, literatur ikuspuntutik begiratuta, liburuko onena.

Idéia gaitzak zein ederki adierazten dituen erakusteko, edukiaren aldetik, “Erdi-bearra” artikuluari deritzo egokiena. Poesiagintzari eskainitako saiotoxo honen mezua da, euskaraz ere erdi daitezkeela gai sakon eta igoak. Herriak ulertzen ez baditu, ez da euskararen errua, euskara landu ez duen irakurlearena baino. *Biotz Begietan* liburuari gaztelaniazko itzulpena jartzearen arrazoietakoa bat, hain zuzen, horixe izan zen: alegia, hura gaztelaniaz irakurriko zutenek jakin zezatela gauzak ederki eta mami adierazten euskarak ez diola erdarari batere zorrik.

Lizardiren prosak idazleengan duen eraginaz mintzatzeko, aztergaitzat “Ez sari ta ez eskupeko” artikulua garratza dakar, “Kirikiño” sariaz idatzia. Haren izenean euskara omentzeko hamar mila pezetako harpidetza lortu nahi eta, ezin. Bitartean, Orixek gaineratzen duenez, “Gortazar” musika-sarirako ehunka mila pezeta bildu ziren. Kontraesan horren zergatikoa —ez, agian, nagusia—, Kirikiñoren euskarak euskal munduan zuen eragin apalean datza. Horregatik, Altubek dioenean berak bakarrik beste idazle guztiek batera baino irakurle gehiago erakurri zituela, Orixek bereizketa hau eginez erantzuten dio: “Cuando era él solo o casi solo quien escribía, claro que

sí; en fechas posteriores, claro que no”. Autore baten eragina neurtzeko, bestalde, irakurketa estentsiboa eta intentsiboa bereizi behar dira. Ez da berdin ehun irakurlek autore baten obra behin bakarrik irakurtzea eta irakurle batek obra bat ehun aldiz irakurtzea. Zentzu honetan, Orixeren hipotesia da Lizardiren *Biotz Begietan*-ek, *Abarrak*-en aldean, askozoz ere eragin handiagoa izan duela irakurle ikasiengan: “La experiencia sería un argumento abrumador en contra de Altube. Cosa natural, viceversa, que a pesar de no haber escrito Joxe Mari ningún libro en prosa, ha sido imitado por bastantes de solo leerle en el periódico, e imitado, no solo en el estilo, sino hasta en sus prácticas lexicales: en palabras bien formadas o extendidas a otros usos, y quizá viciosamente, en composición gramatical de palabras. Es que era escritor de fondo. Y lo que se leerá el libro!”.

Azken artikuluan, Lizardi alde batera utzita, euskarazko irakurketak duen zailtasunaz dihardu. Altubek uste du, irakurketa errazteko, hobe litzatekeela haurrek eskolan ikasitako erdarazko alfabetoaren arabera idaztea. Hau zen, hain zuzen, euskara herriratzeko baldintzetako bat, jadanik ikusia. Dударik gabe, psikologia esperimentalak erakusten duenez, txikitan ikasitakoa barruago geratzen omen da gero jasotakoa baino. Alde horretatik, erdaraz eskolatua izan den euskaldunak, euskaraz erdaraz baino gehiago irakurri arren, erdararako ohitura handiagoa edukiko du. Orixe ere iritzi honetakoa da, eta arrazoi honegatik: “... la lectura no se hace por composición o suma de letras, cosa que sería imposible dada la rapidez que leemos y fijándonos en la idea, sino por adivinación. Y teniendo los ojos y la imaginación hechos desde niños al grupo silábico castellano, es natural que hallemos más facilidad de leerlo”. Adibinazio honek, talde silabikoa ez ezik, hitza ere bere osotasunean hartzen du. Honela, Orixek jakinarazten duenez, Orixeko haur batek Iparral-

deko *Eskualduna*-k zekarren kronika batetik “Espainiako Errepublikak” irakurtzean, bietan “Españiako” esan omen zuen. Ideia hau, hemen baino lehen, analfabetismoaz mintzatzean ere aurreratua digu Orixek. Baina hemen eskura datorkio Altuberi esateko, irakurketari dagokionez, desberdintasunik badela herri-fonetikaren eta euskara idatziaren artean: “Con perdón del Señor Altube, hay relativamente mucho escrito en vasco (aun suprimiendo a Kirikiño), que es bien inteligible para el que está habituado a leer. Si los padres que se precian de patriotismo hubiesen enseñado a sus hijos antes de ir a la escuela un silabario vasco, que ya los hay, y a leer en vasco, vería Altube lo mucho adelantado que hubiera”.

Altuberekin bukatzeko, hor doazkizu azken ohar batzuk.

Bat: Kirikiño ez da herriak gehien irakurri duen idazlea. Badaude, egon, haren *Abarrak* baino eragin handiagoa izan dutenak. Bestalde, herri-euskararen eredu bada ere, ez da hala euskara jakintza-gaietan landu nahi dutezentzat. Berrogei urte horietan euskarari bultzadarik ez zaiola eman? Bai, noski, eta izugarria. Jemein eta Andima ere irizkide ditu baieztapen honetan. Orixek lau hamar-kada horien oso bestelako irakurketa eginez bukatzen du bere azken artikulua: “El tremendo anatema de Altube contra todos los escritores vascos (menos Kirikiño, a quien no se le lee), quienes a su juicio han hecho ‘ineficaces *todos* los esfuerzos realizados estos cuarenta años’, contra la ‘actividad vacua y esteril en producciones literarias artificiales e impopulares’ es completamente injusto, pues de ser justo, era cosa de aconsejar, en un primer movimiento impulsivo, a todos los que puedan manejar decorosamente la pluma, y además gratis en casi todos los casos, a que digan un responsorio a la lengua vasca con Unamuno”. Eta euskarak hil behar badu, ehortzia izan dadila hizkuntza landuari dagokion ohorearekin: “Repi-

tamos más bien otra conclusión: si nuestra lengua ha de morir, a pesar de Kirikiño y Urruzuno y de todos los escritores vascos, que tenga siquiera la gloria de morir habiendo intentado decir algo más que astracanas”.

Orixek, euskararen salbabiderako, jakintza-gaietan euskara modernizatu beharra azpimarratzen zuen, batik bat; Altubek, alderantziz, gai arruntak eta herri-euskara bultzatzen zituen. Helburu berberera iristeko, hara hemen bi bide desberdin. Adierazitzat ematen dugu zertan eta zergatik ez dagoen ados Orixe Altubekin. Dena den, ez daukate zergatik izan bi aukera horiek elkarrekiko baztertzaileak. Puntu honetan, esan behar da Altube baztertzaileago dela Orixe baino, zeren honek, herri-euskara errazean landutako gai arruntez gain, gai igoak jorratu beharra ezinbestekotzat jotzen baitzuen. Eta ekin ere, joera populista aski hedatuaren kontra, bide gaitz horri ekin zion. Eta nolako maisutasunez, gainera! Euskara errazean bertan, Orixeren *Santa Kruz apaiza*-k zer zor dio Kirikiñoren *Abarrak*-i? Ezer ez. Alderantziz gehiago. Eta arazoa teoriarik planteatuta, hizkuntz irizpide gisa, geroak ere arrazoi eman dio Orixeri, zeren gerraondoko euskara landuaren aldeko aldeak hortik jo baitu. Eta egungo terminologi ahaleginak ere hortik doaz, helburutzat euskara kultur tresna egoki bihurtzea baitute. Prosa akademikoa landuz lortuko du esparru horretan normalizatzea. Beste gauza bat da, arras desberdina, Orixeren euskara-eredua –lexikoari buruzkoa, batez ere–, helburu horretara heltzeko aproposena den ala ez ebaztea. Puntu hau, guztiz interesgarria izanik ere, beste maila batekoa da, UZEIk 1987an argitaratutako *Filosofia Hiztegia*-ko lehen tomoan datorren hitzaurrean esplikatzen dudana.

Bi: Lizardiren prosan, esateko gehiena laudoriozkoa bada ere, Orixek aurkitzen dio akatsik “Erdi-bearra” artikuluan, zehazki hiruok: “bereak eta bost”, “bereak eta bi” ordez; “nork gu burutu?”, “nork gurekin burutu?” ordez;

“zein elgorriek yoa”, “zein elgorrik yoa” orde. Akatsok gorabehera, Orixe eta Oiartzabalek 1958an argitaratutako “Axular, Mendiburu, Lizardi” artikuluan, azken hau beste bien gainetik jartzen dute sintaxian: “Onek, bai, garbitzen ditu Mendiburu, Axular eta Kikeron ere. *Itz-lauz* deritzan liburuan, euneko eunetan itzurren (sintaxia) egokia derabil. Eta neurtitzetan ere, etzaio arkituko, bear ba da, euneko bitatik gora. Guk *Lau urte-giroak* deritzan olerki bikaiña aztertu dugu, eta, 147’atik lau uts besterik ez, au da, euneko iru eskas”. Axularri ehuneko sei huts eta Mendibururi ehuneko sei-hemeretzi atzeman dizkioten bitartean, Lizardiri ehuneko bi bakarrik. Bada-go alde! Lizardi eredu da, ez bakarrik literaturan, baita euskararen erabileran ere. Ez al da sintaxia euskararen jatorriasuna ondoenik neurtzen duen hizkuntz elementua?

Hiru: Artikulu hauetan guztietan ez du ezertarako mentatzen Aitzolen izena. Polemika guztia Altubereren *La vida del euskera* lanarekin bakarrik du. Pentsatzen dut, kontrako daturik ez dudan bitartean, Lizardiren defentsa hau Aitzolek “Balance literario euskeldun de 1934” artikulua egin baino lehen egin zuela, hau da, 1935. urtea hasi baino lehen. Hala ezean, ez diot esplikaziorik aurkitzen Orixeren Aitzolekiko isiltasunari. Honek hor Lizardiren *Itz-Lauz* prosa-liburuari egiten dion kritika kokkorra irakurria izan balu, segurutik erantzungo ziola. Gehiago oraindik bere *Barne-Muiñetan* poesi liburutxoaren haren kritika ez hain positiboan inplikaturik egonda.

El Salvadorreko Zaragozan, berriro 1950ean Lizardiren literatur balioa errebindikatzen duenean, ezezaguna zitzaigun eta ustez galdua genuen gerraurreko Lizardirenganako oroitzapen historikoa bere osotasunean berreskuratzeko giltza jarri zigun eskuan. Orixeek Lizardi prosistaz egiten duen defentsa –honena, batez ere–, sakonkiago ezagutzeko modua izan dugu. Lizardik ez zuen orduan izan Orixe adinako abokaturik.

Tolosan, hil baino hiru hilabete lehenago, 1961eko maiatzaren 28an hain zuzen, hurbiltzen da azkenekoz Lizardiren oroitzapen eztira. Honen omenez poesi lehia-keta bat antolatu zen eta, orexarraren zoramenerako, bere “Lau urtaroak nere begietan” poesia irabazleak itzuli zion hainbeste bider ukatua izan zitzaion poz zirrara. Bitartean justu 30 urte luzeak pasa eta gero, Lizardiren “Urte-giroak ene begian” eta Orixeren “Lau urtaroak nere begietan” besarkatzen dira, edermena izadian urtuz gero, edertasun absolutuaren noiz-nongo azkengabeen laster elkarri agur egingo dioten esperantza osoarekin. Tolosako omenaldian irakurritako hitzaldia Orixek Lizardiz ematen duen azken iritzi gisa har dezakegu. Lehen mingainetik lapurtu zioten poeta orain bere du. Luis Mitxelenaren *Historia de la literatura vasca*-tik hartutako pasarte hau hartzen du mintzagaitzat: “En los últimos años de su vida, probablemente bajo la influencia de Orixe, tendía a un tipo más simple –más popular– y aparentemente menos trabajado de poesía, abandonando un poco la concisa densidad que hasta entonces le había distinguido. Es un camino apenas emprendido y sería evidentemente ocioso hacer conjeturas sobre los resultados que andando por él hubiera llegado a obtener”.

Beraz, pasarte horretan bi galdera egiten ditu Koldo Mitxelenak eta horiei erantzuten galtzak bete lan hartuko du bere mintzaldian: Lizardik bere baitatik sortua al zuen bere poesia, ala beste nonbaiteko urak ere bildu zituen bere pitxarrera? Eta segidan, beste hau: luzaro bizi izan balitz, bere burua gaindituko ote zuen poesian?

Lehenengo galderari oso erraz erantzuten dio. Zer-gatik? Lizardiren poesia onenak, papera zikindu baino lehen ezagutzen zituelako. Harekin batera sarritan ibiltzen zen, mendian gora, Urkizu parera iritsi arte. Bidean zeharkatzen zituzten baserriak (Arane, Bereterbide, Mutitegi besteak beste), pagadiak, sagastiak, soilguneak,



belardiak, gurdibideak zein bidezidorrak, Lizardiri bezain ezagun zitzaizkion Orixeri. “Lau urte-giro oietan ez da batere xeetasunik nik ikusi ez dudarik”. “Paris’ko Txolarre” poesiak, berari kontatu zioenez, egiazko gertakari bati erantzuten dio. “Oia” eta “Xabierto’ren eriotza” egiteko ez zeukan eredu bila etxetik kanpora joan beharrik. Lizardiren poesiak oro bere bizipen pertsonaletik sortutakoak dira, ez irudimenak nonbaitetik ekarri eta nolabait asmatutakoak. Lizardiren poesia izaki pertsonala da, izadiko gauzetan, gizarte-gertakarietan, giza bizipenetan hezurramitzen dena. Biribil dio Orixek: “Itz batean, aitortu ditekela dirudit, bildur aundi gabe, Lizardi’k bertso-gaia bere bereki dula, aundizka ta erabat artuz, beintzat. Xeetasun bat edo beste ba ditezke an emen, besteren kutsua dutenak; baiñan orrek ez dio kentzen ezer berezko jatortasunari”.

Inoren ukiturik baduenentz? Orixek, Lizardi baitan, bi kasutan bakarrik aurkitzen du nolabaiteko asoziazioa beste poetekin, batean Horaziorekin eta bestean García Lorcarekin. Lizardiren “Pagadiaren ume yaukula” esaldiak, Orixeri Horazioren “silvae filia nobilis” gogorarazten dio. Horaziorentzat bezala, Lizardirentzat ere, ume hori neska da. *Olerti* irakurtzean, García Lorcaren euskara itzulitako bertso batean, oso lizarditarra zen gauzaxo bat aurkitu zuen han, baina hori zer den ez du zehazten. Orixeren ustez, ordea, ez bata eta ez bestea ezagutzen zituen Lizardik: “Etzait iruditzen Horazio beñere irakurri zunik... Ez Machado’tarririk, ez Juan Ramón Jiménez, ez García Lorca, ez nitun nik ordu artan ezagutzen. Orain, izenez, ez irakurriz. Lizardi ere nere moduan zebillela nik uste. Ez genitun aitatu beñere poeta oiek, ez besterik ere. Ez gendun liburutegirik, literaturazkorik beintzat, ez ark eta ez nik. Irakurtzeko betarik eta amorreriorik ere ez. Naiko lan gendukan gure euskerarekin. Bein bakarrean ikusi nion eskuetan olerki-liburu bat: *Las*

*cien mejores poesías líricas castellanas*, Menéndez y Pelayo'ren bilduma". Tolosako hitzaldian hori badio ere, lehenagotik, "Markiegi zana" artikuluan (1950) hain zuzen, oso garbi esana zeukan atzerriko literatura garaikidea berak baino hobeki ezagutzen zuela: "Aski argitasunezko zan, eta gure aldi ontako ele ederra, batez ere atzerrikoa, nik bañon obeki ezagutzen zun".

Lizardi hain ondotik ezagutu zuen Orixeren pasarte horiek irakurri eta gero, Manuel Lekuonari egindako elkarrizketa batean, Lizardiz ari dela, "estaba influenciado por la nuevas corrientes literarias con las que mantenía relaciones, relaciones que Orixe no hubiera podido admitir; se carteaba con Antonio Machado y era admirado por Federico Lorca" irakurtzen duzunean, egia esan, ez dakizu zer pentsatu. Ez dakizu nori hitza eman eta nori kendu. Anjel Zelaieta, berrikiagotan, Orixek Lizardirengan izandako eragin hori azentu, errima, aglutinazio eta epikan gauzatzen dela idatziz badatorkizu, berriz, nahasketa handiagotu besterik ez da egiten.

Barka nazazu, irakurle, aipu horien joan-etorrian horrelako ibilaldia eginarazi badizut eta egiaztatu gabeko zenbait balorazio eta judizio egiazki zalantzan jartzen baditut. Kritika literarioaren prozesua azaltzeko ez zaigu bururatzen beste bide bat hobeagorik. Manuel Lekuonaren kasuan bezala, helburua Lizardi Orixe baino modernoagoa dela baieztatzea baldin bada –nik ere hipotesi gisa onartzen dudan suposizioa–, eman diren baino froga gehiago eman behar direlakoan nago. Esate hutsa ez da nahikoa.

Orixeren eraginik nozitu zuela ere idatzi izan da. Puntu hori azpimarratzen lehena Markiegi apaiza izan zen *Itz-Lauz*-i eginiko hitzaurrean: "... aren buruyazten onen edergaillu-ixuria noraiñokoa izan denik ez bide da erraz mugatzen...". Orixek eskertzen du goraipamen hori, baina ez onartzen, bereizketa garrantzitsu bat egiteke. Eragina, izatekotan, bazukeen hizkuntzaren aldetik,

ez literaturarenetik. Puntu honetaz espekulazio dezente egin baita, testua bera ekarriko dizut den luze-zabalean: “Solo en el caudal lingüístico, tesoro que debe ser común a todos los vascos, se puede hablar de lo que, favoreciéndome la mejor condición en que yo estaba para adquirirlo, pudo aprender de mí y de otros autores, sobre todo orientales. Otra cosa muy distinta es la influencia literaria. No hace falta ser gran crítico para echar de ver que estilísticamente no hay nada común en ambos. Tanto más interés tengo en refutar esta idea, cuanto que, de ser ella verdadera, demostraría haber sido yo muy mal pedagogo. Creo haberle dejado en todo a su propia iniciativa... Quiero dejar las cosas en su punto, afirmando que la influencia mía (en el verso y en la prosa de ‘Lizardi’) no ha sido más que de mera información lingüística; absolutamente ninguna la artística”. Tolosako hitzaldi honetan, galdera hori lagunartean entzuna izan duelako, berriro ezezkoarekin erantzuten du, baina orain xehetasun batzuk gaineratuz: “Poesi gaiean ez ta batere. Bertso bat, lerro bat (ez koplak bat) ikutu nion liburu guzian, berak esan nai zuna polikixeago esateko asmoz, napaesaera bat emanetz, eta RIEV’ en iritzia eman zionak, ori egotzi zion, euskera ez litzalakoan. Emen, bai esan dezakedala: Orixek egin pekatu ta Lizardi’k penitentzia pagatu”. “Xabiertxo’ren eriotza” poesian, mugimendua beranduazten ziotelako, lau edo bost koplak kenarazi zizkion, haren emazteak behin ere barkatu ez zion ausardia. Beste behin, prosan, zuzenketa bat egin zion, “Donapaleuko bidean” ordez, “Donapaleura bidean” jarritz. Baina, aipaturiko salbuespen hauez gain, badu Orixek isilik gordezten duen eta Manuel Lekuonak –oraingoan ederki asmatuz–, jakinarazten digun zentsura-asmorik ere: “Lizardi, espíritu delicado en toda la extensión de la palabra, consultó con Orixé la conveniencia de publicar un poema que con toda finura había dedicado a su noche de

bodas. Orixe le disuadió de hacerlo, pero Aitzol, que conocía la obra, consideró que la categoría de la pieza no sólo merecía su publicación sino que recatarla suponía un fraude a la poética vasca, y, sin más, la publicó en la página literaria del periódico *El Día*. Orixe se ofendió mucho y tuvieron una gran polémica”. Zalantzarik gabe, zeukan sexu-moral hertsia behartu zuen horretara.

Lizardik Orixerengandik ikasi, euskara ikasi zuen. Gaztetan atzenda egon zen, baina Orixek ezagutu zuenerako autore zaharrak eta bere garaikoak irakurriak zituen. Elkarren adiskide izan ziren bospasei urte haietan, elkarri lagunduz, asko aberastu zuen euskara: “Nik nere aldetik ekartzen nizkion, Oreja’tik, Uitzi’tik, Euskaltzaindi’tik nerau ikasten ari nintzeneko gauzarik berrienak”. Hilondokoan, zenaren paperak miatzen ari zela, ohartu zen bere artikuluak begiratuki aztertzen zituela, egunkari batetik jasotako bere artikulu bat berrogei arrasto gorritz mantxatua aurkitu baitzuen.

Beraz, esana laburtuz, honetara mugatzen da Orixeren lehen erantzuna: eraginik ez poesian, euskaran bai.

Zailago zaio bigarren galderari erantzutea. Orixerentzat, Liburu Santua at utzita, Fray Luis Leóngoaren “La vida del cielo” da odarik ederrena. Helmugatza hori hartuta, jo ote zezakeen gailur hori? Orixeren erantzunean bi maila bereizten dira. Euskarari dagokionez, dudarik ez artean ontzeko zegoela eta aurrera egin zezakeela: “Ua baño amabost urte lenago asi nintzan ni euskerari ekiten, eta ua ilda ogeitamar urtetan, oraindik ikasten ari naiz, eta nik dakit nola nabillen. Ez da, bada, arrigarri, Lizardi’k an emenka izketa gogortasuntxo batzuk izatea, asko ikasi ba’zun ere”. Poesiagintzari dagokionez, Orixek ez du uste *Biotz Begietan* baino maila handiagoko beste libururik egingo zuenik: “Ez; bere neurri osoa eman zigungun, aukeratu zun maillean”. Poesia erlijioso profanoa baino bikainagoa zela uste baitzuen, agian genero horretan

saiatu izan balitz, bazitekeen hoberik egitea. Hemen ageri da berriro nola, Orixeren arabera, gai jakin baten aukeraketak egiten duen poemaren bikaintasun-maila handiagokoa ala txikiagokoa izatea.

Orixek, bere gizatasun handi-txikian, Lizardi poeta adina maite izan zuen Lizardi gizona. Eta maitatu adina miretsi. Tolosan, 1931ko poesi lehiaketan lehen saria jasotzera joan zenean, euskaltzaleen artetik aurrera joan eta, gizon bat besarkatu zuen: Orixek. Herri berean, Lizardi zerraldoan hilotz zetzalarik, gau osoa beilari egon zitzaion, gelatik irten gabe. Halako batean, belauniko jarririk, musu bat eman zion bekokian. Goizeko bostetan lehen meza entzun eta, buldaren barkapena erantsiz, biak gorputzez aldendu ziren. Lizardi azkenekotan zela jakin zuenean, Orixek ez zuen hiltzen ikusteko bihotzik izan. Hain zuen lagun handia! Lizardiren heriotzaldian gertatutako xehetasun hurbilak, pasarte hunkigarri honetan doazkizu, Orixek berak kontatu bezala: “Ni ordurako Oreja’n ari nintzan; baiña noizean bein Bilbao’ra joaten nintzan. Azkue’rekin eta Olabide’rekin batzordeko bainintzan iztegi-lanetan, gure lana batzarraldietan esamiñatu zedin. Arratsalderdi batean: ‘Joxe Mari azken-xamarretan dala’. Ba-noa korrikatxikin Begoña’ra. An bizi baitziran Lizardi’ren emaztearen anai ezkondua, ta anaiarrebaren aizpa. Bertatik bertara bezela jabetzen giñan telefonuz Tolosa’rekin nola zijoan. Ontan, ‘Joxe Mari’k azken burruka dula eriotzarekin’. Altxatzen gera, ta, ‘goazen, esan zidaten, gure kotxean joango zera’. Ni trabatu nintzan pixka bat, eta erantzun nien: ‘Ba-noa atzetik trenez; ez det aguroegi iritxita gizon ura iltzen ikusi nai’. Artu det trena Atxuri’n eta Amara’ra. Ni Tolosa’ra orduko illa zan”.

## X. Estefania eta Mokoroa Orixeren defentsan

Lizardi miretsia eta aldi berean baztertua, norbaitek defendatzen badu bere osotasunean, hori Orixe dela frogatzen saiatu gara. Hura defendatu zuen, hil aurretik eta ondoren. Baina Orixe miretsia, bai, baina erabaki-lekue-tatik aldenduak izan ote zuen defendatzailerik? Galdera hau geratzen zaigu erantzunaren zain.

Lizardi desagertu eta gero, euskarari buruzko ezta-baidaren haize-erauntsiak aurrera segitzen du. Arazoa zuzenean populismoa/kultismoa formulapean planteatzen ez bada ere, azpi-azpian juzgatzen dena da ea zer euskarra-mota erabili behar den eta ea zein den bultzatu beharreko poesi eredu.

Orixeren eskolari dagokionez, bi izen handi dira –J. M. Estefania jesuita eta J. M. Mokoroa eskolapioarena–, haren literatur autoritatea beste guztien gainetik oso nabarmen jartzen dutenak.

Badakizu nola aita Estefaniak aitortzen zion Orixeri gidaritzat euskal letretan. Ez zuen beste inor ikusten hura bezain jantzia literatura klasikoaren eta hizkuntzaren eza-gutzan. Orixe, halaber, aita jesuita ikaskidea baino kritikari hobegorik ez du ezagutzen, gutxiago onartzen.

Biok, bakoitza bere arloan, doinu berean sintonizatzen duten autoreak ditugu.

Orixek bi liburu ditu Orixeko egonaldian landuak: *Barne-Muinetan* eta *Euskaldunak*. Lehen poesi liburu-txoa argitaratu zuenean, Lizardi zenaren eraginari esker argitaratu ere, bere idazlan argitaratuak nahiz gabeak inork baino hobeto ezagutzen zituen aita Estefaniaren itzalean agertu nahi zuen Orixek irakurleriaren aurrean. Aitzolek ordea, obra horren balioa asko erlatibizatzen baitu, ez bakarrik egilea, aurkezlearen honi buruzko iritzia ere neurri berean hipotekatu egiten du. Jesuitaren aburuz, Orixeren poesia erlijioso hauek lirika hutsa dira eta, onenetakoak, gainera, genero horretan. Kanpoko literaturari begira jarriz gero, genero berean, harenak ez dio ezer zor Droste-Hükshoffs, Verlaine, Manzoni, Verdaguer, edo Gabriel y Galán bati. Haren poesi nortasuna gehien ezaugarritzen duen elementua da, hain zuzen, ezin hobeki elkartzen dituela, batetik, burua eta bihotza eta, bestetik, poesia landua eta herritarra. Poesia on baterako ezinbestekotzat jotzen diren baldintza estetiko nahiz linguistiko hauek harreman orekatuan bateratzen dituen bakarra, Orixe da. Hauxe dakar liburuari egiten dion hitzaurrean: “Ondorioz ordea, poesia iatorra, benetan gogokoia, bere-beregandikoa, sakon, goitar, xume agertzen dana; barnegiro klasikua ta kristau-biotz goriatu ta errainu darakustzina. Poesi iatorra, gain gainekoa, oro dendu, gartxu, osasun, naiz kristau-arauz, naiz antze-arauz. Eta bere ariko guziei edo guzietsuei alde au kentzen die: ezikasientzat ere erritar, adi-errez izatea. Bakarra dugu Orixe ikasizko ta erritikako antzea, ots, ikasiaren eta erriaren burutapena elkartze ontan”. Haren poesia izan daiteke, agian, intuiziozkoa baino areago gogoetazkoa eta hortik datorkioke halako lehortasun antzeko zer-bait. Azaleko akats hori, ordea, erraz zuzentzen du bere kristau-sentimendu zindoaren bidez: “Biotz-eragin sendoa

baitute ordea, aitzaki ortatik lekura daude”. Eta bukatu, *Tormes’ko itsu-mutila* (1929) eta *Mireio* (1931) itzulpenak kritikatzeko zeukan iritzi bera sendotuz bukatzen du bere hitzaurrea: euskal literaturak Orixe duela gidaririk onena. Horra nola bilakatzen den aita Estefania Orixeren apologista.

Aitzolek, bere lekuan ikusi genuenez, errotik ezeztatzen ditu aita Estefaniaren tesia sostengatzen duteneko bi suposizio horiek. Aita jesuitaren hitzaurrea dauka begien aurrean dioenean, batetik, “no participamos, con todo, de la opinión de quienes creen dotado a ‘Orixe’ de un equilibrio de facultades intelectuales y sentimentales” eta, bestetik, “hubiéramos deseado nosotros que también en la producción poética de ‘Orixe’ hubiera dominado más acentuada aun su tendencia, siempre sana, de lo fluido, de lo inteligible, de lo natural”. Noski, kritika honen bidez, Orixeri gidari-titulua kentzen zaio. Baina eginez goazen ibilbidean hau ez da kontu berria, nahiz beti berritzen den kontua den.

Kritika horiek, eginak izan ziren garaikoak izanda, eskola desberdinen polarizazioak nabarmentzeko baka-rrik balio dezakete. Ez gehiago. Izan ere, artikulutxo edo hitzaurretxo batek eman dezakeen neurri estuan, gehiagoko frogarik gabe, ezeztapenak adina balio dezake baieztapenak. Arazo hau lan monografiko baten bidez baka-rrik argi daiteke. Nik hemen, soilki, Aitzolen artikulua zein testuingurutan irakurri behar den azaldu nahi izan dut. Aita Estefaniaren buruz buru Aitzol dago.

Bigarren apologista Justo Maria Mokoroa da. Hon-ek, Aitzolen “Balance literario euskeldun de 1934” artiku- luak eta Altuberen *La vida del euskera* saiakerak era- ginda, *Genio y Lengua* liburua argitaratzen du Tolosan, 1936an, “Mocoroa hermanos” argitaletxean, jadanik eza- guna zaigun “Ibar” izenordea erabiliz. Honen ustez, ez Aitzolek ez Altubek planteatzen dute zuzen euskararen



arazoa. Horien ustez, euskara galduz doa, arazoa literatur mailan planteatuz noski, herriak euskaraz irakurtzen ez duelako, eta ez du irakurtzen berari arrotz zaion hizkuntza ematen zaiolako. Aitzolek esango duenez, landuegia, ikasiegia; Altubek, aldiz, garbiegia. Ondorioa, kasu bietan, berbera duzu: herri euskaldunak euskararekiko axolagabetasuna agertzen duela. Azken punta hone-tatik heltzen dio Ibarrek eztabaidaren hariari: “Y si, efectivamente, la explicación de la esterilidad estriba en la indiferencia, es evidente que con estimular a los escritores, el problema verdadero seguirá en pie, y notablemente complicado. Porque, ¿cómo sacudir la indiferencia?”. Beraz, herriaren deseuskalduntzeari aurrea hartu ahal izateko, lehenik haren kausak ezagutu eta gainditu behar dira. Arriskuan dagoena, euskal izaera da, Ibarrek “genio vasco” deitzen duena: “Nosotros lo referimos a la ‘mentalidad’ y a la ‘sensibilidad’ del pueblo que forjó el idioma: y pensamos que *genio idiomático es el reflejo directo del genio nacional*”. Izaera hori, bada, zerbait psikologikoa da, gizatalde oso bati dagokiona eta hor, hizkuntzaz gain, beste elementuok ere sartzen dira: etxe-ohiturak, foru-erregimena, forma artistikoak, musika, dantza, kirolak, eta abar. Egilea “euskal izaera” hori arrisku bizian dagoela baieztatzen daramaten arrazoiak, jarraiko hauek dira: a) irakaskuntza osoki erdalduna; b) nahitaezko soldaduska; c) inmigrazioa; d) moda kosmopolitak –kanpotik etorritako dantza eta kantuak, batez ere–, eta kultur tresna arrotzak; e) zapalkuntza sistematikoa. Zergatik hauen ondorioz, euskal izaerak eragin kaltegarriak nozitzen ditu, hala nola: a) barne-migrazioa nekazal gizartetik hiri-gizartera eta, ondorioz, baserri-jatortasunaren beherkada; b) dantza lotuaren gorakada; c) ohiko euskal gizabidearen galera; d) ikuspegi hierarkikoaren krisia; e) erlijiositate-sentimenduaren murriztea; f) euskararen indargetzea.

Egoera horren aurrean, zer egin den Eusko pizkundearen barruan? Justo Maria Mokoroaren erantzuna, oro har, ezkorra da. Ez gauza handirik, eta hori ez da horrela gertatu euskararen alde lanik egin ez delako, euskarazko kultur plataforman helburuak eta bideak desegoki planteatuta eta finkatuta egon direlako baizik. Euskal kultur-gintzan egitasmoak huts egin du. Berak, estrategia egoki baten falta lau mailatan bederen ikusi bide du, banan-banan aipatzera noazkizunak.

Lehenik, prentsa-mailan —eta hemen sartzen ditu *Ekin* eta *Argia* astekariak eta beste egunkarietako euskal atalak—, euskarazko informazio egokia bideratzeko xedea baino gehiago norberaren interesak aurrera ateratzeko asmoa sumatzen du. Partidismoa, sektakeria, alegia. Esana, biribil esaten du: “He ahí, pues, un hecho manifiesto cuya trascendencia a nadie podrá escapar: al cabo de tantos años de actividad renacentista, el público euskaldun no dispone siquiera de una hoja de información; y para asomarse cada mañana al mundo de la actualidad —a su propio mundo— necesita echar mano del antejo espiritual de la prensa erdérica”.

Bigarrenik, literaturari dagokionez, ahalegin alfer asko eta asko egin da, funtsean azken helburuaren sostengu den herri xehearen egiazko interesa ahaztu delako. Eta ahaztu, bi arrazoi hauengatik: batetik, egin diren itzulpenak eta berezko beste lan jasoak modu ulergaitz batez burutuak izan direlako eta, bestetik, beste hainbat idazlan edukirik gabe eta, zenbait kasutan, euskara gaiztoan idatzita daudelako. Ahaleginak, handienak izanda ere, hutsean erortzen dira ondo bideratzen ez badira: “... nuestra literatura renacentista ha sido desafortunada en el ejercicio de su función tutelar del idioma, por falta de sentido del fin y de sentido de la realidad; muchos esfuerzos baldíos o torpes han impedido, o contrarrestado o desvirtuado en la práctica la mayor parte de la producción meritoria y aprovechable”.

Hirugarrenik, hain zuzen euskarazko kulturgintzari norako zuzena eman ez zaiolako, bi makur galanta ekarri dizkio euskal literaturari, egileari berari zehazten utziko dizkiodanak: “impopularidad de la literatura y desprestigio de la lengua, en cuanto al público; falta absoluta de estímulo o emulación, y desgana consiguiente, en los autores de valía, éditos o inéditos”. Irakurlea aspertuta, idazlea gogaituta, bide horretatik ez dator euskararentzako etorkizun onik.

Laugarrenik, aterabideari dagokionez, ageri da idazlearen eta irakurlearen interesak zaindu eta piztu behar direla. Bienak. Baina nola egin lotura hori Euskal Herria kultur asimilazioaren ondorioz bere izaera galduz doan une larrian? Zalantzarik gabe, literaturgintzaren bidez, politikak alderdikeria baitakar. Literaturak, baliozkoa izan dadin, egiazko euskal bizitzan oinarritua izan behar du, gure kulturaren esanahi espirituala zuzen jasoko duena, alegia. Orixeren *Euskaldunak* poema da, izan, euskal ari-maren interpretazio estetikorik behinena gauzatzen duena eta, ondorioz, euskal literatura ateka gaiztotik askatzeko bidean jar dezakeena.

Orixek ez du izan –izkribuz txertxatua gera bedi hau–, Ibar bezalako apologistarik. Bere osoan ematen dizut, kritika literarioaren historian jadanik historikoa izatera iritsi den pasarte hau: “Un acontecimiento literario de estos días, llamado a adquirir celebridad histórica, previene felizmente la objeción, y conforta nuestro patriotismo con el socorro más valioso y oportuno. En efecto. Por disposición providencial de Dios, ha surgido entre nosotros un hombre extraordinario, de temperamento, sensibilidad e inspiración geniales; el cual, de la abundancia de su propia vida, pletóricamente vasca, acaba de plasmar la figura viva de nuestro genio en una epopeya folklórica imperecedera. El ha acertado a reunir y articular en un sistema ideal de armonía y esplendor las piezas

orgánicas dispersas de la civilización vasca. Su esfuerzo llega, pues, a tiempo para salvar nuestra empresa renacentista, encarrilándola por la ruta verdadera. Lo decimos con toda la convicción y lealtad que hasta ahora hemos puesto en el diagnóstico de nuestros males; con igual independencia de juicio y el mismo espíritu levantado: *en el poema Euskaldunak de 'Orixe' tiene ya el pueblo vasco el instrumento virtual de su re-generación*".

Poema honek, bada, Ibarrek egiazko literatura bati eskatzen dizkion baldintza guztiak betetzen ditu: a) egiazale izatea edota, bestela esanda, herri-bizitza den bezala kantatzea; b) irakurlearen interesa pizten duen goi-mailako literatur lana izatea eta hizkuntza maisuki erabiltzea; c) euskal estetika gorenaren lortzea edota, errazago esanda, euskal nortasuna euskaldunari etxeko zaizkion baliabide estetikoaren bidez adieraztea. Formaren aldetik, Orixeren poemak iritzi hau merezi dio: "Trasunto de la obra de nuestro Genio en cuanto al fondo, es también el Poema de 'Orixe', por su forma, una obra maestra de sinceridad humana, talento literario y estética euskaldun". Orixeren poemak dohain guztiok ditu.

Ez dut dudarik egiten Justo Maria Mokoroaren asmo nagusia Orixeren izena eta honek errepresentatzen zituen mundu-ikuskera eta literatur estiloa errebindikatzerara zetorrela. Liburua sortu eta burutua izan zeneko testuinguruak berak ziurtatzen du hori. Baina nondik datorkio Ibarri Orixerenganako erakusten duen atxikimendu hain gartsua?, galdetuko du irakurle zuhurrak. Nolatan mintzatzen da liburuan *Euskaldunak* poemaz, hau artean argitaragabea baitzen?

Egilearekin berarekin 1988an izandako elkarrizketa eta harremani esker, galdera horiek zerbait argitzeko modurik badut. Zorionez, zeren testuinguru biografikoak, askotan, kultur egitateak argiagotzeko lagungarri izaten baitira. Kasu honetan hala dela uste dut. Orixeren lanak

*Jesus'en Biotzaren Deya*-n 1917an idazten hasi zenez gerotzik irakurtzen zituen, berak aitortzen duenez, egiazko mirespenez irakurtzen ere: “Berealatik begiz jo nituen N. Ormaetxearen idazlan gozo aiek, eta ber-bertatik idazle orren izena sartu zitzaidan biotzean sekula betiko”. Bera orduan aita eskolapioek Iratxen zeukaten Ikastetxe Nagusian aurkitzen zen, profesia egin berria. Lehen gutuna 1928an egin zioten elkarri, artean J. M. Mokoroa Txilen zela. Aurpegiz elkar-ezagutu, ordea, 1934ko uda-berrian egiten dute. Txilen zenbait urte egin eta gero, aita Justo Maria Mokoroa, Asistente eta Probintzi Idazkari izendatzen dutelarik, handik Iruñera etortzen da 1934ko ilbeltzean. Bertan biziko da 1936ko urriaren 31n Frantzia aldera ihes egin beharra izango duen arte. *Genio y Lengua* liburua idazten hasi eta gero, asko aurreratua zeukala, ezagutzen du Orixeren poema. Noiz? Hara hemen erantzuna zehaztasun kronologiko osoz emana: 1934ko urriaren 24an agintzen dio Orixek poema zatika bidaliko diola; egiazki bidali, ordea, 1935eko otsailean bidaltzen dio lehen kanta, ondo gorde, hamabost egunez edo, arretaz irakurri eta segidan Lauaxetari igortzeko esanez. Aita Mokoroak, egiten ari zen lanerako zati batzuk aurrean edukitzea komeni zitzaiola oharturik, koadernoetan kopiatu zituen bidali zizkionak. Tolosarra, beraz, bere liburuaren lehen zatia –funtsezkoena– egin eta gero hasi zen *Euskaldunak* poema aztertzen, berak, liburu-bukaerako oharrean dakarrenez, 1935eko abenduaren bukaerako inprimatua baitzeukan liburuaren lehen zatia, 192. orrialdea artekoa, alegia. Eta Orixeren poemari buruzkoa, hain zuzen, 193. orrialdetik aurrera hasten da. Justo Maria Mokoroari berak nahi baino gehiago luzatu zitzaion liburuaren argitalpena, besteak beste, Orixeren poema nazionala euskal literaturaren eredutzat proposatu nahi izan zuelako.

*Euskaldunak* poema argitaratzeko prestakuntzak zi-rela eta, 1935eko udako oporretan Justo Maria Mokoroa

bere gurasoen etxean egon zen garaian, Orixe egunero etortzen zitzaion Oreatatik, goizean goiz, autobusa Lizartzan hartuta. Goiza, bada, aita Mokoroak lehendik gutunetan bidaltzen zizkion oharra eztabaidatzen pasatzen zuten. Beraz, poema ezagutu, baita xehetasun txikienean ere, aita Mokoroak ezagutzen zuen beste inork ez bezala. Eta miretsi ere, beste inork baino gehiago berak: “A Orixe yo le conocí de trato prolongado, y no pude sino admirar y... venerar”.

Altube eta Aitzol herri-literaturaren alde mintzatu baitziren, nolako harrera izango ote zuen Orixe isiltasunetik atera asmo zuen Ibarren obra horrek? Espainiako asaldakuntza militarra lehertu zen egun berean argitaratu zuen Aitzolek “Revasquización del pensamiento literario (Renacer de la estética vasca)” artikulua, seguru asko literaturaz idatzi zuen azkenekoa eta, edukiaren aldetik, benetan zukutsua. Hemen, bere azken literatur testamentua bailitzan, euskal literaturaz zeukan lehengo iritzia berresten du eta, bidenabar, Justo Maria Mokoroaren liburua astintzen.

Aitzolek, *Yakintza* aldizkarian (1934) herri-literaturan oinarritutako euskal estetika berezi batez mintzatu zenean, aita Patxi Etxeberriaren “Bost lore” poesia ezarri zuen euskal senaren arabera eginiko lehen saiotzat. Orduan bezala, 1936an Lekeition egindako poesi lehiaketan irabazle gertatzen diren Iñaki Otamendiren “Giza Adiña” eta Angel Sukiaren “Eusko Apaizgaiarena” poesiak ere euskal estetika berean moldatuak daudela konstatatzen du. Poeta gazte horien poesiagintzan, euskal poetika funtsatzen deneko lege nagusia osoki betetzen delakoan dago, uste baitu horietan, maitasunezko nahiz narraziozko nahiz bestelako kontzeptuen aurretik, beti izadian hautemandako irudiak edo metaforak kausitzen direla. Horiek jakin dute herri-poesiako pitxi estetikoak eta goi-mailako literatur sorkuntzak bateratzen. Euskal

poetika berriak ez zuen asmatu lotura hori egiten, ezta Lizardik berak ere: “Nuestros vates actuales, prestigios de nuestro renacimiento literario, no habían introducido hasta ahora en sus creaciones los destellos peculiares de la expresión poética euskaldun. Ni aun el mismo ‘Lizardi’, que tantos aciertos tuvo en su afán creador de abrir nuevos cauces al euskera literario y de injertarle veneros del vigor genuino de nuestro idioma, consiguió ni apreciar ni expresar la imaginativa y la inspiración euskaldun según exigía el genio privativo de la belleza racial”. Ez bakarrik euskal adierazpen estetikoan, musikalitatean ere Lizardi baino gehiago dira poeta (populista) berriak: “En ellos hay derroches de imaginación, riqueza de ideas selectas y recias, contrastes bellos, sonoros versos, que sin perder el vigoroso laconismo lizardiano, superan a éste por la musicalidad, y todo ello envuelto en una unidad artística que imprime al conjunto una sólida osamenta, tan bella como perfecta”. Ukaezinezko meritua duten literatur obrak iruditzen zaizkio. Horregatik, erakutsi dituzten dohain berezi horiengatik, beroriek ditugu literatur belaunaldi berriko sortzaile berriak, euskal literaturaren pizkundea kantu zaharren eta bertsolarien ohiko bidetik abiatuz ederrestera deituta daudenak. Badirudi Aitzolek bere herri-joera sendotua dakusala azken epealdiko poesi lehiaketetan. Are pozgarriago dena, Lauaxeta, hasierako berrizale hura, ildo berean sartua begiematen du. Aitzolek ekarri ditu, beraz, ur estetikoak bere senera. Luis Jauregi, Lauaxeta, Etxeberria, Otamendi, Sukia eta, norbait dira.

Bestalde, Eusko pizkundearen ekarria orotara hartuta, ez dago Ibarren pesimismoa irensteko gertu. Horregatik, ongietorri abegikorra egin ordez, zeharkako kritika zorrotza zuzentzen dio haren liburuari, artikulua azken lerroan, hain zuzen: “Mientras alguno, con mejor voluntad que acierto, en mala hora ha recriminado a esta

magnífica generación de poetas de la hora actual y desde las páginas de un nuevo libro ha condenado a casi todas las escuelas y asociaciones renacentistas euskaldunes y a los diarios y semanarios, en los que una legión de euskalzales trabaja con denuedo, vase forjando el caudal literario vasco, esperando que el pueblo, por fin, se decida a seguir al selecto grupo de los que forjan el pensamiento artístico nacional”.

Zerk eramán du Aitzol Ibarren liburua hain gogor eta hain labur kondentazera? Nik uste, badaude hor bi arrazoi. Aitzol, batetik, inplizituki aipatua sentitzen da Ibarrek liburuaren III. atalean kultur plataformez agertzen duen judizio kritikoa. Berak kultur mugimendu horretan eramandako protagonismoa seriozki auzitan jartzen dela uste baitu, hemendik letorke salaketarako lehen arrazoi nagusia. Bestetik ordea, aterabidea proposatzen den V. atalean, Ibarrek Orixeren *Euskaldunak* poema errebindikatzen du egiazko euskal estetikaren eredutzat, Aitzolek aipaturiko Otamendi eta Sukiarena lau haizetara aldarrikatzen duen unean, hain zuzen. Horra hor kontrastea. Hemen ageri da, egiazko euskal estetika berezi horretaz mintzatzean, bakoitzak bere interpretazioa egiten duela eta, ondorioz, poesi lanak ere norberak daukan ikuspegiaren arabera baloratzen direla. Zentzu honetan, Ibar eta Aitzol elkarrengandik oso urruti aurkitzen dira, etorkizunari begira poesi eredu desberdinak proposatzen baitituzte. Testuan arrazoi hau esplizituki aipatzen ez bada ere, iruditzen zait ezkutuan egiazkoa izan zitekeela.

Ez egilearen eta ez liburuaren izenik ez dakarren Aitzolen aipu horretan, Ibarrek bere burua ikusi zuen salatua. Erabat minduta, materialki eta moralki zaurituta, ohar-gutun bat igortzen du *Euzkadi* egunkariko zuzendaritzara 1936ko uztailaren 20an, motz eta latz, jarraiko zuzenketok argitara ditzan eskatuz: “Estoy muy lejos de creer que mi obra necesite ser justificada ante el



público superior al que se destina... Pero sí necesito yo hacer constar: 1. que, tomado en su sentido literal, el párrafo último del artículo en cuestión es franca y absolutamente incierto. 2. que el concepto que a través de aquellas pocas palabras se formará de mi libro cualquier lector incauto será completamente erróneo y contrario a la índole e intenciones de la obra. 3. que, atendido el renombre y características personales de J. Aitzol, habría resultado mucho menos injusto e innoble silenciar la aparición del libro, que el limitarse a sugerir sobre él un juicio tan ligero y desatentado”. *Euzkadi* egunkariko deskargu-ohar horrekin batera, hurrengo egunean, beste gutun bat egiten dio Aitzoli berari, ozpina baino garratza-goa. Askoren artean, pasarte hau hautatu dizut: “Liburuaz erantzuteko prest nagola, garbi esanik daukat bear zan tokian. Noiznai, nonai eta nolanai erantzuteko prest, bear dan bezala iskribuz izatekotan. Euskeraz, naiz erderaz; baita frantsesez ere, iñork estu-estu artuko baniñu. Baiña, nere aurrera etorri bear duna, edozein dala, datorrela ‘patu gaizto’ edo oneko liburu ori arretaz eta patxaraz irakurririk; arnas artu dezala izketan asterako; eta utzi ditzala entzute aundiko izenaren jabe eta zipokeriak atebazterrean. Bere burua entzute aundiko izenaren jabetzat baldin ba leuka ere, ez bezait, arren, neurritz gora gando-rrik altxa; gogoan ar beza ‘nonnai egiten dituztela amak seme onak’; eta bat ‘abila izanagatik, abilen erregeak ere gerthatzen direla’”. Pentsara igortzen duen oharrean ere, “an ez ba da, beste nunbait” irakurriko duela esaten dio. Altxamenduaren lehen egunetan igorriak izan baitziren, ez dakigu gutun horiek beren hartzaileengana iritsi ziren ala ez. Igorleak Joaquín Navascués postari lagunari galdegin zion mia zezala ea gutunak beren helbideetara iritsi zirenentz, baina ez zuen ezer garbirik atera.

Gutun horietan, Aitzolen jauntxokeria salatzen da, batik bat. Badirudi, kultur mugimenduan zeukan itzal

handiarengatik edo, literatur kritikariak nahiz sortzaileak kontrolpean zeuzkala. Bestela ez da esplikatzen puntu hori –ospearena, alegia–, hainbeste bider aipatzea. Dena den, oso berandu eta erdi-desertuan bada ere, azkenean entzun zen Orixeren aldeko ahotsa. Baina oihartzunik apenas izan zuen, gerrateak kultur ekintzak oro mutuarazi baitzituen.

## XI. Bere garaian argitaratu ez zen poema baten historia ahantzia

Poema horrek *Euskaldunak* du izena eta oraindik ere horrekin bueltaka gabiltza, lurzoru izoztuaren gainean bezala, han-hemen irristaka.

Ez gara sartuko poema bera juzgatzen, egiteko hau argitaratua izan zeneko datari dagokion testuinguruaren barruan egitea tokatzen baita. Hemen, alabaina, testua bera idatzia izan zeneko ingurumariak zedarritu nahi nituzke, askotan izan baitira eztabaida-leku.

*Euskaldunak* poemari egiten zaion objekziorik handienetako bat, hauxe da: enkarguz egina izan zela eta, enkargukoak ohi direnez, nolabaitekoa dela. Baina oraindik erabat zehazteke dagoen arazoa, poema nazionalaren ideia, hasiera-hasieran, norena den jakitea da. Badakigu Aitzol horrelako poema baten oso zalea zela eta Orixeri Euskaltzaleak-ek ordaindu ziola berori burutzea. Baina aipatutako elkarteak nola hartu zuen erabaki hori? Badirudi Orixe bera izan zela lan horren proposamena egin zuena, zeren Lizardik 1930eko urriaren 19an egiten dion gutun-erantzunean hauxe irakurtzen baita: “Baña enaiz geldirik egon. Zure asmoa oso bidezko dirudida. Ederra litzake gero lau urteren buruan euskerak zuk an diozun

guztia eukitzea! Zurea artu ta bereala Ariztimuño'rengana jo nun, ark nola artzen zuan ikusi naiez. Badakizu gure lanak orrek darabiltzala: gañera nik badakit euskal-poema asmo ori zenbatareño dun gogoko. Oso ongi artu zizun. Orain-oraingoz 'Euskaltzaleak' bera, laguntza bereizik gabe, elitzakela gauza orretarako, baña guztia gure gain artuz. Bion artean, bada, 'estudiatuko' degu arlo ori, ta zerbait elduz-geroz batzarrera eramango. Jainkoa'k lagunduko aal-digu ta zabalduko aal-dizkie begiak euskaltzale onei”.

Badirudi nioen arestian, ez gehiago. Orixek Lizardiri egindako gutun hori ez baitugu, ezin jakin zehazki zer proposatu zion. Baina zeharka, bai, usmatzen da Orixek berak burutu gogo duela poema, eta horretarako laguntza eskatzen diola Lizardi adiskideari eta hau, bide batez, Aitzolengana doala onespén bila. Orixek ez al zuen, bada, aspaldikoa euskal Pindaro baten ametsa? Horixe baietz. Mistralen mendeurrena ospatzerakoan, *Mireio*-ren inguruan sortutako giro beroan, sekula baino hurbilago ikusi bide zuen amets hori kunplitzeko ahalbidea. Bestalde, albotik esaka ari zitzaizkion euskal Pindaro hori, Lizardiren “Olerkari” hori, bera zela. Horregatik, interpretazio honen argitan, zuzenago izango litzateke esatea *Euskaldunak* poema Euskaltzaleak-en babesean egina izan zela eta ez enkarguz. “Orixek” poesian esaten digunez, “bestek agindurik” erretiratu zen Orixara neurtitzak ontzera. Agindurik bai, ordainketaren truke ari zelako, baina ez gogoz kontra. Bi mailok bereiztea guztiz garrantzitsua da, zeren “enkarguz” esatean “gogoz kontra” adierazi izan baita. Eta ondo dakigu, jakin, gogozkoak ez diren lanetan emaitzak ere halakoak izaten direla. Orixeren poema deskalifikatze-ko orduan, kritika batek argumentu hori erabili izan du. Nire ustez, esan dudán arrazoiagatik, bidegabeki.

Esan behar da, baita ere, euskal poemaren mamitzea ez zela izan Orixeren kapritxo hutsa. Garaiko hainbat

euskaltzaleren gogoan zegoen epos nazional baten ametsa. Beste herrietan gertatu zenaren antzera, poema hori izango zen Eusko pizkundera ondoen sinbolizatuko zuena. Nazio bakoitzak dauka bere hizkuntza mundu-literaturaren aurrean ohorezko mailan jarri duen poeta nazionala: Antzinate greko-latinoan Homero eta Virgilio, Italian Dante, Espainian Cervantes, Ingalaterran Shakespeare eta Milton, Portugalen Camoens, Alemanian Goethe, Okzitanian Mistral, Finlandian Lönnrot, Katalunian Verdaguer... Eta Euskal Herriak ere, salbatuko bazen, bere literatura goi-mailara jaso beste biderik ez zeukan. Honaino, oso oker ez banago, bat datoz gehienak. Erabat sinestuta daude nazio-askatasunak, lehen urrats gisa, urrezko aroa ezagutu behar duela literaturan. Baina noiz egin behar da eta nolakoa izan behar du? Hemen banatzen dira iritziak, interpretazio desberdinetarako bide eman dutenak. Goazen puntuz puntu erantzunak zehaztuz.

Noiz sortuko den poema hori? Poesi lehiaketak martxan jartzen diren urtean (1930) bero-bero dago poema nazionalaren asmoa. Lizardik Aitzoli eskaintzen dion “Olermen-irakite” artikuluan, zalantzen artean balantzarka, ez du uste goren-goreneko poesia burutzeko ordua oraindik heldua denik. Poeta handien uzta heldua bere aurreko poeta txikiagoek ereindako soroan garatzen da. Zentzu honetan, bere belaunaldiari dagokio aitzindari izatea. Geroxeago, Orixek *Mireio* itzultzen duenean, zertxobait baikorrago agertzen da, harengan ikusten baitu euskaraz horren antzeko lanen bat mamitzeko gaitasuna. Hurrengo urtean (1931), “Eusko-bidaztiarena” poesian, poema goren hori landuko duen Olerkaria etor dadila lehenbailehen hoska dago. Aitzolek uste duenez, halaber, atzerriko literaturetan bertsolariak izan ziren poeta handien bideak atondu zituztenak: “Rapsodak zeritzaioten bertsolariak, aspaldiko greziera edertu zuten Homero olerkari ospetsuenari argi egiñaz. Onen Odisea latinera

Livio Andronimo'k biurtuta gero, Erroma'n lenengo olerkaria Kinto Ennio sortu zan, beste edozein idazleen aurrezala. Sizilia eta Toskana'ko bertsolariak italiera iñork baño len orraztu zuten, Dante'ri bidea erreztuaz. Prantzi eta Probentza aldietan, batez ere, trobadore bertsolariak gerozko olerkarien guraso bezela ezagutu bear lirake. Españeraz asieran agertutako arrigarriena 'El Mío Cid', eresia dakusgu. Alemanin Hartmam von Aue'k egindako zaldun olerkia antzin-antziñako doixtar idazkitzat aitortzen dute, eta lenbiziko idazle bikañentzat Klopstock olerkaria”.

Euskal Herriaren kasuan, lurra landua al dago edota, Aitzolek dioen bezala, sasiak eta laharrak kenduta al daude, 1930. urte aldera, poema hori sor dadin? Ezin da erantzun zehatzik eman. Aroak aipatzen dira bakarrik: lehenik poeta aitzindariak, apalagoak, bertsolariak, eta ondoren gorenak, poetak. Euskal literaturan emanda al daude urrats horiek? Badirudi, baietz. Agian lehen urteetako poesi lehiaketen arrakastak eraginda, poema hori herriak berak idatzia daukala pentsatzen da, idatzia bere folklore aberatsean. Irudia marmolean bezala zegoen poema herrian. Jeinuaren zain egon gabe, aski zen luma hartu eta herri-ahotik jasotakoa transkribatzea. Eginkizun hori eman zioten Orixeri.

Poemak edukiaren aldetik nolakoa izan behar zuen? Arestian aurreratu dut zerbait. Pieza folklorikoa. Eredua emana zetorkion Mistralen *Mireio*-rekin eta Lönnroten *Kalevala*-rekin.

Horregatik, Orixe poema lantzera Orexako txokora erretiratzen denean, 1931ko urte-bukaeran, galdezka daukan jendeari nolako plana daukan egina azaltzen dio “Temor y aliento” artikuluan. Hemen nahiko xehetasunez azaltzen du poemak nolakoa izatea nahiko lukeen:

1. *Euskalduna*. Euskal tradizioa bizirik gordetzen duen herria jasoko da, kokapen geografiko jakina duena. Uitziz da hori, bertan biltzen baitira Bizkaiko ikazkinak,

Gipuzkoako zerratzaileak, Lapurdiko segalariak, etab., gizarte-sektore horietako bakoitzak dituen ohitura, kantu eta folklorearekin.

2. *Herritarra*. Esan nahi baita baserritarrak ulertuko duena izango dela, horiek izendatzen baititu poemaren lehen aholkulari eta azken epaile.

3. *Errealista*. Hitzaren zentzu hertsian, adierazi nahi da irudimenak ez duela deus asmatuko. Bertsolarien antzera, poetak bizitza errealeko gertakariak kantatuko ditu. Beraz, poema osoki objektiboa izango da.

4. *Unibertsala*. Kantagaiari dagokionez, herritarren bizimodua hautatuko da, herri-usuarioak urtean zehar zikloka banatuz: etxeko lanak, kanpokoak, jaiak, dantzak, apostuak, herri-medikuntza, etab.

5. Hizkuntzari dagokionez, bertsolarien *euskara bateratuan* idatzia izango da. Kantu episodikoetan bakarrik egingo du bertsolari bakoitzak bere euskalkian.

6. Metrikari dagokionez, kantu, dantza edo euskal bizitzako adierazpen bakoitzak zein neurri eskatu, huraxe erabiliko da.

Horra hor, laburki esanda, Orixek bere lanari ekin aurretik ezartzen dizkion ezaugarri nagusiak.

Baina horrelako asmoak agertzen dituenaldi berean, luma dardara bizian ikusten zaio, porrotaren beldurra baitauka barruraino sartua. Izan ere, Euskal Herri osoa kantagai izango zuen poema bat burutzea konpromiso handiegia iruditzen zaio. Baitaratzen da haren eskuetan jartzen dutela herri baten arimari forma nazionala ematea eta, bide batez, haren geroa ziurtatzea: “Supuesto el caudal poético de nuestro gran pueblo, asombroso, si es que hay mano experta que la descubra, ello supondría la independencia de la literatura vasca; es decir, la gran parte de la independencia mental, por la que un pueblo abarrajado materialmente, no deja de ser pueblo ante el mundo ilustrado. ¿Y quién no recela un fracaso ante empresa tamaña?”.

Lurdes Otaegiren ustez, Orixe euskal lanetarako liberatu zutenean eta profesional publiko bihurtu zenean, besteek egindako proiektuekin aurkitu zen eta ezin egin ahal izan zituen berari gogoko zitzaizkion lanak. Profesionaltasuna, zentzu honetan, anbizio pertsonalak betetzeko oztopo gisa atzematen du. Poema nazionala enkargatzean, horrelako zerbait gertatu ote zitzaion edo, susmatzen du.

Onartzen dut norbaitek inoren kontura lan egiten duenean, nahiz eta euskal gaietan izan, askotan bere barruko joeraren kontra borrokatuz diharduela lanean. Egia da Orixeri ere, zenbait kasutan, hori gertatu zitzaiola. Ikusi dugu nola kexatzen den *Euzkadi* egunkarian, itzulpen-lanetan eta gisakoetan enplegatzen dutelako. Guatemalan ere, *Euzko-Gogoa* aldizkariko argitalpen-akatsak zuzentzen, azkar asko aspertu zen. Eta abar, eta abar. Orixeek lan asko ditu enkarguz egindakoak. Baina ez guztiak munta berekoak. *Urte Guziko Meza-Bezperak* halaxe egina du. Orobat *Agustiñ Gurenaren Aitorkizunak*. Gogoz kontra? Ez dut uste. *Euskaldunak* ere bai. Agindu ziotelako? Ez dirudi hala izan zenik, proposamena luzatzen duena bera baita. Horregatik, zehazki jakin behar dena da, Orixeek diru-truke egindako lanetan, zein egin zituen gogoz eta zein ez hain gogoz eta, kasurik ertzekoenean, zein gogoz kontra. Kasu guztiok emango ziren seguru asko Orixerengan. *Euskaldunak* poemaren kasuan, berak proposatua izaki, dudarik ez da arima jarri zuela eta bere haurra biziki maite izan zuela. Horregatik, enkarguz egina zela eta, ezin da gutxietsi. Ezta ere, ezin da esan, Orixeek porrotaren beldurra sentitzen badu, plana ezarria izan zaiolako dela. Beldurra, ez konpromisoak berak, baizik eta konpromisoaren handiak –poema horretan euskaltzaileek ezarria daukaten sinesmenak, alegia–, eragiten dio.

Esan izan da, orobat, Orixeren *Euskaldunak* poemak ez ziola erantzun epos nazional horretan ezarria izan zen



esperantzari. Eusko pizkundeko gidarien eta, bereziki, Aitzolen kamusada, hein batean, hari egozten zaio. Bestela esanda, euskal Mistral hautatuak enkargua ez zuen ondo bete.

Berriro, nik uste, jarrerak beren lekutik larregi desbideratzen dira. Orixeren poema ona den ala ez eztabaidan kateatu gabe, esan behar da errudun nagusia –errudunik izatekotan–, ez egilea bera, baizik eta Euskal Herriaren nazio-arazoa poema batekin identifikatu zuen euskaltzaleen kolektiboa dela. Eta erredunen artean, ez txikiena, Aitzol bera. Honek, hizkuntzan oinarritutako euskal nazioaren eraikuntzan, neurritz kanpoko indar eragilea aitortzen dio, oro har, kulturari eta, bereziki, literaturari. Politika eta kultura sistemaz zatitzen dituen ikuspegi soziolinguistikoak –eta hauxe da Aitzolen kasua–, planteamenduan bertan, hots, arazoaren erroan huts egingen du. Kulturak ezin ditu erabaki, politikak erabakitzeke uzten dituenak. Hauxe da, hain zuzen, ikuspegi erreformistaren ilusioa, sinesmena horretan jartzen dutenengan kamusada sortzen duena. Euskal kulturaren, euskararen atzerakada dela eta, krisi moduko zerbait nagusitzen bada, ez da, funtsean diot, ez hizkuntz ereduengatik ezta literatur motengatik ere, nahiz eta horrek ere bere eraginik baduen. Da, bereziki, botere politikoan oinarritutako egiazko hizkuntz planik ez dagoelako. Gerraurrean, ezin da esplikatzen euskal kulturaren porrota aldi berean ez bada esplikatzen euskal politikarena, autonomi estatuaren historia beltzean gauzatzen dena. Gizarte-bilakae-ran elkarri eraginez dihardute faktore desberdinek: ekonomikoek, politikoek, kulturek, ideologikoek, eta bestelakoek. Garai hartako euskal mugimenduan, oro har, faktore guzti horien harreman dialektikoa sintetiza zezakeen nazio-planteamendu koherente eta sinesgarria falta zen. Beraz, porrotaren erruduna norbait izatekotan, ez da Orixe, euskal kolektiboa baizik. Eta hasteko, horko gida-

riak. Hizkuntza baten biziraupenak harremanik hertsien eta eraginkorrena, inolako zalantzarik gabe, boterearekin du. Eta boterea zer da politika besterik?

Ondoko urtetan, bereziki 1960. urtetik aurrera, hobeto ikusi ahal izan da planteamendu hark hondarrezko oinak zeuzkala. Beraz, poemak hein batean porrot egiten badu, kausaren erruduna areago da kolektiboa pertsonala baino, Luis Mitxelenak barkagarri atzematen duena: “Se trataba, por tanto, de mantener a Orixé con mesa y mantel puesto, y éste nos crearía el gran poema que el euskera necesitaba. Todo esto, hoy, parece una barbaridad, pero entonces era disculpable”.

Azkenik, poemak ezagutu dituen hiru argitalpenei buruz, ez da sobera egongo argitasun batzuk ematea, irakurleak zein testu erabil jakin dezan. Lehen argitalpena Zarautzko “Itxaropena”n egin zen 1950ean, testua Manuel Lekuona eta Antonio Maria Labaienek prestatuta. Aitzoli entregatutako originala eskuartean ez edukitzean, han-hemen barreiatuak zeuden testu-zatiak bilduz osatu behar izan zuten poema eta hortik sortu ziren argitalpenakatsak. Justo Maria Mokoroa, poema bere osotasunean gordetzen zuena, 1950eko udaberrian itzuli zen Amerikatik. Orixek, hura herriratu zela jakinda, Argentinatik agindu zuen ez zezatela poema argitara eman tolosar eskolapioak ikusi gabe eta berak zuzen zitzala akatsak. Presagatik edo, ez baitzen horrela gertatu, akats asko eta handiekin kaleratu zen lehen argitalpena: “La premura de tiempo que les imponía el ansioso público ha perjudicado, a la mayor perfección con que hubiera podido editarse. Uno me habla no de montón sino de montaña de erratas. Otro que lo había leído repetidas veces me responde que la mayor parte son subsanables por el lector inteligente. No pude confrontar la copia que me enviaron a San Juan de Luz con mi original, ni atender a la corrección de pruebas de imprenta, ni pienso leer el

impreso hasta haber recibido las observaciones del P. Morcoroa”. Honek, testua akatsez josita zegoela ikusita, zuzenketez osatutako liburuxka bat argitaratzeko asmoa azaltzen du 1952an: “En realidad, fueron tantas y tales las (erratas) que iban saltando a mis ojos a la primera lectura, que, mirando por el prestigio de la obra, creí necesario publicar un folleto aparte con las correcciones. Sometí con tal objeto mi copiosa lista al V. B. de Orixé; la completó él con unas pocas adiciones y algún retoque dado al propio texto primitivo, y, en Madrid, a donde se me había destinado de momento, me puse al habla con un impresor de la Capital. A la vista tengo el original del presupuesto presentado por ‘Ediciones Castilla’ con fecha de febrero de 1952”.

Akatsen atalera etorrita, esan dezagun larrienak bi direla. Bata da euskal metrikari buruzko oin-ohar garrantzitsu bat ezabatu ziotela liburutik, zioena estrofa batean, kantatzerakoan, negra bat jar zitekeela bi kortxearen lekuan. Honek, noski, estrofa-mota berean silaba-kopuru desberdina egotea suposatzen zuen eta hortik etorri zen irakurlearentzako nahasbidea. Baina Orixek nahita, oso jakinaren gainean, osatu zituen horrela zenbait estrofa, “Versos a la antigua” izeneko artikuluan (1951) idazten duen bezala: “En este caso, el verso de siete-seis sílabas con cesura en medio, la negra sustituible es la primera de cada hemistiquio, o sea, la de comienzo de verso y la de comienzo de segunda de verso. De modo que la medida *siete-seis* se pueda convertir en *ocho-siete*, ya en un mismo verso, ya en diversos de la misma estrofa... Así me explico cómo un crítico ligero, sin fijarse siquiera en la música que va detrás, ha afirmado que tengo muchos versos ‘cojos y desrñonados’”. Hor datorren “crítico ligero” hori, antza, Telesforo Monzon zen. Geroztik ere hanka zulo berean sartu duten Monzon asko izan dira. *Euskaldunak* poema argitaratu zeneko urrezko eztaiak zirela

eta, 2000ean Donostiako KM kulturunean egin zen mahai-ingurukoan, harri eta zur geratu nintzen hizlari eta entzule aditu batzuek puntu honetaz oraindik enteratu gabe zeudela nire belarri-begiz egiaztatzea tokatu zitzaizdanean. Harritzekoa! Ikusia dago hasieran egindako okerak, nahiz geroztik mila bider zuzenduak izan –kasu honetan bezala–, itsasertzean uhinak bezala birsortzen direla. Beste akatsa Justo Maria Mokoroak jakinarazten diguna da: alegia, 343. orrialdean, “Stat Crux dum volvitur orbis” esaldia, egiazki kartusiarren lema izanda, Apokalipsikoa dela esaten dela.

Bigarren argitalpena Auñamendi argitaletxeak egin zuen 1972an Joan Inazio Goikoetxearen (Gaztelu) ardurapean. Honek, lehenengoarekin alderatuta, aldaketok dakartza: a) jatorrizko testuaren gaztelaniazko itzulpena, Orixek berak egin; b) zuzenketa ortografiko eta lexikalak –berrehun hitzetik gora–, Justo Maria Mokoroak bidalitako akatsen zuzenketa-zerrendan oinarrituta eginak; c) hiru bertsoen eransketa I. kantuan, 604 eta 609 neurritzen artean, eta XIII. kantuan, 205 eta 212 neurritzen artean, hauek ere Justo Maria Mokoroaren oharrei esker sartuak. Bigarren argitalpen honek asko hobetzen badu ere lehenengoa, geratzen dira bertan beste ehunen bat edo zuzentzeke. Honek ekartzen du hirugarren argitalpena, La Gran Enciclopedia Vasca-k 1980an egin, Justo Maria Mokoroaren orrazketa erabatekoarekin. Azken hau da zuzena, erabili beharrekoa, Justo Maria Mokoroak berak bere eskuz idatzitako hitzaurre jakingarri batez osatua datorrena. Halaxe izanda ere, horixe delakoan nago kasurik gutxien egiten zaiona.

## XII. Ez da azken hitzik

Ez, ez da azken hitzik gerraurrean bideratzen den kritika literarioaren aldapa malkartsuan, literatur joeren arteko lehia bizia baizik. Lehia honetan parte hartzen duten protagonistak –aldi berean kritikariak eta kritika-tuak–, kasurik gehienetan, idazleak berak dira.

Idazleen arteko desberdintasunak bazirela, bistakoa da. Antonimoen erara funtzionatzen zuten: euskara garbia eta mordoiloa, zaila eta erraza, berria eta zaharra. Lehen esana daukat, euskal literaturak une horretan eza-gutzen duen berrikuntzan ez dudala sumatzen inolako modernismo-kutsurik. Euskal gizartean ez da gauzatzen Europan iraultza burgesarekin ematen den tradizioareki-ko haustura. Beraz, ez deritzot egoki euskal poesia modernoaz hitz egiteari, ezta Lauaxetaren kasuan ere, literatura mailan forma-berrikuntza batzuk ematen badira ere, ez baita ematen etendura ideologikorik. Puntu honetan bat natorkizu Iñaki Aldekoak *Jakin*-en euskal poesiagintzaz agertutako iritziarekin: “Zail egiten zaigu, beraz, onartzea –J. Kortazar-ek nahi duen bezala– Europako haustura, tradizioaren edo, beste modu batera esanez, poesia modernoaren euskal bertsioa, Lauaxeta eta Lizardi direlako baieztapena”. Lauaxetaz edo Lizardiz egiten den

interpretazio modernistaz, esan behar dut, horien poesiari buruz irakurketa formalista egiten delako dauzkatela autore horiek modernistatzat, baina egiazki izan gabe, noski, zeren mamia, horien ideologia funtsean ez baita inolaz ere modernista, hitz honen zentzu hertsia eta klasikoan.

Eta goiko baieztapen hori ziurtatzeko daturik sendoena da, kleroa dela, edota bere hezkuntza formala eliz ikastetxeetan jaso duena, orduko euskal literaturaren protagonista nagusia, sorkuntzaren zein kritika literarioaren mailan. Orotara, erakuskaritzat 1934-1935eko epealdian idatzi dutenak hartuta, egiaztatzen da bost idazletatik ia hiru klero-estatukoak edo eliz ikasketak egindakoak direla eta laikoak, berriz, guztizkoaren heren bat besterik ez. Gerraurreko euskal literatura modu batera nahiz bestera bultzatzen dutenengana joaten bagara, halaber, elizgizonak eta eliz ikasketak egindakoak ageri zaizkigu punta-puntan: Azkue, Olabide, Jose Maria Estefania, Aitzol, Orixe, Lauaxeta, Jokin Zaitegi, Patxi Etxeberria, Loramendi, aita Iraizoz, Luis Jauregi, Fabian Loidi, Manuel Lekuona, Jose Migel Barandiaran, Justo Maria Mokoroa, Anizeto Zugasti, Txomin Jaka-Kortajarena, Tomas Agirre, Joan Garbizu, etab. Lizardi eta Altube bezalako laikoak garai hartan uharte txiki bat besterik ez dira klerikoen itsaso handian. Modernismoaren espiritua urruti dago giro horretatik.

Garai honetako poesiaren bilakaera ezin bada esplikatatu modernitate eta klasizismoaren arteko oposizio dikotomikoaren argitan, nola interpretatu behar dira aipatu ditugun joera desberdinak? Galdera honen gakoak eskuan izateko, iruditzen zait gerraurreko euskal kulturaren historia hurbila kontuan hartu beharrean gaudela. Zer ageri den? Bada, handik eta hemendik, euskarazko kulturaren munduan, mugimendu politiko-ideologikoe-kin guztiz bat ez datozen ikuspegi eta praxi desberdinak gauzatzen direla. Euskaltzaileen etxea kontrastez betea

baitago, autore bat joera batean edo bestean sailkatzeko orduan, ez dute balio eredu estereotipatuek. Joerak tipifikatu eta paralelismoak kontuz-kontuz ezaugarritu beste biderik ez dugu.

XX. mendeko bigarren hamarkadan, batez ere, bi joera hasten dira gorpuzten: bata euskara kultur hizkuntza landu edo moderno bilakatzearen aldekoa, zerbait berria dena, eta bestea euskal kultura herri-literaturan oinarritzearen aldekoa, tradizioari atxikiagoa dena. Lehen kasuan, Unamunoren eta beste hainbaten parioari erantzunez, frogatu behar zen, mugimendua ibiliz bezala idatziz frogatu ere, euskara gauza zela hizkuntza moderno eta kultua izateko. Jesuiten eskolak ekiten dio bide honi, kultur eredu landutzat autore greko-latinoak hartuz. Kultura honetan jantzienak ere, tradizioz, jesuitak izan direla errepikatu beharrik ez dago, hain zuzen ere, pedagogia jesuitikoa Antzinateko klasikoan berreskuratzean oinarritzen baita. Euskarak, gizartean erakarpena izan zezan, sona behar zuen. Hau izan da hizkuntz apologista guztien kezka, gure literaturan oso nabarmena izan dena aita Larramendiz geroztik. Eta hizkuntza bikain, ohorezko eta errespetagarriak hebraiera, grekoa eta latina zirenez gero, herri-hizkuntzek frogatu behar zuten hizkuntza klasikoak bezain gai zirela goi-kulturarako. Hizkuntza modernoek –adibidez frantsesak eta gaztelania–, Estatuaren babesean nazio-hizkuntza bilakatzean lortu zuten normalkuntza hori. Euskara ez baitzen iritsi inoiz nazio-hizkuntza ofizial eta nazionala izatera, herri-literaturatik kultur tresna bitarteko jauzi kualitatibo hori emateke geratuko da gerraurrean eta geroago ere. Hutsune hori betetzera dator kultura klasikoan adituak eta trebeak diren jesuiten ahalegin kolektibo hori. Euskararentzako eredia, ez hizkuntza modernoetan, baizik eta klasikoetan ezartzen da. Aukera honen arrazoia ideologikoa da: Mendebaldeko European Estatu multinazionalen

eraikuntza burgesiaren obra izan denez gero, pedagogia jesuitikoak juzgatzen du gizarte-klase horren ideologia liberala dela eta hizkuntza modernoan burututako obrek kutsu laiko-profanoa daramatela. Ondorioz, eskola honen iritziz, kultura klasiko horretan aurkitzen da humanismo jatorraren arketipoa eta mundu-literatura gorena-ren kutxa. Asko dira grekoa hizkuntza gorena dela dioten euskal autoreak. Halaxe dio Jokin Zaitegik: “Ladera izke-  
ra oparota ta landua baita, ta Elade zaarreko idazleak go-  
rengoak”. Gauza bera Santi Onaindiak ere: “Grezia do-  
gula, autortu bear, beren-beregiko kultura baten jabe,  
beste enderri guztien aurretik: mamin ezilkorra barnera-  
tu eutson bere izkuntzari, eder ta garbal beste oroen gai-  
ñez jasorik: giar eta indartsu, lenen erri-arnasaz adoret-  
sua ta, gero enparau literaturaren ama lez goi-goi jarria”.  
Azken aldi hauetan, klasikoen mundutik nahiko urrun-  
durik gauden une honetan, Krutwig eta beronen eskola-  
koak datozkigu euskara landuarentzako grekoaren ere-  
dua errebindikatuz.

Beraz, autore klasiko horiek etxeratu behar ditu eus-  
karak itzulpenen bidez. Eskola honetakoak izango ditu-  
gu, batzuk bakarrik aipatzearren, Orixen, Estefania, Ola-  
bide, Lauaxeta, Zaitegi, Andima Ibinagabeitia, Patxi  
Etxeberria, Gaizka Barandiaran, etab., eta hauen lan es-  
kergerari zor zaizkio Platon, Sofokles, Euripides, Homero,  
Virgilio, Ovidio, San Agustin eta Bibliaren itzulpenak  
egin izana. Bere garaian klasiko grekoak eta latinoak  
itzultzeko hartu zuten erabakia beteta geratu zen neurri  
batean. Sorkuntza librean ere, klasikoen kodeak erabil-  
tzen dituzte. Orixek Homero eta Horazioren eragina  
aitortzen du *Euskaldunak* poemaren hitzaurrean: “Nere  
lan oni kera berri bat ematen saiatu naiz: ez Homer’ena  
bezain lasaia, ez Horati’rena bezain tinkoa, bien tartekoa  
baino”. Lauaxetak Greziako literaturan gehien estimatzen  
zuen balioa, “Gazigozoak” artikuluan aitortzen duenez,



*sophrosyne*-a da, ederrak dakarren bakea. Euskararen eta grekoaren artean kidetasunik ikusi duenik ere izan da. “Gerkerak ba-dau euskeraren antza, itz-eralketa ta joskeran beñik-bein”, esango du Santi Onaindiak.

Jadanik *Jesus'en Biotzaren Deya* aldizkaritik datorki-gun eskola hau indartsua da, dudarik gabe. Hortik joko dute, bidenabar, Bingen Ametzaga, Joan Angel Etxeberria, Santi Onaindiak eta beste batzuek. Maila kolektiboan, hala ere, *Euzko-Gogoa* izango da emaitzarik biribilena. Jesuiten eskolakoak kultistak genituen, hots, gai akademiko eta espezializatuen lanketari hizkuntz tratu-ara tekniko-zientifikoa aplikatu nahi ziotenak. Noski, euskara hori ikasientzat bakarrik izan zitekeen. Horregatik, euskara landuaren bidez, euskal kultura elitista egin nahi zuten. Bazekiten ongi herriak ez zuela irakurtzen ez Dante, ez Goethe, ez Platon, ez hauen kidekorik.

Bigarren joera herri-literaturaren eta folkloreakin inguruan biltzen da. Julien Vinsonen *Le Folklore du Pays Basque* lanaz geroztik, batez ere, herri-altxor hori berreskuratzeko kontzientzia ere asko indartzen da XX. mende-hasieran. Zentzu honetan, R. M. Azkue, aita Donostia eta J. K. Gerrak, besteak beste, herri-kulturaren aberastasuna azpimarratuko dute. Baina euskal antropologiaren nahiz literaturaren sail honetan aro berria irekitzen duen esparrua, inolako zalantzarik gabe, Gasteizko Seminario Nagusia da. Klero erregularrean Loiolako jesuiten eskola eratzen den bezala, ekinbide paraleloan, klero sekularrean Gasteizko eskola antolatzen da, oinarritzat euskal tradizioan sendo oinarrituta dauden eta euskalduntasunaren zeinu diren bi zutabe dauzkana: folklorea eta ahozko literatura. Eskola honetatik hainbat idazle atera bada ere, Seminarioan bertan irakasle-lanetan diharduten bi gailentzen dira une hartan: Jose Migel Barandiaran eta Manuel Lekuona apaizak. Beste arrazoen artean, hauengatik bereziki: lehenengoa, berak sistemati-

zatu eta bideratu zituelako euskal antropologiari buruzko ikerlanak; bigarrena, berriz, ahozko literaturaren teoritze-lanaren bidez, puritanismoak baztertuxe zeukan bertsogintzaren moldea euskal literaturaren kausarako irabazi zuelako. Eskola honek herri xehearentzat idazten du. Zentzu honetan, populista da, herritarra, ahozko literaturatik hurbil dagoena, gai arruntak erabiltzen dituena.

Ezin da ukatu Eusko Pizkundearen bilakaeran, 1930az geroztik bereziki, bi joera horien presentzia. Eskola batek, elitistak, euskara landuan sinesten du, batik bat, etorkizunari begira; besteak, aldiz, herri-literaturari ematen dio lehentasuna. Elkarren artean, egon, ez dago seguru asko inolako kontraesanik. Baina orduko polemika, nire ustez, hortxe polarizatu zen. Idazleen lagunartek ere ez al zuten pixka bat eskolen arabera funtzionatu? Baietz esango nuke. Ikusi dugun bezala, eztabaidan bi talde aski finkatuak atzeman ditugu. Batetik, Gasteizko eskola dago, klero sekularrak gidatzen duena. Hemen sartu beharko genuke Orixek aipatzen duen Comillasko laukotea: Aitzol, Jautarkol, Tomas Agirre eta Garbizu. Bestetik, Loiolako jesuiten eskola daukagu, Estefania, Orixe, Ibar eta Lizardik osatzen dutena. Eta Lauaxeta non? Nire ustez, beste ezer baino gehiago da jesuiten eskolakoa, baina Aitzolek bere altzora inguratu zuen. Txomin Jaka-Kortajarena daukagu beste adibidearen puntaren puntan, zeren herritarra inor izatekotan bera baita; hala ere, ez du irabazten Aitzolen oniritzirik.

Horrekin zer adierazi nahi dudan? Lehenik, eskola desberdinen arabera eginiko eskema horrekin ez dudala inolako tesirik eraiki nahi izan. Inpresio hutsa besterik ez da: hots, lagunarteak klan modura funtzionatzen duela. Bigarrenik, ez dudala uste balio dutenik ezarri ohi diren paralelismo hauek: a) gutxiengoaren eredia, berdin hizkuntza zaila, garbia, modernoa, landua; b) gehiengoaren eredia, berdin hizkuntza erraza, mordoiloa, klasikoa,

herritarra. Oro har, tipifikazio honen arabera ezin dira sailkatu autoreak. Eskema sinpleegia da ezer esplikatze-ko. Hirugarrenik, joera gisa bederen, populismoa nagusitzen dela gerraurrean, beste arrazoien artean, sektore horrek kultur platafomak eskura zeuzkalako. Zentzu honetan, Aitzolen eragina eta honi PNV jeltzaleak eman zion babesa erabakigarriak izan zirelakoan nago.

# KRITIKA LITERARIOA

## BILDUMA

1. Jon Kortazar: *Diglosia eta euskal literatura*, 2002
2. Iratxe Gutierrez: *Malkoen mintzoa. Arantxa Urretabizkaia eta eleberrigintza*, 2002
3. Orixo: *Euskal literaturaren historia laburra*, 2002
4. Paulo Iztueta: *Kritika literarioaren lehen saioak (1926-36)*, 2002